



Hegemonia, artikulazioa eta populismoa

LACLAREN EKARPENAK
ETA EUSKAL HERRIA







Hegemonia, artikulazioa eta populismoa

LACLAUREN EKARPENAK
ETA EUSKAL HERRIA



INSPIRAZIOAK
S A I L A

01



LEHENGO EDIZIOA

Donostia, 2017ko apirila

Iratzar Fundazioa

Zuatzu Enpresa parkea
Zuihatzu kalea, Easo Eraikina, 4 behea.
20018 Donostia (Euskal Herria)
fundazioa@iratzar.net
www.iratzar.eus

Itzulpenak: José Morales. Laclaren artikularentzako
"Representación y movimientos sociales" eta Laclau eta
beste batzuen zitak Floren Aoiz eta Iratzarrek sinatutako
testuetan.

Diseinua: Unai Bergara

Maketazioa: Unai Bergara

Inprimaketa: Gertu Inprimategia (Oñati)

Lege Gordailua: SS 197-2105

ISBN: 978-84-697-2691-4





ERNESTO LACLAU

(Buenos Aires, 1935/10/6- Sevilla, 2014/04/13)

Laclaurena askapenaren teoria eta praxia berritzeko saioen artean kokatu behar da. Eta bere saioak bizi garen garaiaren ulermenerako eta eraldaketa pentsatu eta garatzeko tresna kontzeptual eta irakurketa eta proposamen inspiratzaileak eskaintzen

dizkigu, bere teoria osoaz ados egon ala ez baliatzen ahal ditugunak.

Asko dira guretako inspiragarriak izan daitezkeen ideia, kontzeptualizazio eta proposamenak, besteak beste honako hauek: klase esentzialismo eta determinismo ekonomikoen kritika; artikulazio hegemonikoen garrantzia; nortasun politikoen eraikuntzaren eta sedimentazioaren irakurketa; psikoanaliaren ekarpenak (era berezian afektuen eragina); hizkuntzaren eragina; kontingentziaren nagusitasuna, antagonismoen aldarrikapena, politika eraldaketa gisa hartuta; etika militantea, iraultza demokratikoa eta demokraziaren erradikalizazioaren zerumuga; unibertsala eta partikularren arteko harremana eta, azkenik, populismoaren teorizazioa, instituzionalismoaz kontrajarria.

Bereziki interesgarriak dira Laclauren inspirazioak erresistentzia logikatik eraikuntzaren logikaren nagusitasunera pasatzeko gauden bidean.

Zergatik Laclau?

*Nunca estuve alejado de la actividad política.
Siempre mi pensamiento se estructuró alrededor de la acción política.
(...) Siempre fui un militante.*

Ernesto Laclau, 2013¹

Ernesto Laclaren ekarpenen inguruko kaier honek hasiera ematen dio Inspirazioak izeneko Iratzar Fundazioaren argitalpen bilduma berriari. Non-bait hasi behar zen eta Laclau izan da lehen gonbidatua gure kaierretan, jada García Linera bolibiarren antologia liburu batean parte hartu dugularik Txalaparta Argitaletxearekin².

Laclau aukeratzeko lehen arrazoia bere heriotzaren bigarren urteurrena zen, baina egitasmoaren gauzapena atzeratzen joan da eta datak garrantzia galdu du, askotan gertatzen denez. Inspirazio emankortasuna izan da, berriz, irizpide nagusia: Laclau aukeratu dugu hagitz inspiragarria iruditzen zaigulako.

Ñabardurak ñabardura, ados gaude Marchartek eta Critchleyk idatzitakoaz Laclaren ekarpenaz:

“La obra de Ernesto Laclau es uno de los intentos contemporáneos más innovadores e influyentes de revivir y rearticular el pensamiento político en una época en que sus fundamentos se han vuelto cada vez más inciertos³.”

Izan ere, oso emankorra da Laclaren pentsamendua politika eta eraldaketa pentsatzeko (eta gauzatzeko) politika administrazio hutsa bilakatu nahi duten gure garaietan. Berrikuntzak ekarri ditu Laclauk, batzuk zuzenak, beste batzuk eragin dituen eztabaiden bidez. Eta iruditzen zaigu aberastasun handia dagoela hor, guregana ekarri beharko genukeena.

¹ García Linera, Álvaro; *Democracia, Estado, Revolución, Antología de textos políticos*, Txalaparta, Tafalla, 2016.

² García Linera, Álvaro; *Democracia, Estado, Revolución, Antología de textos políticos*, Txalaparta, Tafalla, 2016.

³ Critchley, Simon; Marchart, Oliver (konpilatzaileak); *Introducción; Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2008, 15. orrialdea.

Honetan ez dago inolako Laclau-ismo aldarrikapenik, norbait edota bere ekarpenak inspiragarritzat hartzeak ez baitu esan nahi jarraitu beharreko eredu bilakatzen dugunik. Beste inspirazio batzuk ekarriko ditugu eztabaidara hurrengo aleetan, horietako batzuk Laclauen hainbat ideiekiko kontrajarriak izan daitezkeelarik. Gure ustetan, hau da eztabaida aberasteko bidea, atxekimen dogmatikoak, mekanismoak, sinplekeriak eta itxikeriak alde batera utzita.

Laclau pentsalari garrantzitsua da, Euskal Herrian nahiko berandu ezagutu bada ere. Alde batetik, Laclau agertzen da azken garaietako ezkeraren hainbat eztabaidaren lehen mailan, Butler, Zizek, Negri, Holloway eta erreferente askorekiko harreman-elkarlan eta diskusioak izan dituelarik.

Nabarmena da, bestalde, hainbat prozesu politikotan izan duen eragina, bereziki -baina ez soilik- Argentinan. Batzuen aitzin, beharbada, Kitchnerismo edo Podemosen oinarri teorikoren iturburu gisa agertu da Laclau. Modan sartu izanak distortsioak ekartzen ditu normalki, eta halaxe gertatzen da gure gizonaren kasuan. Izan ere, Laclau ezagutzea edo aipatzea (batzuetan, ezagutu edo irakurri gabe) prestigioa ematen ahal du hainbat esparrutan. Populismoaren satanizazioan behin eta berriro aipatua eta idazteko estilo kriptiko xamarra darabilela aintzat hartuta, erreferentzia snob-progre bilakatzeko aukera handiak ditu Laclauk.

Honek ezin gaitu atzera bultza, alta. Beste batzuek pentsalari honekin egiten dutenez gain, guk ederki dakigu zer egin nahi dugun Laclauarekin: inspirazio emankorrek arakatzeko asmoa dugu, beste hainbat egile eta eraldaketa esperientziez egin nahi dugun moduan. Modan egon ala ez.

Jakin badakigu Laclauen ikusgarritasun mediatikoak eta bere teorien jabetze saioek pentsalariaren harrera baldintza dezaketela, baina hortik haratago joan nahi izan dugu, guk ere badugulako zer ikasi, baita irakaspenak non uztartu ere, borroka eta eraikuntza ibilbide luze eta emankorra baita gurea. Egindako bideak halako inspirazioak jori bilakatzen ahal ditu, eta gure ardua ekarpen interesgarriak aintzat hartzea da, aberasten gaituztelako.

Xede horri erreparatuz, hainbat gogoeta-idazki eta euskerara itzulitako Laclau beraren testu bat⁴ bildu ditugu kaier honetan. Zenbait hausnarketa

4 Txileko Santiagoko Unibertsitatearen Ikasketa Aurreratuen Institutoaren Izquierdas aldizkariari esker, ongi hartu baitzuten testua hartu eta euskarazko bertsioa egin eta zabaltzeko gure asmoa, biziki eskertu nahi duguna.

sakondu eta hedatzeko urratsa dugu ahalegin hau, bereziki hegemonia eta artikulazioaren inguruan, nortasun politikoaren sorrera eta garapena, herriaren eraikuntza, esentzialismoen kritika, diskurtsoa, politika (eta era berezian pasio politikoak) ulertzeko psikoanaliak eskaintzen ahal duen ikuspegi ahortzi gabe.

Iruditzen zaigu gogoeta nahiz ideia inspiratzaileak eta, finean, emankorrak bildu ditugula testu hauetan. Gure ustetan, lagungarriak izan daitezke ezker abertzalearen gaur egungo eztabaidan eta berrindartze estrategikoan, baina, edonola ere, gure ikuspegi nagusia zabalagoa da. Batetik, unea uneko beharretatik haratago ere baliogarriak direlako, eta, bestetik, herri gisa garatu behar ditugun hausnarketa eta praxia eraikitzaile-askatzailean bultzatzeko erregaia ere bilakatzen ahal direlako.

Iratzar Fundazioa, Euskal Herria, 2017ko Otsaila.

Ernesto Laclaren ibilbide eta Ekarpenez

OINARRIZKO BIOGRAFIA

Ernesto Laclaren biografia eta obraren inguruko sarrera interesgarria aurki daiteke Txileko Pleyade aldizkariak 2015ean Laclaren omenez argitaratu zuen alean, hain zuzen ere Hernán Cuevas Valenzuelaren “Introducción. Obra e historia intelectual de Ernesto Laclau” artikuluan¹. Guk idazki hori baliatu dugu, beste aipamen batzuekin, laburpentxo honen bidez, Laclau hobeki ezagutzeko.

2014n hil zen Ernesto Laclau argentinarra, Sevillan. 1935. urtean sortu zen, Buenos Airesen, Argentinan, eta han ikasi zuen historia. Bere bizitzan eragin sakona izan zuen Perón² gobernutik indarrez kanporatu zuen 1955ko estatu kolpeak. Peronismoa³ debekaturik, hainbat ezkerreko taldetan parte hartu zuen Laclauk, besteak beste ezker peronistan⁴.

1969az geroztik Erresuma Batuan bizi zen, Eric Hobsbawmekin ikastera joan baitzen. Essexen lortu zuen dotoretza eta Teoria Politikoko irakasle gisa jardun zuen gerora. Hainbat ardura eta lan akademiko garatu zituen aurrerantzean han baita Estatu Batuetan ere, esparru anglosaxoian oiartzun zabala eredietsi zuelarik. Konferentzia aunitz eman zituen mundu osan barna, Amerika Latinara ere itzuli zelarik, batez ere, hil aurreko urteetan, Argentinara.

Tatcherismoa eta neoliberalismoaren kontrako jarrera argia izan zuen eta pozaz hartu zituen Hego Ameriketako garatutako eraldaketa prozesuak. Batez ere, Argentinako lehendakari izan ziren Néstor Kirchner eta bere ondorengo Cristina Fernandezekiko lotura azpimarratu ohi da, baina orohar, aurrerapen gisa hartu zuen berak “zentro-ekerra” deitzen zuena hainbat gobernutara iritsi izana.

Arian arian ezkerrearen eztabaidetako erreferentea bilakatu zen eta heroi-tzaren unean populismoaren inguruko eztabaida guzietan derrigorrezko autoritate gisa hartuta zegoen.

1 http://www.revistapleyade.cl/wp-content/uploads/2.-Pleyade-16_Introduccion_Obra_e_historia_intelectual-H.-Cuevas.pdf

2 https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Perón

3 <https://eu.wikipedia.org/wiki/Peronismo>

4 https://es.wikipedia.org/wiki/Izquierda_nacional

Bere ohar biografikoetan Cuevasek azpimarratzen du garrantzia handia izan zuela Argentinan bititako militantziak Laclaren ibilbidean. Hala ulertzen ahal da, Laclauk berak zioenaren arabera:

60ko urteetan gazte ginenontzat, ezkerraren funtsezko banaketa [Argentinan] ez zen ematen nazioarteko banaketa klasikoan terminoetan (trotskismoa, estalinismoa, sozialdemokrazia edo leninismoa), baizik eta, naguski, peronismoarekiko jarreraren terminoetan. Batetik, ezker kosmopolita zegoen, ezker liberala, Alderdi Komunistak eta sozialismo tradizionalak argiki ordezkatzeko zutena; bestetik, ezker nazional eta herritarra zegoen, peronismoarekiko askoz jarrera positiboagoa zeukana. Garai hartan, ni bigarren norabide horretan mugitu nintzen. Orduantxe iritsi zitzaizkigun eragin intelektual nagusiak, guztiok konturatzen baikin 60ko urteetan Argentinan ematen zen masa mobilizazioa ezin zela ulertu termino klasista hutsetan eta, beraz, herri identitate zabalagoen teorizazioari ekin behar geniola⁵.

Hala deskribatzen zuen Laclauk berak bere lehen gogoetak:

Garai hartan, Althusser eta Gramsci irakurri nituen. Lehenak esaten zuen klase kontraesan guztiak gaideterminatuta daudela, eta nozio horrek eragin handia izan zuen nigan. Gramsciri dagokionez, berriz, nazional-popularraren nozioa zinez erabakigarria gertatu zitzaidan. Hala, ni sekula ez nintzen marxista klasista bat izan zentzu hertsian eta tradizionalan, ez aldaera sozialdemokratan ez aldaera komunistan, baina dimentsio popularra beti egon zen presente nire pentsaeran.

Ortodoxiatzat jotzen zuenarekiko urruntzea izan zen, beraz, oso goiztik, Laclaren kezka, herriari garrantzia berezia ematen ziolarik. Komeni da oroitzea peronismoan nazional-popularra oso garrantzitsua zela (eta dela, esaten ahal dugu). Esperientzia hauetatik atetarako ondorioek Laclaren kezka nagusia eragin zuten, hau da, eraldaketarako bide berriak aurkitzea. Hil zen urte berean aipatzen zuen elkarrizketa batean oraindik sustengatzen zituela ezker nazionalan (ezker peronistan) ikasitako ideiak⁶.

5 Laclau, Ernesto “En América Latina el Populismo es de Izquierda”, *Revista Socialista* 5 (2012): <http://www.revistasocialista.com.ar/node/84>

6 <https://www.pagina12.com.ar/diario/elpais/1-224931-2013-07-21.html>

Roberto Follari pentsalari argentinarrak dio Laclaren ibilbide pertsonalean dagoela populismoarekiko interesaren arrazoia⁷. Zehazki, Abelardo Ramosek lideratzen zuen erakundean ibili izana aipatzen du. Talde horretan peronismoaren aldeko hegoameriketako marxismoa izan zen, Follariren ustetan, beste akademikoendako ilun agertzen zena Laclauri argitzen zaitzaiona.

Esan dezakegu, beraz, Laclaren lehen ekarpen eta ahalegin teorikoak militantzia esperientzian atzemandako erronkei erantzuteko saioak izan zirela, edonola ere asmo horrek bere bizitza osoan jarraitu zuelarik. Laclauk marxismoa krisian ikusten zuen eta aukera berriak ireki nahi zituen, emantzipazioaren erronkari begira.

Gauzak horrela, Follarik Laclaren ekarpen batzuk azpimarratzen ditu: hegemoniaren birteorizazioa, afektoen garrantzia, herriaren kontzeptualizazioa...; denak, nolabait, garai hartan agertutako galderei erantzun saioak. Ortodoxia gisa hartzen zituen marxismoaren irakurketekiko lehiakortasuna, beraz, testuinguru horretan ulertu behar dugu, bere esperientzia militantea abiapuntu zuelarik. Urteak pasa ahala, marxismoaren krisiaren ikuspegia areagotu zen Laclarengan, eta nabarmena da, ikusiko dugunez, neoliberalismoak eta beren buruak sozialistatzak jotzen zituzten estatuen erorketak izan zuten eragina.

OBRA NAGUSIAK

Idazki askoren egilea dugu Ernesto Laclau, bakarrik ala beste batzuekin, era berezian bere emazte zen Chantal Moufferekin. Baina, guzien artean, bost dira azpimarratu beharrekoak⁸ (lehen argitalpenaren urtearen arabera zerrendatuak, eta gaztelaniazko argitalpenaren datuez):

- *Política e ideología en la teoría marxista: capitalismo, fascismo, populismo*, Siglo XXI, Mexiko, 1978.
- *Hegemonía y estrategia socialista* (Chantal Moufferekin batera) [1985], FCE, Buenos Aires, 2004.

⁷ Follari, Roberto; *La alternativa neopopulista, El reto latinoamericano al republicanismo liberal*, Homo Sapiens, Rosario (Argentina), 2011, 50. orrialdea.

⁸ Bibliografía zabalagoa aurkitzen ahal da honako webgune honetan: <http://www.centrocultural.coop/blogs/utopia/2014/04/15/bibliografia-seleccionada-ernesto-laclau-1935-2014/>

- *Nuevas reflexiones sobre la revolución de nuestro tiempo* [1990], Nueva Visión, Buenos Aires, 2000.
- *Emancipación y diferencia*, Buenos Aires, Ariel, 1996
- *La Razón Populista*, FCE, Buenos Aires, 2005.

Bost liburu hauetan sintetizatzen da Laclaren pentsamendua, beste artikulua eta liburuen garrantzia eta interesa ahanzi gabe, jakina.

Aitortu beharra dago Laclaren idazkera ez dela erraza. Areago, esan daiteke urteen poderioz konplexizatzen joan zela. Honenbestez, Laclau ez da aise irakurtzen. Idazketa estiloa nahiz ideiak atzemateak ahalegin handia eskatzen du. Bere hainbat testutara hurbiltzea zapuzgarria izan daiteke, beraz, ohituta ez dagoenarendako, ahaleginak merezi badu ere.

Edonola ere, badaude bere ekarpenetara hurbiltzeko beste moduak, esaterako, artikulua laburrak, elkarrizketak edota konferentzietako transkripzio edo bideo grabaketak. Guk, idazki honetarako, horietako batzuk baliatu ditugu, batzuetan Laclau hobeki sintetizatzen dituelako bere ekarpenak (era pedagogikoan, nolabait esateko) elkarrizketetan liburuetan baino.

Kaier honetan Laclaren ekarpen nagusiak biltzen dituen artikulua inspiragarria dago eta Interneten ugariak dira elkarrizketa eta beste erreferentzia interesgarriak, bideoetan besteak beste. Guk honako hiru bideo hauek gomendatzen ditugu, hirurak gaztelaniaz:

Laclarekiko elkarrizketak, luzeak, baina interesgarriak:

1: Puerto Cultura:

<https://youtu.be/ZOFnTNPipVY> .

2: Diálogos - Capítulo 29 - Ernesto Laclau - Osvaldo Cherep:

<https://youtu.be/qCXdlxNjetY>

Laclaren inguruko erreportaia:

3: Ernesto Laclau - Grandes pensadores del siglo XX (2010):

<https://youtu.be/faAQoqXznSQ> .

Aski baliogarria da, halaber, Traficantes de Sueños Argitaletxeak eta Nociones Comunes formakuntza politikorako egitasmoak egin zuten kurtsoa: <https://www.traficantes.net/nociones-comunes/la-razon-populista>. Bertan, Laclaren *La razón populista* liburua jomuga hartuta, psikoanalisa, pasioak eta eraikuntza politikoa garatzen dira. Hitzaldiak audioan daude gordeta

(emandako estekan entzun daitezke) eta oso interesgarriak dira, espainiar estatu mailako ikuspegiak 15M eta Podemos fenomenoaren araberrako ikuspegi nagusitzen delarik, edonola ere.

IBILBIDEAREN GAKOAK

Laclaren pentsamendua hobeki ulertze aldera, egilearen ibilbidearen inguruko mailaketa ezberdinak argitaratu dira, besteak beste Cuevas eta Hairrenak. Lehenak, Howarth segituz, uste du hiru fase argi bereizten ahal direla:

Hasiera batean, ideologiaren, artikulazioaren eta politikaren teoria marxista bat garatzen ahalegindu zen, Antonio Gramsciren eta Louis Althusserren obrak oinarritzat harturik. (...)

Bigarren fase batean, Laclauk hegemoniaren teoria postmarxista bat garatu zuen, ontologia sozial antiesentzialista eta postfundazional bat gehituz eta filosofia postestrukturalistako zenbait elementurekin. Garai hartan, Laclauk behin betiko hautsi zuen paradigma marxistaren klase esentzialismoarekin eta determinismoarekin. Chantal Mouffe bikotekidearekin batera idatzitako *Hegemonía y Estrategia Socialista. Hacia una Política Democrática Radical* liburuaren argitalpenak (1987; ingelesezko jatorrizkoa 1985ekoa da) itzal handiko teoriarari politiko bihurtu zuen mundu zabalean.

(...) Bere biografia intelektualaren hirugarren fase batean, aurreko fasean ateratako ondorioetan sakontzeari ekin zion. Sakonago garatu zuen ikusmolde postmarxista (...), elkarri lotutako hainbat ekarpen teoriko eginez: konpromiso sakonago bat Jacques Derridaren filosofiarekin eta dekonstrukzioarekin, ontologia sozial antiesentzialista eta postfundazionalarekin eta Jacques Lacanek psikoanalisi freudianoaz egindako interpretazioarekin.

Hernán Fairren ustez, berriz, Laclaren eboluzioaren gakoa marxismotik urruntzea da. Fairrek ere hiru fase atzematen ditu, (lehen) sozialismo demokratiko eta anitzaren eraikuntza (1985-1990), (bigarrena) estrategia sozialista eta erradikalizatutako demokraziaren hustuketa eta (hirugarrena) populismoaren teoria posfundazionala eta lidergo estatalistaren defentsa. Oso kritikoa da egile hau (beste batzuk bezala) Laclaren azken urteotako jarreraz:

(...) bere azken etapan, Laclaren teoriak albo batera utzi zituen marxismotik eta estrategia sozialistatik geratzen zitzaizkion

elementu apurrak. Kapitalismoak esplotaziorako eta zapalkuntza sozialerako erabiltzen dituen bideekiko eduki kritikoaz hustutako ideal emantzipatzaile batera mugatu zen, baina, gainera, zokoratu egin zuen erradikalizatutako demokraziako parte-hartzearen dimentsio horizontal eta pluralaren garapena ere, ñabardura txiki batekin: bere ontologiak dinamika politikoaren arloan ekar zitzakeen arriskuei buruzko argipen marjinalak. Testuinguru horretan, hala La razón populista liburuan nola ondorengo testuetan, pentsalari argentinarrek ez du jasotzen erreferentzia teoriko edo normatibo zehatzik erreforma sozialistak nahiz parte-hartzearen arloko erreforma demokratiko horizontalak erradikalizatzeko, sektore azpiratu eta zapalduen borroka antineoliberal eta postkapitalistarako mekanismoak sustatuz edo demosaren parte-hartze zuzen eta erdi-zuzenerako formak bultzatuz botere estatalarekiko lotura politikoetatik at. Halaber, sintomatikoki, ez da luze mintzatzen talde subalternoen logika berdinzale, horizontal, parte-hartzaile eta plurala sustatzeko estrategia politikoez, eta horrelako estrategiak behar-beharrezkoak dira arrisku zehatz bat saihesteko: masa herritarren eta mugimendu sozial berrien burokratizazioa, klientelismoa eta kooptazio transformista lidergo populisten eta haien gidalerro politikoen aldetik⁹.

Nabarmena da, bistan denez, irakurketa batean nahiz bestean marxismo standardetatik gero eta urrunago agertu zela Ernesto Laclau. Beste pentsalari askorekin gertatzen den moduan, eboluzioaren interpretaziorako aukera asmo ematen ditu.

Floren Aoz Monreal

⁹ Fair, Hernán; *¿Qué queda del posmarxismo en la teoría de la hegemonía de Ernesto Laclau? Tres etapas histórico-políticas y tres desplazamientos en su concepción normativa*, *Crítica contemporánea*, Revista de Teoría Política, bosgarren alea, 2015eko abendua: <http://cienciassociales.edu.uy/institutodecienciapolitica/wp-content/uploads/sites/4/2015/12/Fair.pdf>

Adiskide bat bazen...

Orotan bihotzbera... Ez genuen Euskal Herrira ekartzerik izan. 2014ko udaberriko goiz hartan Sevillako hoteletik bidalitako mezua izan zen ia bere azken hatsa.¹ Gurera etortzeko gogoia zuen, data finkatzea baino ez zitzaigun falta. Izan ere, bazuen Ernesto Laclauk susmoa herrigintzari buruzko bere eredu teorikoaren adibide praktikoa ezin hobea zuela gurean.

Ikasketak amaitu berritan ezagutu genuen bere lana –Chantal Moufferekin batera idatzitako liburu klasiko hura: *Hegemonía y estrategia socialista...*–, eta, onartu behar dugu orduan ez genuela gehiegi ulertu. Gero, doktorego tesiaren prestaketan, populismoaren teorizazioa ulergarriagoa gertatu zitzaigun. Azken bolada lakaniarren murgildu orduko, Zizekekina ahari-tal-kan, maixuak berriro ere iluntasunera eramane gintuen arren. Jarraian doan idazkian, alabaina, ez gara ur sakonegitan murgildu. Azkenaldiko hausnake-ka askotan kriptikoak baztertu gabe, Laclauk demokratizazioaren teorian egindako ekarpenak hartu ditugu ardatz.

Izan ere, Gramsciren ildoak eraberrituz, politika eraldatzailearen gakoak aztertu zituen Laclauk, eta, Chantal Moufferekin batera, gerra eta deliberazioaren artean dagoen politika agonistikoa deskribatu zuen, erradikalizatzeko demokra- tikoaren motorra den protesta eraldatzailearen tentsio gaindiezina. Gerraren adiera totalitarioan erori gabe, gerraren mugan burutzen den borroka politikoa.

Intersekzio zail horretan bizi izan gara urte luzeotan: etsaia ukatzen zuen gerra-logika Schmittiar gordinaren ertz-ertzean. Gizarte mugimendu eta sistema politikoaren arteko elkarreagin liskartsu horretan, protesta bortitza eta errepresio gordina bildu dira, modu askotako sufrimendua, negoziazio saiakerak eta ezinak, mobilizazio baketsuak eta proposamen politiko berritzaileak...

1 Hauxe, bihotzekoak jota hil zen goizean bertan Ernestok bidalitako mezua. De: laclaudr@aol.com Asunto: Re: Invitación Euskal Herria Fecha: 13 de abril de 2014, 9:20:26 CEST Estimado Mario, aceptaría con gusto tu invitación, pero antes del verano es imposible. Y después, estaré en Argentina hasta finales de octubre y, en general, ocupado hasta diciembre. Podríamos pensar en alguna alternativa para el primer semestre del 2015? Un cordial saludo, Ernesto.

Protesta ziklo luzea, gogorra, baina, aldi berean, sortzailea bizi izan dugu, euskal gizarte zibil berez sendoa, are sendoagoa bilakatu duen liskarraldia. Gatazka ororen alde eraikitzailea aintzat hartu behar baita beti, askotan Ernestok berak gogoratu bezala. Aldaketa, are gutxiago demokratizazioa, ez baita posible gatazkarik gabe. Hegemoniaren inguruko lehiarik gabe.

Zentzu horretan, politikaren muinean dagoen operazio hegemoniko batek hezur-mamitu du Euskal Herrian bizi izan dugun azken protesta zikloa, eta honek, ezbairik gabe, urteotan ezagutu dugun erradikalizatzeko demokrati-koa bultzatu du: gizarte arlo desberdinetan (feminismoa, ekologismoa, eus- kalgintza...) kanpoan egon den partearen barneratu egin da gradualki, sistema- ren oinarriak zabalduz, berau demokratizatuz.

Tesi garaiko hausnarketatik eratorritako idatzia da jarraian doana². Horixe izan baikenuen ikerketaren oinarri: demokratizazioaren dinamika Euskal Herrian. Eusko Ikaskuntzak 2009an antolatutako XVII. Kongresuan aur- keztu genuen lan hau eta urteotako bilakaera politikoaren argira orduko zalantza teoriko eta praktikoko batzuk ahaztu zaizkigu, noski, baina, aldi be- rean, beste asko piztu dira.

Esaterako, duela bost urte ez zen hain nabarmena Espainiako estatuak egun bizi duen krisia. Eta pairatzen dugun egoera sozio-ekonomikoa larria izan- da ere, ezbairik gabe, benetako kolapsoa eremu politikoan suma genezake. 1977tik hona gobernuan tartekatuta diren bi alderdi sistemikoak inoiz bizi izan duten egoerarik zailenean daude gaur: ustelkeria edonon, mugarik gabe barreatuta, barne-zatiketa larriak eta lidergo falta, oinarritzeko adostu- sunetara heltzeko ezina... Gainera, haien hegemonia ezbaian jartzen duten indar politiko berriak sortu dira, sistema politikoa errotik eraberritzeko as- motan, edo: Ciudadanos eta Podemos.

Berrikuntza politiko hauetan, Ernestoren itzal luze eta indartsua topa ge- nezake. Izan ere, indar horietako batek, Espainiako sistema politikoaren oinarriak ezbaian jarri dituen Podemos-ek, alegia, Laclaren teorizazioa izan du itsas-argi. Modan daude orain Laclaren idazkietan bolo-bolo topa

**2 Zubiaga, M. (2008): Boteretik eraginera. Mekanismoak eta prozesuak Leitza-
ngo eta Urbina- Maltzagako liskarretan. Doktorego-tesia. UPV/EHU. Osorik hemen:
http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Mario_Zubiaga_TESI.pdf**

genitzakeen “hegemonia”, “artikulazioa” edo “borroken baliokidetasuna”, “adierazle hutsa” eta, noski, “populismoa” bera ere: Herria (“behekoak”) eta erakundea (“kasta”) argi bereizten dituen diskurtso ezaguna.

Eta Ernestok jada ikusiko ez duen arren, kontzeptu horiek guztiak Espainiako trantsizioan ezarritako kontsentsu ustel hura kolokan jartzeko erabiltzen ari dira egun, oraindik orain oso hipotetikoa den demokratizazio saiakeraren baitan.

Amaieran idazkian aipatzen den beste hizpide batek –erabakitzeko eskubideak–, abagune honetan hartu duen ohiartzun politikoa ulertzeko ere baliagarria da eredu teoriko Laclauiarra. Artikulazio diskurtsibo eta eragile askoren balizko lotunea bilakatu da “erabakitzeko eskubidea”. Topagune, edo puntu nodala, eta, aldi berean, esanahia oraindik ere zehazteke duen adierazle hutsa, operazio hegemoniko desberdinetan finka daitekeen adierazle flotagarria.

Erabakitzeko eskubidea, herrien autodeterminaziotik, emakumeen duintasuna eta burujabetza erakusten duen “ez da ez” horretara doa, erraustegiaren inguruko herri-kontsultatik, elikadura buujabetzara. Bitartekaritza egitura guztien krisiaren eraginez, erabakia, herritarron erabaki zuzena, bilakatu baita aldi politiko honen aldarrika nagusia. Burujabetza pertsonala, bai, baina ez indibiduala. Ekintza kolketiboak ere 2009tik hona indarra hartu baitu edonon.

Espainiako sistema politikoaren krisiaren erdigunean dago, finean, erabakitzeko eskubidea. Irentsi ezina da kontzeptu hori, “dena lotuta eta ongi lotuta” nahi duen sistema politikoan. Beste arazo guztiak, Hirschmanek ongi azpimarratzen duen bezala, plus/minus logikaren arabera ebatsi daitezke sistema liberaletan: errentaren banaketa dela, zerga politika edo ustelkeria zigortzeko neurriak. Alegia, alfonbrak altxatzeko unean zein izango den asintze horren neurri “egokia” edo sistemarentzako “jasangarria”. Alabaina, “erabakitzeko eskubidea” ezin da logika horretara eraman: herritarron zuzeneko erabakian oinarritzen baita, “zirt/zart” logikapean azaleratzen den gertakizun politikoari bide ematen dion erabakian. Herriaren agerraldian.

Pozarren egongo zen Ernesto, horixe dugu omenaldirik egokiena. Aldaketa sasoi hauetan, borroka politikoari, erradikalizatzeko demokratikoari eustea. Ez dugu kale egingo.

Mario Zubiaga.

aurkibidea

Zergatik Laclau?	11
Ernesto Laclaren ibilbide eta Ekarpenaz	15
Adiskide bat bazen	21
Ordezkapena eta mugimendu sozialak	29
Ernesto LACLAU	
Hegemonia, artikulazioa eta populismoa. Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria	43
Floren AOIZ MONREAL	
Arrazoi populista	79
Andoni OLARIAGA AZKARATE	
Laclau eta Mouffe Eskozian	87
Jon AZKUNE TORRES	
Laclau Euskal Herrian	109
Unai APAOLAZA AMENABAR	
Hegemonia eta erradikalizatzeko demokratikoa Euskal Herrian	121
Mario ZUBIAGA GARATE	
“HERRI” BERRIA. Ezkerreko abertzaletasunetik Estatu propioaren aldeko mugimendura	137
Mikel URDANGARIN IRASTORZA	



Ernesto Laclau

(Buenos Aires, 1935/10/6- Sevilla, 2014/04/13)

Postmarxistatzat jotzen den teorialari politiko argentinarra. Haren liburu ugarien artean, Hegemonía y estrategia socialista eta La razón populista dira aipagarrienak. Essexeko Unibertsitateko irakaslea izan zen, eta Honoris Causa doktorea Buenos Airesko, Rosarioko, Cordobako eta San Juango unibertsitateetan.

Ordezkapena eta mugimendu sozialak¹

Ernesto LACLAU

Ordezkapen kategoriak ospe txarra du teoria politikoaren historian. Susmo txarrez hartu izan da, beti pentsatu baita ordezkapen harreman batek bere baitan dakarrela ordezkarriak ordezkatuaren borondatea usurpatzeko aukera.

Rousseau izan zen gai horretan sakondu zuen lehen pentsalarietako bat. Haren ustez, demokrazia zuzena zen benetako demokrazia bakarra, baina onartu egiten zuen komunitate txikietan soilik existitu ahal zela, hala nola bere garaiko Genevan, Rousseauk uste zuen bezain demokratikoa ez zen arren. Gainera, Estatu modernoak gero eta handiagoak zirenez, Rousseauk beharrezkotzat jo zuen ordezkapen formaren batera pasatzea. Hala ere, haren iritziz, ordezkapen forma hori guztiz gardena izan behar zen, hau da, ordezkarriaren rola ordezkatuaren borondatea inolako aldaketarik gabe transmititzea izango zen. Beste era batera esanda, ordezkapen ona noranzko bakarrekoa zen: ordezkatuarengandik ordezkarirengana.

Hainbatek laster jarri zuten zalantzan ikuspegi hori, haien ustez ez zeto- rrelako bat ez errealitatearekin ez gizarte baten funtzionamendu demokra- tikorako behar zenarekin, ordezkarriaren zeregina ez baita ordezkatuaren borondatea bere horretan transmititzea, baizik eta, horrez gain, ordezka- tuaren borondatea termino komunitario zabalagoetan aurkeztea. Hau da, komunitatea osotasun gisa hartuz –Parlamentuan ordezkatutako osotasun gisa, esaterako–, frogatu egin behar zen ordezkatuen interes sektorialak bat zetozela interes nazionalarekin. Horretarako, hainbat kontutan ordezka- tuaren oinarritzko diskurtsoarekin bat ez zetorren diskurtso bat osatu behar zen, eta horrek bere eragina izango zuen ordezkatuaren borondatean. Az- ken batean, eta interrelazio horren ondorioz, ordezkarriaren jardunak ordez- katuaren identitatea moldatuko zuen.

Ordezkapen harremanaren gaiari buruzko bigarren ildo batek honakoa esa- ten zuen: ados, hori hala da, beti dago ordezkatuarengandik ordezkarirenga- na eta ordezkarirengandik ordezkatuarengana doan prozesu bikoitz bat,

1 2012ko azaroaren 15ean Ernesto Laclauk Santiagoko Andres Bello Unibertsitate Nazionalan emandako hitzaldia (2013ko apirilean www.izquierdas.cl aldizkaria- ren 15. zenbakian argitaratua).

baina gizarte bat demokratikoa izateko ezinbesteko baldintza da lehen mugimendu lerroa –hau da, ordezkatuarengandik ordezkariarengana doanabestearen gainetik nagusitzea. Zuzena da ondorio hori? Nire ustez, ez da zuzena, sarritan ordezkariak ordezkatuaren gainean daukan hegemonia masen mobilizazioaren eta ekintza demokratikoaren mobilizazioaren baldintza bat delako. Ordezkatututunaren kontrako jarrerak auresuposatzen du ordezkatuaren borondatea interesen inguruan erabat eratuta dagoela beti. Hala balitz, funtsean ordezkapen prozesua kanpo prozesu bat izango litzateke, baina ez da hala gertatzen, kasu askotan ordezkatuaren borondatea ez dagoelako egituratuta eta ordezkapen prozesuaren barnean soilik eratu ahal delako.

Adibide historiko bat jarriko dut. XIX. mendearen hasieran, Peru iparraldeko azukre etxaldeen monopolizazio prozesu azkar bati ekin zioten. Haien jardunak etxalde txikien lehia suntsitu zuen, zirkulazio zirkuituen disfunczio orokor bat sortuz eta komunitate indigenei kalte handia eginez. Hau da, politikoki eta psikologikoki, jende askoren sustraiak egurats zabalean geratu ziren. Kaltetutako ekoizle haien interesak ez zeuden definituta, eta, hain zuzen ere, APRAKo² buruzagi populisten lana borondate hori eratzten laguntzea izan zen. APRAREN jarduera eremuan gizartearen barneko harremanak ahulduta zeuden, hau da, gizarte zibilaren arloko instituzio sozialek ez zuten funtzionatzen. Horren aurrean, APRAKo buruzagi politikoen zeregin nagusia bizitza soziala maila guztietan antolatzea izan zen, futbol taldeetatik hasi eta herri liburutegietaraino, ordezkariari ordezkatuaren gaineko hegemonia nabaria emanez, baina horixe izan zen ordezkatuak bizitza politikorako jauzia eman ahal izateko eta arlo publikoa zabaltu ahal izateko baldintza. Hau da, kasu horretan, ordezkariaren unea izan zen prozesuko une nagusia. Beraz, ordezkapenari dagokionez aipatu berri ditudan bi harreman motak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu zein den ordezkatuaren egoera, ordezkatu nola eratzten den eta nola ordezkatuaren eratze hori bitartekaritza politikoaren bidez egiten den.

2 Alianza Popular Revolucionaria Americana. Victor Raul Haya de la Torre sortu zuen, inperialismoaren kontrako mugimendu sozial eta politikoen sare gisa eta Fronte Bakar latinoamerikar edo indoamerikar gisa. APRAREN 5 puntuak honako hauek izan ziren: inperialismoaren kontrako ekintza; Latinoamerikaren batasun politikoa; lurren eta industrien nazionalizazioa; Panamako kanalaren internazionalizazioa; munduko herri eta klase zapaldu guztiekiko elkartasuna. 1930ean Peruko APRA sortu zen. Haren asmoa Latinoamerika osoko nazioarteko mugimendu politikoa izatea zen, baina azkenean Peruko alderdi politiko bat izan zen.

Filosofia politikoaren eremura itzuliz, aise ikusiko dugu ordezkapenaren arazoa unibertsaltasunaren arazoarekin nahasten dela, hau da, nola unibertsalizatzen den sektore zehatz baten borondatea. Hegelentzat, esaterako, ordezkari bakarra *locus*-a (lekua) da, unibertsaltasunaren zentzuan. Haren ikuspegitik, gizarte zibila –edo interes pribatuen mundua– ez zen gai epe luzeko borondate kolektibo bat proposatzeko eta, beraz, burokrazia zen klase unibertsala –komunitatea osotasun gisa ordezkatzan zuten klasea–, burokraziazat Estatuaren aparatu guztiak hartuz.

Geroago, Marxek interpretazio hori kritikatu zuen, esanez ez dela egia eremu publikoa (burokratiko-estatala) unibertsaltasunaren eremua denik. Alderantziz, Estatu klase dominatzailearen tresna bat zen. Hala ere, ez bada klase unibertsal bat eratzen ez gizarte zibilaren mailan ez Estatuaren mailan, nola gauzatu ahal da komunitatearen unibertsaltasuna? Marxen erantzuna hauxe izan zen: unibertsaltasuna ordezkatzan duen klase bat egon daiteke gizarte zibilaren barnean, baina klase hori ez da burokrazia –Hegel esaten zuen bezala–, baizik eta proletarioak. Izan ere, defendatu beharreko interes partikularrik ez zutenez, beren burua askatzearekin batera proletarioek gizarte osoa askatuko zuten (*locus* gisa). Klase unibertsalaren nozioa Hegelek planteatzen zuen berdina da, baina borondate orokor hori edo unibertsaltasun hori eratzeko lekua Estatuaren eremutik gizarte zibilaren eremura pasatu da, klase unibertsalak ordezkatzeko eta adiskideturako gizarte baten testuinguruan, komunitate osoaren diskurtsoa artikulatuz.

Zentzu horretan, Marxen ikuspegia Estatuaren kontrakoa zen. Komunistamozko bidean, Estatu apurka-apurka aienatuko zen, erabat desagertu arte. Izan ere, borondate kolektibo adiskidetu bat dagoen unetik, Estatu ez da beharrezkoa: ez da beharrezkoa komunitatetik bereizitako Estatu aparatua egotea. Geroago, Gramscik nabarmen aldatu zuen Marxen ikuspegi hori.

Nolabait, Gramsci erdibidean dago Marx eta Hegelen artean. Marxi dago-kionez, onartu egiten du unibertsaltasunaren unea gizarte zibiletik pasatzen dela; Hegeli dagokionez, ordea, onartu egiten du helburua ez dela Estatu desagerraraztea, baizik eta Estatu integral bat eratzea. Gramsciren arabera, Estatu integrala fabriketan hasten da eta gero hainbat aparatu eta erakundetan unibertsalizatzen da. Nolabait, horrekin esaten duena da politikoa inoiz iraungiko ez den une bat dela, komunitateak etiko politikoaren eremuan –haren hitzak erabiltzearen– eratzan baitu bere identitatea.

Hiru bertso horien artean, ulertu egin behar den prozesu historiko oso bat dago. Marxen arabera, gizartea era progresiboan homogeneousatzen joango zen, eta XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako nazioarteko marxismoak ontzat eman zuen hori, tesi soziologiko gisa. Logika horren arabera, kapitalismoaren garaian egitura soziala gero eta gehiago sinplifikatuko zen: kapitalismoaren arrazionaltasunak berak nekazarien eta erdiko klaseen desagerpena ekarriko zuen eta, beraz, historiako azken gatazka masa proletario homogeneo baten eta burgesia kapitalistaren arteko borroka izango zen, Estatuak burgesia kapitalista behar baitzuen bere dominazioa finkatzeko.

Hala ere, historiak ez zuen jo marxismoak aurreikusitako norabidetik. Gizartea ez zen gero eta homogeneoagoa bilakatu; alderantziz, gure gizartea gero eta heterogeneoagoa da. Labur azalduta, honako hauek izan ziren heterogeneotasuna gogoeta sozialistaren eremuan sartzea ekarri zuen prozesuaren etapak.

Lehenik, proletarizazio gero eta handiagoaren tesia aurkitzen dugu –II. Internazionalaren marxismoan, Kautskyren ildotik–. Kautskyren arabera, iraultza gertakari ia naturala izango zen eta, horrenbestez, ez zen beharrezkoa hura politikoki prestatzea. Kautskyren esaldirik gogoenetako bat honako hau zen: *“guk ez dugu iraultza egin behar, gu iraultzaz aprobetxatu behar gara”*. Bavariako buruzagi batekin izandako eztabaida batean, Kautskyk esan zuen sozialisten zeregina ez zela zapalduetako guztiak defendatzea, baizik eta industriako langileak soilik defendatzea, etorkizun historikoaren eramaileak zirelako. Eskema hori Errusiako Iraultzaren aurreko urteetan hasi zen pitzatzen. Urte haietan esaten hasi zen anomalia bat zegoela kapitalismoaren lege orokorretan, marxismoak pentsatu zuen bezalaxe.

Tesi marxista klasikoa, eta batez ere II. Internazionalaren garaian mantentutako tesia, honako hau izan zen: Frantziako Iraultza Handiaren eredu era mekaniko samarrean errepikatuko zen Europako beste gizarte guztietan eta, beraz, Europako gizarte atzeratuen eginbeharra aristokrazia feudala eraistea zen, garai historiko oso bat iraungo zuen sistema liberal kapitalista bati bidea emateko. Sozialismoa prozesu horren bukaeran soilik sartuko zen agendan. Horrelako ikuspegiak berehala hasi ziren muga batzuk aurkitzen.

Errusiako Sozialdemokraziaren lehen Manifestuak honakoa zioen bere lehen lerroetan: Europako mendebaldetik ekialderantz mugitzen garen

neurrian, burgesia gero eta ahulagoa da eta gero eta ezgaitasun handiagoa erakusten du bere zeregin historikoak betetzeko. Beraz, demokratizazio lanak ez dira desagertzen, baina haien eragile nagusia ez da burgesia kapitalista izango. Beste era batera esanda: iraultza gertatuko zen eta demokratikoa izaten jarraituko zuen, baina demokrazia horren eragile historikoa ez zen burgesia izango, baizik eta proletarioak, nekazariekin aliaturik. Bertsio leninista zen hori. Horren oinarrian Errusiako berezitasun bat zegoela pentsatu zen, Errusia berandu gehitu baitzitzaion modernizazio kapitalistari: kapitalismoa atzerriko inbertsioen bidez garatu zen Errusian eta, beraz, ez zegoen burgesia autoktono indartsurik.

Horren aurrean, bi galdera egin behar dizkiogu gure buruari. Lehenik: klase bat zeregin baten klase naturala ez izateak eta haren lekua beste batek hartzeak ez du aldatzen zereginen izaera bera? Eta bigarrenik: horrek ez du aldatzen zeregin hori betetzen duten eragileen izaera ere? Leninismoarentzat hori ez zen inola ere onargarria. Leninismoarentzat, kontua batera jotzea eta bananduta joatea zen, eta ikuspegi klasista purua ez zen inola ere zalan-tzan jarri: historiako gorabehera horiek guztiak zirela eta, Errusiako prozesua *salbuespen*tzat hartu zen (horixe zen garai hartan erabiltzen zen hitza) eta, nolana ere, gutxi iraungo zuen, zeren eta Errusiako iraultza Europako iraultzarekin kateatuko zen –batez ere Alemaniakoarekin– eta iraultza hori askoz ere garrantzitsuagoa eta esanguratsuagoa izango zen.

Geroago, 20ko urteetan, ikuspegi hori aldatzen hasi zen. Ordurako, Errusiako *salbuespena* ez zen hain ohiz kanpokotzat jotzen, Europatik edo Errusiatik kanpo gerta zitezkeen mugimendu iraultzaile gehienek etapak konbinatzeko molde heterodoxoak zituztelako; eta errusiarrak izan ziren molde horiek aurkitzen eta esperimentatzen lehenak. “Garapen desberdin eta konbinatua” deitu zitzaionaren fenomenoak ziren.

30eko hamarkadaren erdialdean, Trotskik honako ondorio hau proposatu zuen: garapen desberdin eta konbinatua garai hartako borroka sozial guztien eremu historikoa zen. Puntu honetara iritsita, galdera bat dator burura: iraultza guztiak etapen konbinazio heterodoxo batean oinarritzen badira, zer da garapen normala? Une jakin batetik aurrera ezinezkoa da kapitalismoaren baitako etapa segidaren ideia ortodoxoa (klase segidaren ideia) aldeztu jarraitzea eta, beraz, heterogeneotasun soziala hainbat kanaletatik sartzen hasten da.

Gramsci izan zen arrazoibide horretatik ondoriorik zabalenak atera zituen. Gramscik esaten zuen eragile sozialak ez direla klaseak –dagoeneko ikusi dugun adiera klasikoan–, baizik eta *borondate kolektiboak*. Borondate kolektiboak mugimendu heterogeneo asko bateratzearen ondorioz sortzen dira, kategorizazio sozialistan sartzen diren kontzeptu berri batzuk agerraraziz: hegemoniaren nozioa, lehenik; posizio gerraren nozioa; bloke historikoaren nozioa... Nozio horien guztien eraginez, historiaren erdigunea eremu ekonomikotik eremu politikora aldatzen hasi zen. Azken batean, eremu politikoaren nagusitasuna da Estatu baten gidaritzaren birbalorizazio horren atzean dagoena.

Baina, aldi berean, beste fenomeno batzuk agertzen hasi ziren. Txinan, Mao Zedong herriaren barneko kontraesanez hitz egiten hasi zen. Horrela, herria –marxismo klasikoarentzat anatema hutsa zatekeen kategoria bat– berriro sartu zen teorizazio politikoaren eremuan. Azkenik, Fronte Popularren garai osoa daukagu. Garai hartan ulertzen hasi zen beharrezkoa zela marxismo klasikoak planteatu zuenaz bestelako indar artikulazio bati ekitea.

Aro globalizatu batean –eta gu muturreko puntu batera heldu gara, non borroken pluralizazio hori ekintza politikoaren oinarria den–, kontua dagoeneko ez da klasearen interesak zorrotz ordezkatea, baizik eta borondate kolektibo berri baten interesak politikoki eratzea. Hau da, egungo egoeran, ordezkatuaren borondatea ordezkapen prozesuen bidez eratzen da. Esan liteke mugimendu horretan ordezkapena besterik ez dagoela, borondate kolektibo guztiak ordezkapen prozesuen bidez eratzen direlako.

Gaur egungo teorizazioan, ustez dikotomikoak diren hainbat kritika jaso ditu ordezkapenaren nozioak. Har ditzagun adibide gisa Frantziako bi filosofo: Jacques Derrida eta Gilles Deleuze. Itxuraz, bataren eta bestearen baieztapenak elkarren kontrakoak dira, baina, nire ustez, gauza berbera esaten ari dira biak ala biak. Derridak honakoa dio: jatorrizko ordezkapenik ez dagoenez, dagoen bakarra ordezkapen prozesuak dira. Deleuzek, aldiz, honakoa dio: ordezkapenak aurkeztea auresuposatzen du, baina, jatorrizko aurkezte hori sekula ematen ez denez, ordezkapenak ere ez dauka zentzurik. Itxuraz baieztapen kontrajarriak egiten dituzten arren, funtsean gauza bera proposatzen dute biek: jatorrizko aurkezte baten eta ordezkapen prozesuen arteko lotura haustea. Gauzak horrela ulertuta, eraikuntza politikoaren eta, batez ere, mugimendu sozialen arazo nagusia honakoa izango da: nola mugitu ordezkapenaren eremuan, kontuan izanik ordezkapen ho-

rrek ez duela mugarik izango, ordezkapen prozesutik kanpo sortzen den borronte kolektiborik ez dagoelako. Horri dagokionez, eta arlo metafisikora pasatuko bagina, gaur egungo pentsamoldean badaude saiakera batzuk sektore batzuen zentraltasunaren eta ordezkapen prozesuek auresuposatzen duten unibertsaltasunaren arteko dualtasun horretaz hausnartzeko.

Hiru soilik aipatuko ditut, labur-labur. Lehena Heideggerren *Urgrund*³ nozioa da. Heideggerrek honakoa dio: azken fundamenturik ez dago, fundamentuaren lekuan dagoena leize bat da eta, beraz, leizea bera da fundamentua. Baina leizeak ez dauka ordezkapen forma zuzenik, eta, beraz, translazio erretoriko moduko bat egin behar da hura ordezkatzeko, hau da, leizea ordezkatu behar izateak sortzen du ordezkapen prozesuaren unibertsalizazioa. Izan ere, leizea ez da berez ordezkagarria, eta desberdina den zerbaiten bidez ordezkatu behar da.

Partikularitasunaren eta unibertsaltasunaren arteko harreman horren bigarren adibide bat *Petit a* objektua da, Lacanen psikoanalisian. Gogoeta horren abiapuntua gauza *freudianoa* da, hau da, amaren gorputza eta haurren gorputza ehun bakar batean biltzen ei dituen pitzadurarik gabeko mundua. Jakina, *gauza freudiano* hori –pitzadurarik gabeko mundu hori– atzera begirako ilusio bat da, baina, Lacanek dioenez, atzera begirako ilusio horrek ez du sortzen funtsean berria den ezer, egiten duena da gauzaren beharra objektu partzialen edo *Petit a* objektuen gainean prozesatzea. Heideggerren *Urgrund* leizearen kasuan bezala, hemen ere ez dago zerbaiten fundamentua den aurkezpenik. Horren ordeztu, termino batetik besterako translazio prozesu bat ematen da eta, prozesu horren ondorioz, talde edo elementu batzuek beren gain hartzen dute fundamentu ezinezko horren ordezkapena.

Hirugarren nozioa Gramsciren klase hegemonikoa da. Gramscik klase korporatiboa eta klase hegemonikoa bereizten zituen: klase korporatiboak interes sektorialak ordezkatzeko hura gainditzen duen osotasun baten barnean; klase hegemonikoak, aldiz, talde baten interesak –edo talde baten diskurtsoa– gizarteko diskurtso hegemonikoa izatea lortzen du, zirkuntantzia zehatz batzuetan.

3 R. J. Waltonen arabera, Daseinek ez badu existentzia entearen fundamentu gisa agertu ahal izateko moduan proiektatzen, existentzia leize gisa gertatzen da, eta ez erabateko fundamentu gisa. Beste hitz batzuetan esanda, fundamentu hasiberri edo “profundamentu” (Urgrund) gisa gertatzen da, edo “fundamentuaren alde batera gelditzen da”. Beraz, leizean, fundamentuak “fundatu egiten du, baina ez du berez fundatzen”.

Eremu espezifikoki politikora pasatzen bagara, egitura logiko bera aurkitzen dugu hiru kasu horietan. Lehenik, azken fundamentu baten ideia baztertu egiten da: fundamentu erlatiboak soilik aurkitzen ditugu eta, fundamentu horietatik abiatuta, lehenagoko ezein oinarritara ez daramaten artikulazioak eraikitzen dira. Marxismoaren historia ikuspegi horretatik aztertzen badugu (Marxengandik Gramscirenganaino gutxienez) trantsizio berbera aurkituko dugu: marxismo klasikoarentzat, klase interesak ordezkapen prozesuen aurretik daude; Gramscirentzat, ordea, interes bat ordezkapenaren bidez soilik eratu ahal da.

Gogoan daukat nola orain dela urte batzuk jendeak hau galdetzen zidan Txilen: interesen ikuspegitik, zein klasez ari zara? Tira, argudioa termino horietan planteatzea prozesu politikoaren aurretik zeuden interes batzuk existitzen zirela suposatzea zen, baina errealitatea bestelakoa da: prozesu politikoa da erdi-fundamentu horiek (sekula ez baitira fundamentu absolutuak izaten) eratzen dituen.

Hori esanda, hauxe da galdera: nola pentsatu eragile eta mugimendu sozialen eratze politikoa? Adibide bat jarriko dut. Demagun oso zapaltzailea den erregimen bat daukagula eta egun batean herri bateko langile metalurgikoek greba bat hasten dutela soldaten igoera eskatzeko. Eskaera hori espezifikoa da –soldaten igoera–, baina erregimenaren aurkako mobilizazio gisa ikusten du mundu guztiak –erregimena oso zapaltzailea delako–. Horrela, langileen eskaerak izaera bikoitza hartzen du: batetik, berez dagokion partikularitasuna; bestetik, berriz, gehitzen zaion unibertsaltasuna. Demagun mobilizazio horren ondorioz beste herri batean ikasleek mobilizazioak antolatzen dituztela ikastetxeetako diziplinaren aurka. Bi aldarrikapenak –langileena eta ikasleena– partikularrak eta ezberdinak dira, baina bi kasuetan erregimenaren eta sistemaren aurkako mobilizazio gisa ikusten dira, haien arteko baliokidetasuna sortuz. Azkenik, demagun hirugarren herri batean alderdi politikoen prentsa askatasunaren aldeko kanpaina bat abiatzen dutela. Aztertzen ari garen testuinguruan, hirugarren ekintza hori baliokidetasun katearen beste maila bat izan liteke. Horrela, baliokidetasun harreman bat sortzen da apurka-apurka, eta azkenean horrek eratzen du mugimendu soziala, partikularitasunetik abiatuta baliokidetasunen artikulaziora eta unibertsaltasunera iritsiz.

Ikus dezagun orain kasu historiko bat. Hasieran, Polonian, Solidarnosk sindikatuaren aldarrikapenak Gdansk hiriko Lenin ontziolako langile tal-

de mugatu baten aldarrikapenak izan ziren, baina, mobilizazio eta aldarrikapen haiek beste eskaera sozial eta politiko batzuk ere zapuztuta zeuden gizarte batean gertatu zirenez, Solidarnosken sinboloek beste hedapen bat hartu zuten. Mugimendu oso baten sinboloak izatera pasatu ziren, hau da, unibertsalizatu egin ziren.

Unibertsaltasunak bi ezaugarri ditu. Lehenik, hegemonikoa da, hau da, sektore partikular batek bere aldarrikapenak komunitate oso baten aldarrikapenak izatea lortzen duenean sortzen da hegemonia. Unibertsaltasunaren eta partikularitasunaren arteko harreman hori da prozesu hegemonikoaren muina. Hala ere, prozesu horren lorpenak inoiz ez dira izan eta inoiz ez dira izango erabatekoak eta behin betikoak, eta horrek unibertsaltasunaren bigarren ezaugarri garrantzitsua: funtsean, adierazle hegemonikoa adierazle hutsa ere bada. Zergatik?

Hainbat aldarrikapen heterogeneo batu behar badituz haien inguruan adierazle hegemoniko batzuk edo eremu herritar bat eratzeko, beren jatorrizko partikularitatekin duten lotura higatu beharko dut nahitaez. Hau da, onarpen publikoa lortzen duen unetik, aldarrikapenaren dimentsio unibertsal horretan eraikitzen den harremanak jatorrizko aldarrikapen partikularrekiko lotura higatzeari ekingo dio.

Gertaeren bilakaeran, noizbait helduko gara erreferentzia hegemonikoa hausten hasiko den egoera batera (gizartea bera hautsiz). Gizarteak berriz azaleratuko ditu bere zatiketak, eta eremu herritarra berriz eratu beharko da, beste era batera. Labur esanda, kontua ez da azken fundamentu bat dagoela, baizik eta adierazle hegemonikoen (adierazle hutsen) inguruan nolabaiteko fundamentu erlatibo bat eratzen doala, aldarrikapen partikular horien artikulazio prozesuak beste iraungo duena. Hori ez da ezkerren eremuan soilik gertatzen. Eskuinaren eremuan ere gertatzen da. Gogoan izan Txileko kamioilarien mobilizazioak Allende erori aurreko hilabeteean. Han, kamioilarien aldarrikapenak eraldatu egin ziren, fronte erreakzionario bat artikulatuz. Edo gogoan izan Argentinako landa eremuko irakasleen aldarrikapenak, 2008an: jende asko haien aldarrikapenen alde agertu zen, baina ez landa eremuko aldarrikapenak axola zietelako, baizik eta kirchnerismoaren aurkako fronte oso bat eratzeko baliagarriak iruditzen zitzaizkielako. Esan nahi dudana da artikulazio bikoitz horren bidez beti ematen dela elementu baten gain-inbestidura prozesu bat, eta adierazle hutsak horrexegatik dira guztiz zentralak politikaren eraketan. Sinbolo

populistak zehaztugabeak eta lausoak direla argudiatu ohi da, baina, hain zuzen ere, horixe da haien eraginkortasun politikoaren sorburua. Aldarrikapen zehatzak haien arteko baliokidetasunaren bidez artikulatuko ez lirakeen gizarte gain-instituzionalizatu bat edukiko bagenu, inoiz ez litzateke eratuko eremu politiko zabalago eta zehatzago bat. Instituzionalismoa da populismoari kontrajartzen zaiona. Instituzionalismoaren eraginez –eta mesedez, ez nahasi instituzionalismoa eta instituzioak, hauek beti baitira beharrezkoak– instituzioak fetitxe bihurtzen dira, guztiz ukiezinak dira ikuspuntu politikotik. Populismoak, ordea, hausturaren edo apurketaren unea ordezkatzeko du, eta bi mutur horien artean –populismoa eta instituzionalismoa– askotariko egoerak daude. Jakina, bi muturrak nola edo hala konbinatu beharko diren continuum bat dago beti. Argentinako trantsizio demokratikoaren kasuan, adibidez, iragan diktatorialarekiko apurketa unea nagusitu zen. Txilen, ordea, prozesua askoz mugatuagoa izan zen; adiskidetze nazionalaz hitz egiten zen etengabe, eta, tira, torturatzailleekin adiskidetzea ez da imajina daitekeen jokabiderik txukunena. Latinoamerikako gobernu nazional-herritarretan, apurketa unea nagusitzen ari da orain, baina apurketa une horrek dimentsio instituzionalarekiko haustura ekarri behar du nahitaez.

Hemen badago azpimarratu beharreko elementu bat: antagonismo sozialaren nozioa. Antagonismoak identitateak etetea dakar. Eta zer esan nahi du identitatea eteteak? Bada, indar antagoniko baten presentziak ni neu izatea eragozten didala, hau da, ez dagoela bi indar antagonisten arteko jarraitutasun objektibo bat, biak apurketa une baten menpe daudelako.

Galdera da: nola ematen da eraikuntza prozesua baliokidetasunez metatzen diren apurketa historikoen segida batean? Gizarte kapitalista mota guztietako apurketa puntuak eta antagonismoak sortzen ari da: gizarte bazterketa, eremu ekonomiko ezberdinen arteko borroka, aro postfordistako desinstituzionalizazioa... Horren ondorioz, heterogeneotasunaren unea deitu dugun hori maila guztietan nagusitzen hasten da eta, beraz, artikulazio politikoaren unea gero eta grabitatzailleagoa da. Hala ere, ikusi behar duguna da are indarrean dauden ekoizpen harremanak ere –jatorrizko gogoeta sozialista osoaren giltzarria– heterogeneotasunaren logika berberaren menpe daudela.

Marxen arabera, kategoria ekonomikoek kontraesanak sortuko zituzten beren garapen objektiboaren bidez, eta azkenean sistema eroraraziko zuten.

Nola planteatzen zen prozesu hori? Prozesua egiaztatu ahal izateko, aski zen eragile historikoak kategoria logiko-ekonomiko bihurtzea. Horrela, honakoa esaten zen: sistema kapitalistaren logika ulertzeko, hezur-haragizko kapitalistak ahaztu behar ditugu; kapitalista lan indarra erosten duena da, eta langilea –bera ere kategoria ekonomiko bihurturik– lan indarra saltzen duena. Horrenbestez, oinarritzko harreman kapitalistan nagusitzen zena eragile sozialak kategoria ekonomiko bihurtze hori bazen, aukera bakarra zegoen sistemak kontraesan gaindiezinak eduki zitzaizkan: bere barne logikatik abiatuta, sistema garatuko zuten eta azkenean auzitan jarriko zuten aktore sozial guztiak sortzen joatea.

Nolanahi ere, funtsezko gabezia bat aurkitzen dugu planteamendu horretan. Lehenik, ez da egia lan indarraren eroslearen eta saltzailearen arteko harremana –logika ekonomikoaren terminoetan soilik emana– harreman antagonikoa denik. Esan izan da (eta esaten da) kapitalistak langilearen plusbalioa xurgatzen duela eta langileak, bere aldetik, aurka egiten diola horri, eta hortxe eratzen dela gizarte kapitalistako harreman antagoniko nagusia. Baina hori ez da beti hala gertatzen. Langileak bere diru sarrerak maila jakin baten azpitik daudenean eta duintasunez bizitzea ezinezkoa zaionean soilik egingo dio aurre plusbalioaren erauzketari (ezinezkoa baitzaio seme-alabak eskolara bidaltzea edo kontsumo ondasun jakin batzuk eskuratzea, besteak beste). Eta horrek langileen errealitatea langileen bizitza sozialean berriz txertatzera eramaten gaitu. Beste era batera esanda, antagonismoa ez da ematen ekoizpen harreman kapitalisten barnean, baizik eta harreman horien eta sektore antagonizatuak haietatik kanpo eratuta dauden formaren artean. Hau da, guk gizarte bazterketan, sektore ekonomiko ezberdinen arteko borrokan, monopolioen aurkako borrokan edo borroka ekologikoan ikusten dugun heterogeneotasun unea ekoizpen harreman kapitalistaren barnean ere ematen da. Horregatik, ekoizpen harreman kapitalista ez da borroka antikapitalistaren eremu pribilegiatu bat, haren osagai bat baizik. Garrantzitsua da, inolako zalantzarik gabe, baina ez da eremu pribilegiatu bat, eta are gutxiago eksklusiboa. Beste kasu askotan, biztanleriaren sektore marginalen edo langile ez direnen mobilizazioa langileen ekintza baino eraginkorragoa izan daiteke antagonismoak eratzeari dagokionez.

Hori guztia kontuan izanda, bi ondorio nagusi ateratzen ditut. Lehena: erai-kuntza politikoa aldarrikapen heterogeneoen arteko baliokidetasun harremanen bidez egiten bada, artikulazioaren unea funtsezkoa izango da. Hau

da, historikoki, formazio hegemonikoen pluraltasun baten segida izango dugu, baina sekula ez gara iritsiko Estatua desagertuko den gizarte adiskidetu batera. Bigarren ondorioa: identitate sozialak guztiz eratuta ez dauden une hori ere erauzi ezina da, hau da, identitate sozialak nolabait bete daitezke artikulazio hegemonikoen bitartez, baina ez dago haietatik kanpo ematen den identitate sozial osorik.



Floren Aoiz Monreal

(Tafalla, 1966)

Euskaldunberria, Jarraiko kidea, Nafar Parlamentaria eta HBren bozeramalea izana. 1997an atxilotu eta kartzelaratu zuten, beste mahaikideekin batera, 1999. urtean aske gelditu zelarik. Analista politiko gisa eta ikerketa historikoetan jardun du kartzelatik atera ondotik. Hainbat komunikidetan ibili da, 2012tik zutabeak idazten dituelarik Ga-

ran. Idazlea da, Nafarroako ibilbide historikoaz eta egoera politikoaz hainbat liburu argitaratu ditu (*La vieja herida, el jarrón roto, Más allá de 1512...*). 2014an Sorturen Iratzar Fundazioan hasi zen, zuzendari gisa, eta bertan dago lanean ordudanik. Berriki García Lineraren testuen antologiaren hitzaurrea idatzi du. Sorturen Kontseilu Nazionalaren kidea da 2017ko urtarriletik.

Laclau eta Euskal Herria, ortodoxia dogmatiko eta ihesaldi-etsipenetatik haratago

Floren AOIZ MONREAL

LACLAUREN IDEIA NAGUSIAK

Pentsalari honen ideia eta ekarpen teorikoen azterketa zorrotza egitea, interesgarria izanik ere, idazki honen asmoetatik at dago. Guk sarreratxo bat eskeini nahi dugu, bizi garen garai politikoan Euskal Herrian inspiragarrienak izan daitezkeen ekarpenak lehenetsiz, Laclaren pentsamendua sintetizatuz, beraz.

Esanguratsuki, Laclauk definitzen zuen honela bere burua: “*teorialari politiko bat naiz (...), eta logika hegemonikoek espazio politikoen egituraketan jokatzen duten rola da nire aztergai nagusia*¹”.

Ongi laburtzen su Arditi egileak Laclaren ekarpena, *Hegemonia y estrategia socialista* liburua kari egindako irakurketa oso baliogarria iruditu zaigularik:

*Laclauk eta Mouffek honako helburu honekin proposatzen dute esentzialismoarekin haustea: politikaren forma hegemonikoa – Gramscik pentsamendu politiko aurrerakoari egindako ekarpen nagusia – historiaren ustezko legeen eta historia horrek politika emantzipatzailearen subjektu gisa A PRIORI izendatutako langile klasearen mugetatik askatzea*².

Era berezian, artikulazioaren inguruko bi aipamen hauek azpimarratu nahi ditugu:

Zapalkuntza, matxinada eta aldaketa azaltzeko irizpide gisa kontraesan orokor bat erabili beharrean, baliokidetasunen kate batean artikulatzen joaten diren borroka diskretuez hitz egiten dute. Baliokidetasun kate horrek borroka bakoitzaren partikularitasuna ezeztatzen du edo, zehazkiago esanda, beste baliokidetasun harre-

¹ Laclau, Ernesto; *Los fundamentos retóricos de la sociedad*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2014, 99. orrialdea.

² Benjamín Arditi, “Post-hegemonía: la política fuera del paradigma postmarxista habitual”, Cairo, Heriberto; Franzé, Javier; *Política y cultura*, Madrid, Biblioteca Nueva, 2010, 159-193. orrialdeak.

man batzuk ezartzen ditu, borroka bakoitzak bi gauza adierazten dituelarik: bere partikularitasuna eta esanahi osagarri bat. Osagarri hori funtsezkoa da; formalki ezberdinak diren borrokek eta eskaerak subjektibitate berri batean batzen joateko eta botere konstelazio jakin bati desafio egiteko erabiltzen da.

Proiektu hegemoniko ororen arrakastaren giltza hauxe da: zenbateraino den eraginkorra baliokidetasun kate bat sortzeko dagoeneko existitzen diren, sortu egin behar diren edo, zehaztasun handiagoz esateko, baliokidetasun kate batean artikulatu ahala aldatzen joango diren eskaeren, subjektu posizioen eta indarren artean.

Asko dira, egia esan, guretako inspiragarriak izan daitezkeen ideia, kontzeptualizazio eta proposamenak, besteak beste honako hauek: klase esentzialismo eta determinismo ekonomikoen kritika; artikulazio hegemonikoen garrantzia; nortasun politikoen eraikuntzaren eta sedimentazioaren irakurketa; psikoanaliaren ekarpenak (era berezian afektuen eragina); hizkuntzaren eragina; kontingentziaren nagusitasuna, antagonismoen aldarrikapena, politika eraldaketa gisa hartuta; etika militantea, iraultza demokratikoa eta demokraziaren erradikalizazioaren zerumuga; unibertsala eta partikularraren arteko harremana eta, azkenik, populismoaren teorizazioa, instituzionalismoaz kontrajarria.

Hauek ez dira garatu dituen gai guziak, eta zerrenda den heinean, hagitx inportantea den ikuspegi integrala faltan dago, baina lagungarria izan daitekeela uste dugu. Zerrendatik, alta, batzuk aukeratuko ditugu, Laclaren pentsamendura hurbiltzeko.

Hasiko gara Laclauk bere *La razón populista* liburuan azpimarratzen dituen ideia batzuk azalduz (“gure ikuspuntu teorikorako giltzarri diren hiru kategoria multzo”): 1) diskurtsoa; 2), adierazle hutsak eta hegemonia; eta 3) erretorika. (la razón populista, 92-97).

1) Diskurtsoa: Laclaudakako *diskurtsoa* ez da *mezua*, esanahia askoz ere zabalagoa delarik:

Diskurtsoa objektibotasuna eratzen den oinarrizko eremua da. Behin baino gehiagotan azaldu dugun bezala, guretzat diskurtsoa ez da nagusiki mintzamenaren eta idazmenaren arlora mugatzen den zerbait, baizik eta elementu multzo bat zeinean harremanek rol eratzaille bat jokatzeko duten³.

Jada *Hegemonia y estrategia socialista* liburuan aipatzen zuten (berak eta Mouffek batera, jakina) *diskurtsoa* termino materialetan ulertzen zutela:

(...) ARTIKULAZIOA esango diegu elementuen arteko harreman berezi bat ezartzen duen praktika orori, halako moldez non elementuen identitateak aldatu egiten den praktika horren ondorioz. Praktika artikulatzailetik sortzen den osotasun egituratuari DISKURTSOA esango diegu. MOMENTUAK esango diegu diskurtso baten barnean artikulatuta agertzen diren posizio diferentzialei. Diskurtsiboki artikulatzen ez den ezberdintasun orori, aldiz, elementua esango diegu⁴.

(...) baztertu egin behar dugun ideia bat: diskurtsoaren izaera mentala. Horren aurrean, egitura diskurtsibo ororen izaera materiala aldarrikatuko dugu⁵.

Diskurtsoa diskurtsibitatearen eremua menperatzeko saiakera gisa eratzen da, ezberdintasunen fluxua geldiarazteko eta erdigune bat eratzeko saio gisa. Finkapen partzial horretako puntu diskurtsibo pribilegiatuei PUNTU NODALAK esango diegu⁶.

Franzek laguntzen gaitu diskurtsoaren alderdi hau ulertzen:

Diskurtso bat ez da diskurtsotik kanpo eratuta dagoen mugimendu erreala baten adierazpen diskurtsiboa. Aitzitik, diskurtso hori indar

3 Laclau, Ernesto, *La razón populista*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2011, 52 orrialdea.

4 Laclau, Ernesto. Mouffe, Chantal; *Hegemonía y estrategia socialista, Hacia una radicalización de la democracia*, Siglo XXI, Madrid, 1987, 176-177 orrialdeak.

5 Laclau, Ernesto. Mouffe, Chantal; *Hegemonía y estrategia socialista*..., 183 orrialdea.

6 Laclau, Ernesto. Mouffe, Chantal; *Hegemonía y estrategia socialista*..., 191 orrialdea.

erreal bat da eta halakotzat jokutzen du, harreman sozialak moldekatzen eta eratzten laguntzen duelarik. Horrela ulertuta –zentzu zabalean eta ez zentzu hertsian–, diskurtsua <<errealitate soziala>> eratzten den eremua da⁷.

2) Adierazle hutsak eta hegemonia:

Hala dio Laclauk:

(...) gerta daiteke ezberdintasun bat, partikularra izateari utzi gabe, osotasun neurtezin baten adierazpen bilakatzea. Hala, ezberdintasun horren gorputzak bi atal ditu: lehendik dakarren partikularitasuna eta bere baitan daraman esanahi unibertsalagoa. Partikularitasun batek esanahi unibertsal neurtezin bat bere baitan jasotzeko operazio horri hegemonia esaten diogu. Eta –ikusi dugun bezala– osotasun hori ezinezko objektu bat denez, identitate hegemonikoa adierazle hutsaren eremuko zerbait izatera pasatzen da, bere partikularitasuna osotasun eskuraezin bat barnebiltzen duen gorputza bilakatzen delarik⁸.

Bere teorizazioan, hegemonia berezitasun batek (borroka batek, bestela esanik) lor dezakeen unibertsaltasunaz loturik dago. Eta bide horretan adierazle hutsak funtsezkoak dira:

Hain zuzen ere, eduki partikular bat osotasun komunitario absentearen adierazle bihurtzen duen harreman horri estan diogu HARREMAN HEGEMONIKOA⁹.

(...) hala, operazio hegemonikoa hauxe litzateke: talde baten partikularitasuna ordena komunitarioari erreferentzia egiten dion adierazle hutsaren hezurmamitze gisa aurkeztea, ordena komunitario hori absentsia edo gauzatu gabeko helburu gisa harturik¹⁰.

7 Franzé, Javier; La primacía de lo político, crítica de la hegemonía como administración, en Tomando en serio la teoría política, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid, 2015, 152. orrialdea.

8 Laclau, Ernesto, La razón populista..., 95. orrialdea.

9 Laclau, Ernesto; Emancipación y diferencia, Ariel, 1996, 82 orrialdea.

10 Laclau, Ernesto; Emancipación y diferencia..., 83. orrialdea.

Beste era batera esanda: “adierazle hutsen funtzioa beren identitate diferentzialari uko egitea da, espazio komunitario baten batasun ekibalentziala adierazteko helburuarekin¹¹”.

Hau hobeki ulertzeko, beste bi kategoria aipatu behar dira, derrigorrez, berdintasuna eta ezberdintasunaren logikak dira. Laclauk berak azaltzen dizkigu:

(...) soziala bi eratara eraiki daiteke: partikularitasuna azpimarratuz –(...) eskaeren partikularismo bat–, beste partikularitasun batzuekiko lotura bakarrak diferentzialak direlarik (...); edo partikularitasunaren klandukazio partzial baten bidez, partikularitasun guztien arteko baliokidetasunak nabarmenduz. Soziala eraikitzeke bigarren era horrek muga antagoniko bat marraztea dakar; lehenak, ordea, ez. Soziala eraikitzeke lehen erari ezberdintasunaren logika deitu diogu, eta bigarrenari, berriz, baliokidetasunaren logika¹².

Baliokidetasunaren logikak lokalizazio diferentzial guztien garrantzia ezabatzeraz jotzen du, joerazko mugimendu bat besterik ez da eta beti aurkitzen du aurrez aurre ezberdintasunaren logika, azken hau berdintasunaren kontrakoa baita funtsean¹³.

Baliokidetasunaren logika espazio politikoaren sinplifikazioaren logika bat da; ezberdintasunaren logika, ordea, espazio politikoaren hedatzearen eta konplexuago bihurtzearen logika bat da¹⁴.

Hegemoniak artikulazio hegemonikoa behar du, beraz, eta artikulazio hau adierazle hutsen arabera eraikitzen da, eskaera batek sistema ordezkatzeko lortzen duelarik, berdintasuna eta ezberdintasunaren logiken arteko nolabaiteko uztarketa erdietsiz. Baina horretarako adierazle horrek bere jatorrizko esanahi galdu (edo aldatu) behar du, eta horregatik deitzen dio Laclauk *adierazle hutsa*, bere aurreko esanahia hustu den heinean. Hutsak, honetan, ez du beraz esanahirik gabekotasunik deskribatzen, esanahiaren aldaketa baizik.

Oso inportantea da ulertzea Laclaren teorian adierazle hutsa zein den ez dagoela aurretik ezarrita. Pentsaten ahal da edozein eskaerak har lezakeela

¹¹ Laclau, Ernesto; *Emancipación y diferencia...*, 78. orrialdea.

¹² Laclau, Ernesto; *La razón populista...*, 103-104. orrialdeak

¹³ Laclau, Ernesto; *Emancipación y diferencia...*, 81 orrialdea.

¹⁴ Laclau, Ernesto. Mouffe, Chantal; *Hegemonía y estrategia socialista...*, 223 orrialdea.

paper hori, horretarako ezaugarriak amenez gero eta adierazle hutsa izateko asmoak arrakasta baldin balu, baina, Laclauk argitzen digunez...

Gizarteko posizio guztiak edota borroka guztiak ez dira neurri berean gai beren edukiak aldatzeko, hau da, edukiok adierazle hutsa izatera irits daitekeen puntu nodal bihurtzeko¹⁵.

Oso inportantea da, beraz, Laclauen teorizazioaren arabera, testuinguru eta garai zehatzetan, adierazle hutsa zein izan daitekeen aztertzea.

Zorrotz eta fin sintetizatzen du hegemoniaren baliogarritasuna Santiago Castro-Gomezek:

(...) hegemonia kontzeptua bereziki baliagarria da gaur egungo borroka politikoak ulertzeko. Izan ere, borroka hegemoniko baten bidez deseraiki egin daiteke luzaroan sedimentatutako zentzu komuna, baina, gainera, zentzu tolestura berriak sor daitezke. Azken batean, <<borondate komun>> bat eraiki daiteke gizarte osoari eragiten dioten hainbat gairen inguruan. Horrek esan nahi du borroka hegemonikoa baliabide egokia dela keinu politikorik behinena sortzeko: interesen unibertsalizazioa, alegia¹⁶.

3) Erretorika:

Zera erantzuten zuen Laclauk erretorikaren aipamenaren inguruko galdera baten aitzin:

Erretorika ez da diskurtsoaren apaingarrien multzoa soilik. Nire iritziz, erretorika zentzuaren literaltasuna zalantzan jartzen duen diskurtso mota bat da. Diskurtso bat erretorikoa da literalki esaterik ez zegoen zerbait esaten duenean. (...) erretorika zentzuaren eratze oinarritzkoari dagokio. Ez da eratorritako bigarren zentzu bat soilik. Hala, erretorika populistak politikoa eratzen du, ez da politikoari kanpotik eransten zaion zerbait soilik¹⁷.

¹⁵ Laclau, Ernesto; *Emancipación y diferencia....*, 81 orrialdea.

¹⁶ Castro-Gómez, Santiago; *Revoluciones sin sujeto*, Slavoj Žižek y la crítica del historicismo posmoderno, Akal, 2015, 103. orrialdea.

¹⁷ Zúñiga-Falces, Nieves, *Entrevista a Ernesto Laclau*: <http://rebellion.org/docs/80978.pdf>

Laclaren ustetan, beraz: “*Termino figuratibo batek termino literal bat ordezkatzeko duenean desplazamendu erretorikoa gertatzen da*”¹⁸.

Figuren artean, Laclauk katakresiaren garrantzia azpimarratzen du:

*Erretorika klasikoan, katakresia deitu zioten termino literal batez ordezkatu ezin den termino figuratiboari (esaterako, “aulkiaren hanka”). Argudio hori orokortu egin daiteke baldin eta onartzen badugu termino literalak adieraziko ez lukeen zerbait adierazi beharra dela zentzuaren distorsio ororen jatorria. Horren haritik, katakresia figura partikular bat baino zerbait gehiago da: erretorikaren izendatzaile komuna da. Hortxe lotu ahal dugu argudio hau hegemoniaz eta adierazle hutsez esan dugunarekin: adierazle hutsa ezinezkoa bezain beharrezkoa den objektu bat izendatzeko premiatik sortzen da –esanahiari dagokionez adierazte prozesu ororen aurrebaldintza den zero puntu horretatik alegia– eta, beraz, operazio hegemonikoa katakretikoa izango da ezinbestean. (...) horregatik, herriaren erakuntza politikoa katakretikoa da funtsean*¹⁹.

Ikusten dugunez, Laclaren pentsamenduan erretorika, diskurtsoaz gertatzen denez, mezuetatik haratago doa:

*Harreman hegemoniko batean, ezberdintasun partikular batek bera gainditzen duen osotasun bat ordezkatzeko du. Horrek zentraltasun nabaria ematen dio erretorika klasikoko figura berezi bati: sinekdokeari, alegia (parteak osotasuna adierazten du)*²⁰.

Metafora, metonimia, katakresia eta beste kategoriak aipatzen, beraz, jendarte jarduerak ditu gogoan Laclauk, eta ikuspegi horretatik, hizkuntzaren inguruko teorizazioak politikan baliagarri bilakatu nahi ditu:

Harreman hegemonikoak eratzen dira berezkoak zaizkien elementuak eta dimentsioak lotura kontingenteen bidez artikulatzen direnean. Hala, esaterako, sindikatu batek edo nekazari elkarte batek bere gain har ditzake haren espezifikotasun korporatiboarekin lotura beharrezkorik ez duten zeregin politikoak. Zeregin politiko jakin

18 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 95 orrialdea.

19 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 96 orrialdea.

20 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 97 orrialdea.

batzuk langileen edo nekazarien eginkizun bihurtzen dituzten lotura hegemonikoak albokotasun harremanetan oinarrituako desplazamendu metonimikoak dira (edo, besterik gabe, hala gertatzen da zeregin horiek bere gain har ditzakeen beste indar sozialik ez dagoelako, horrek esan nahi baitu testuinguru horretan ez dagoela inolako harreman analogiko beharrezkorik zereginaren eta eragilearen artean). Ildo horretan, hegemoniaz hitz egin ahal izateko artikulazioaren kontingentziaren aztarnak ezin dira erabat ezabaturik egon²¹.

Izan ere, Laclairekin, *mugimendu metonimikoak* operazio politikoak dira, ez hitzen joku hutsak. Sindikatu batek hainbat erronkari ekiten badio ez da mezuen esparruan soilik gertatzen eta beraz, sindikatu horren diskurtsoaz ari bagara, jarduera orokorra dugu gogoan, non kokatu nahi duen bere burua, norekin eta nola artikulatzen den etabar. Hau ulertu gabe ezinezkoa da Laclairen kontzeptualizazioak gureganatzea, erretorika, diskurtso, adierazle hutsa eta beste kategoria batzuk testuinguru politikoan uztartu behar ditugulako.

Hauek ez dira baliatzen dituen kategoria bakarrak, edonola ere. Laburki bada ere, beste batzuk azaltzen saiatuko gara, kontzeptu eta ideia horiei erreparatzea derrigorrezkoa baita Laclairen teorizazioa ulertu ahal izateko.

Kategoria bat lotu baldin bada gure gonbidatuarekin, *populismoa*rena da. Baina, zer da populismoa Laclairen kontzeptualizazioan?

4) Populismoa.

Argigarria da oso Laclauk *La razón populista* liburuan aitortzen zuena:

Gure helburua ez da izan populismoaren benetako erreferentea aurkitzea, kontrakoa baizik: erakutsi nahi genuen populismoak ez daukala inolako unitate erreferentzialik, ez dagokiolako mugarritu ahal den fenomeno bati, baizik eta logika sozial bati, zeinaren ondorioek askotariko fenomenoak zeharkatzen dituzten. Politikoa eraikitzeko era bat besterik ez da populismoa²².

Ikuspegi horretatik, zein da *politikoa* eraikitzeko era horren berezitasuna? Orain arte auzkeztutako hainbat kategoria aintzat hartu behar ditugu

21 Laclau, Ernesto; *Los fundamentos retóricos de la sociedad...*, 110. orrialdea.

22 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 11 orrialdea.

Laclaren proposamena ulertzeko. Izan ere, populismoa hegemoniaz eta berdintasun eta ezberdintasun logikez lotzen da:

Populismoak beharrezkoa du honakoa: gizartearen banaketa dikotomikoa bi eremutan –bi eremu horietako batek osotasuna dela aldarrikatzen duen parte gisa aurkezten du bere burua–; dikotomia horrek eremu sozialaren banaketa antagonikoa eragitea; eta, eremu herritarra eratzeko aurrebaldintza gisa, identitate global bat eraikitzea eskaera sozial askoren baliokidetasunetik abiatuta²³.

Satanizazioak alde batera utzita, Laclarendako, populismo kategoria hala hartzen ez diren mugimendu eta jarduera askoz ere gehiagori egokitu beharko litzaioke:

Nola edo hala populista ez den interbentzio politikorik ez dago²⁴.

(...) herria eragile sozial kolektibo gisa eraikitzeko, ezinbestekoa da populismoaren nozioa hedatzea izendapen horrekin identifikatuak izan ez diren mugimendu eta fenomeno askotara²⁵.

Baina, kasu:

Hala ere, horrek ez du esan nahi proiektu politiko guztiak neurri berean populistak direnik, populismoaren neurria eskaera sozialak bateratzen dituen baliokidetasun katearen hedapenaren arabera izaten baita²⁶.

Populismoa gradu afera gisa hartzen du Laclauk:

(...) populismoa gradu afera da, baliokidetasunaren logikak ezberdintasunaren logikei nagusitzen zaizkien proportzioaren arabera. Hala ere, bataren edo bestearen nagusitasuna inoiz ez da erabatekoa izango. Inoiz ez da egongo gizarteko aparatu instituzionala ehuneko ehunean desegingo duen logika herritar dikotomikorik. Eta,

23 Laclau, Ernesto, La razón populista..., 110. orrialdea.

24 Laclau, Ernesto, La razón populista..., 195. orrialdea.

25 Laclau, Ernesto, Debates y combates, Por un nuevo horizonte de la política, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2011, 56. orrialdea.

26 Laclau, Ernesto, La razón populista..., 195. orrialdea.

era berean, sekula ez da egongo erloju mekanismo perfektu baten antzera funtzionatuko duen eta eskaera heterogeneoen arteko antagonismoak eta baliokidetasun harremanak sortuko ez dituen sistema instituzionalik. Lehenik eta behin, azterketa politiko orok zehaztu egin behar du eskaerak zenbateraino dauden sakabanaturik gizarte zibilaren arloan nahiz espazio politikoaren eremuan²⁷.

Finean, logika politikotzat jotzen du populismoa gure gonbidatuak:

guretzat “populismoa” ez da mugimendu MOTA bat –oinarri sozial berezi batekin edo orientazio ideologiko jakin batekin identifikagarria–, baizik eta LOGIKA POLITIKO bat.

Eta, kontzeptuak argitzeko:

Logika soziala arauak betetzean datza; logika politikoa, ordea, soziala eratzearekin lotuta dago. (...) eratze hori (...) eskaera sozialetatik sortzen da eta, beraz, aldaketa sozialeko prozesu guztietan gertatzen da. Aldaketa hori baliokidetasunaren eta ezberdintasunaren artikulazio aldakorraren bidez gauzatzen da, eta momentu ekibalentzialak askotariko eskaera sozialak biltzen dituen subjektu politiko global baten eraketa eskatzen du. Horrek, berriz, (...) barne mugak eraikitzea eta subjektu instituzionalizatu bat identifikatzea dakar. Momentu estrukturalen konbinazio hori ematen denean, era bateko edo besteko populismo bat daukagu, dagokion mugimendu politikoaren eduki ideologiko edo sozialak edozein direlarik ere²⁸.

Gaia askoz ere zabalago eta konplexuagoa bada ere, gure arreta atal zehatz batean jarri nahi dugu. Laclauk *logika populista* eta *logika instituzionalista* bereizten eta kontrajartzen ditu, elkarrizketa honetan era oso gardenean azaldu zuen:

Nire ustez, populismoa eta instituzionalismoa puntu erabakigarri batean kontrajartzen dira. Populismoak eskaera sozial askoren arteko baliokidetasuna sortzeko joera du; instituzionalismoak, ordea, haien absortzio diferentzialera jotzen du, eta, bere formarik bukatuenean, politika administrazioaz ordezkatzen.

27 Laclau, Ernesto; *La deriva populista y la centroizquierda latinoamericana*, Nueva Sociedad, 205, 2006. http://nuso.org/media/articles/downloads/3381_1.pdf

28 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 150-151. orrialdeak.

Ulertu behar dena da instituzio politikoak inoiz ez direla neutralak. Taldeen arteko indar harremanen kristalizazioa dira eta, beraz, aldaketa sozialerako proiektu orok, bere orientazio ideologikoa edozein delarik ere, non edo han talka egingo du, ezinbestean, indarrean dagoen ordena instituzionalarekin. Kontua absurdora eramanez, esan genezake erabateko instituzionalismoa eta erabateko populismoa continuum baten bi mutur idealak direla, hurrenez hurren ezberdintasunaren logika eta baliokidetasunaren logika nagusitzen direlarik. Praktikan, erregimen politiko oro continuum horren barneko punturen batean eraikitzen da eta, proportzio ezberdinetan bada ere, bi logikak uztartzen ditu. Ezin da egon baliokidetasun popularrak ehuneko ehunean ezinezko bihurtzeko bezain instituzionalista den erregimenik, ezta inolako ainguratze instituzionalik ez edukitzeko bezain populista den erregimenik ere²⁹.

Logika populista esparru askotara hedatzen badu ere, esan beharra dago liderraren inguruko artikulazioari eman diola garrantzia berezia Laclauk:

Populismoari egiten zaion kritika klasikoak lotura estua du boterearen ikuskera teknokratiko batekin, zeinaren arabera adituek soilik ezarri behar dituzten komunitatearen bizitza antolatuko duten formulak. Venezuela hartuko dugu adibidetzat. Han badira masa politiko birjinak ordura arte sistema politikoan inoiz parte hartu ez zutenak edo izaera klientelistikoko estortsio formen bidez soilik parte hartu zutenak. Halako batean, masa horiek historiaren hareara jauzi egiten dute lider batekiko identifikazioaren bidez, eta lidergo hori demokratikoa da, zeren eta, liderarrekiko identifikazio hori eman ez balitz, masa horiek sekula ez ziren iritsiko sistema politikoan parte hartzera eta sistema politikoa herriaren borondatea ordezkatzeko zuten eliteen eskuetan egongo zen³⁰.

Laclauk ederki zekien populismoaren irakurketa deskalifikatzailea lider baten mesianismoaz lotzen zela. Horregatik, ordezkapenaren inguruko bere teorizazioa zuen, zeinean afektuek izugarrizko garrantzia hartzen baitzuten:

²⁹ <http://catedralaclau.com.ar/wp-content/uploads/2015/11/Follari-Ernesto-Laclau-entre-pol%C3%ADtica-y-Estado.pdf>

³⁰ <http://www.lanacion.com.ar/719992-ernesto-laclau-el-populismo-garantiza-la-democracia>

Ulertu egin behar da zer den ordezkapen politikoko prozesu bat. Jende askoren iritziz, ordezkariak zenbat eta zorrotzago bete ordezkatuaren borondatea, orduan eta legitimoagoa da ordezkapen prozesua, prozesu gardena baita. Hala ere, gerta daitekeena edo, hobeki esan, beti gertatzen dena beste gauza bat da: ordezkatuak ingurune jakin batean jarduten du, baina ordezkariak bestelako ingurune batean jardun behar du, eta bertan txertatu ordezkatuaren eskaerak. Beraz, ordezkaria ez da transmititzailerik pasibo bat, baizik eta askotariko eskaera horiek artikulatzen dituena. Gainera, ordezkariak diskurtso berri bat sortzen du eta, azkenean, diskurtso horrek eragina du ordezkatuaren identitatean ere.

Agian, hau esango didazu orain: ez al da demokratikoagoa sistema bat zeinean lehen dimentsioa –ordezkatuarengandik ordezkariarengana doana– ordezkariarengandik ordezkatuarengana doan dimentsioari nagusitzen zaion? Ez beti eta ezinbestean. Ordezkatuak nolakoa den. Ordezkatuak sistema politikoan ahul integratutako sektore marjinalak badira, ordezkariaren funtzioa –liderraren funtzioa– askoz garrantzitsuagoa izango da. Baina horixe da sistema politikotik kanpo egondako masa jakin batzuek harea politikora jauzi egin ahal izateko bide bakarra. (...) Masa horiek txertatzeko, ezinbestekoa da sistema instituzional tradizionaletik harago joatea eta parte hartzeko forma berriak sortzea. Lehen esan dugunez, parte hartzeko forma berri horiek zerbaitetan kristalizatu behar dira, sinbolo batean, eta esan beharrik ez dago liderraren figurak funtzio sinboliko hori betetzen duela³¹.

Populismoaren inguruko gogoetan hiru dimentsio aipatzen ditu Laclauk, azkenik:

Askotariko eskaerak baliokidetasun kate batean bateratzea; gizartea bi eremutan banatzen duen barne muga bat eratzea; eta baliokidetasun katea indartzea, kualitatiboki lotura ekibalentzialen batuketara hutsa baino zerbait gehiago den identitate herritar bat eraikiz³².

31 Martínez Martínez, Germán; *El populismo y la izquierda latinoamericana, entrevista con Ernesto Laclau*, <http://www.nexos.com.mx/?p=23342>

32 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 102 orrialdea.

Dagoeneko, sarri agertu da *artikulazio* kontzeptua, beharbada Laclaren inspirazio eraginkorrena guretako.

5) Artikulazioa:

Nola eraiki herria? Nola gauzatu logika populista?:

Niretzat, populismoa herria aktore kolektibo gisa eraikitzeari lotuta dago. Nola eraikitzen da herria? Funtsean, bete gabeko eskaerak artikulatuz³³.

Laclaren ikuspegiak, esan dugunez, eraikuntza politikoari ematen dio lehentasuna. Kontua ez da jada aurre-determinatuta dagoen sujetuaren indar eraldatzailea bideratzea, indar sozial horiek eraikitzea baizik, sujetua edo sujetuak eraikitzea, finean. Artikulazioa da hori lortzeko bidea. Artikulatzen da, beraz, sujetua ez dagoelako aurretik ezarrita:

Beraz, antagonismo bat artikulatzeko erak ez daude inola ere aurre-determinatuta: borroka hegemoniko baten emaitza dira. Baieztapen horrek garrantzi handiko ondorioak ditu, esan nahi baitu borroka berri horiek ez direla nahitaez aurrerakoiak eta, beraz, okerra dela pentsatzea –askok egiten duten bezala– borroka horiek berez kokatzen direla politika ezkertiarren testuinguruan. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, pentsalari askok langile klasea ordezkatzeko lukeen subjektu iraultzaile pribilegiatu berri bat bilatzeari ekin diote, langile klaseak porrot egin omen baitu bere emantzipazio misio historikoan. Mugimendu ekologistak, ikasle mugimenduak, feminismoa eta masa marjinalak izan dira paper berri hori jokatzeko hautagai nagusiak. Baina argi dago horrela ez zaiola izkin egiten problematika tradizionalari: lekuz aldatzen da, besterik gabe. Ez dago ondorio kate uniforme bat ekarriko lukeen eta azkenean gizarte osoa aldatuko lukeen posizio pribilegiatu bakar bat. Borroka guztiak –hala langileenak nola beste subjektu politiko batzuenak– partzialak dira berez, eta diskurtso oso ezberdinetan artikulatu ahal dira. Artikulazio hori da beren izaera ematen diena, eta ez jatorri duten eremua. Hala, ez dago subjekturik –eta, horrenbestez, «premiarik»– guztiz erradikala denik, ezarrita-

³³ Martínez Martínez, Germán; *El populismo y la izquierda latinoamericana, entrevista con Ernesto Laclau*, <http://www.nexos.com.mx/?p=23342>

*ko ordenak berreskuratu ezin duenik eta erabateko eraldaketa bat inplementatzeko abiapuntu guztiz ziurra denik. (Era berean, ez dago ezarritako ordenaren egonkortasun etengabea ziurta dezakeen ezer)*³⁴.

Castro-Gómezek ongi kokatzen du artikulazioaren garrantzia Zizekek Laclau eta Moufferi egindako kritiken inguruko gogoeta batean:

*Identitate sozialak (eta identitate POLITIKOAK bereziki) artikulazioz eratzen dira, hau da, bi elementu edo gehiagoren arteko baliokidetasuna ezartzeko moduaren arabera. Esanahi sistema ireki batean, ez dago erlazionala ez den identitaterik: identitate guztiak erlatiboak eta kontingenteak dira. Horregatik, borroka politikoak ulertzeko gakoa “artikulazio jarduerak” dira (eta ez identitateen esentzialis-moa)*³⁵.

Kontua ez da, beraz, esentzien araberako nortasunen uztarketa, jarduerak artikulatzea baizik. Alperrikakoa da hainbat marxismo ortodoxoen esentzialismo obrerista baztertzea antzeko esentzialismoak eraikitzeko beste sujetu edo sujetu gisa hartzen diren beste batzuei egokitzeko.

Baliokidetasunaren logikaren araberako kateak eraikitzean datza artikulazioaren gakoa, eskaeren (borroken) arteko elkartasunean, hots³⁶.

Stuart Hallek zuzen kokatu du, Laclaren bide beretik, artikulazioa:

Artikulazioaren teoriak jakin nahi duena da ideologia batek nola aurkitzen duen bere subjektua, eta ez subjektuak nola pentsatzen dituen ideologia horri dagozkion pentsamendu beharrezko eta saihetsezinak. Teoriak hauxe hausnartzeko bidea ematen digu: ideologia batek nola ahalduntzen duen jendea, nola gaitzen dituen herritarrak beren egoera historikoari zentzuren bat emateko eta ulertzen hasteko, ulertze bide horiek kokapen sozioekonomikora, klase posiziora edo gizarte mailara mugatu gabe.

34 Laclau, Ernesto. Mouffe, Chantal; *Hegemonía y estrategia socialista...*, 278-219 orrialdeak.

35 Castro-Gómez, Santiago; *Revoluciones sin sujeto...*, 265. orrialdea.

36 Laclau, Ernesto; *La deriva populista y la centroizquierda latinoamericana*, Nueva Sociedad 205, 2006.

Artikulazioaren teoria, nik erabiltzen dudan moduan, Ernesto Laclauk garatu du POLÍTICA E IDEOLOGÍA EN LA TEORÍA MARXISTA liburuan. Hauxe argudiatzen du liburu horretan: elementu ideologikoen konnotazio politikoak ez dauka pertenezkoa beharrezko bat eta, beraz, praktika ezberdinen arteko lotura kontingenteak —ez beharrezkoak— aztertu behar ditugu: ideologiaren eta indar sozialen artekoak, ideologiaren barneko hainbat elementuren artekoak, mugimendu sozial bat osatzen duten taldeen artekoak, eta abar. Laclauk ideologiaren teoria marxista klasikoa determinatu duen logika erredukzionistarekin hausteko erabiltzen du artikulazioaren nozioa³⁷.

Artikulazioa, beraz, aurretik ezarritako sujetuaren ereduaren kontra kokatzen da. Baina, halaber, sujetuen sakabanaketa edo haien arteko elkartzun-elkarlan loturen bazterketa kritikatzeko du. Maila honetan, oso interesgarria da Negri eta beste batzuekin lehiatzen dela Laclau, artikulazioaren bazterketa leporatuz:

Haien ustez, borroka sozial ezberdinen arteko artikulazio horizontala arbuiatu egin behar da, mobilizazioen bakartze bertikal baten mesedetan, haien arteko lotura politikorik eraiki beharrik gabe. (...) ez dut uste ikusmolde hori egokia denik. Ikuspegi horren oinarria hirurogeita hamarrekoko hamarkadako operalismo italiarra da, zeinak autonomia goretzi eta “artikulazio” kategoriaz baztertzen baitzuen. Gauza batean bat nator beraiekin: azken kategoriaz hau ezin da murriztu “alderdiaren” forma instituzionalerara, Italiako komunismoak egin zuen bezala. Hala ere, nire ustez, mobilizazio sozialen arteko lotura horizontala jasotzen duten artikulazio forma konplexuagoak funtsezkoak dira oraindik proiektu politiko baten programazioan³⁸.

Esanguratsuki, nork eta Laclauen bikote eta laguntzaile intelektuala izan zen Chantal Mouffek eskaintzen dizkigu gai honen inguruko ideia interesgarriak:

37 Hall, Stuart; Sin garantías, Trayectorias y problemáticas en estudios culturales, Instituto de estudios sociales y culturales Pensar, Universidad Javeriana Instituto de Estudios Peruanos, Universidad Andina Simón Bolívar, sede Ecuador, Enviñón Editores, 2010, 85. orrialdea.

38 Laclau, Ernesto, Debates y combates, 12. orrialdea.

Gure iritziz, artikulazioaren gaia erabakigarria da. Subjektu posizioen artean aurretiazko lotura beharrezkorik ez dagoela esateak ez du esan nahi haien artean lotura historiko, kontingente eta aldakorrek ezartzeko ahalegin etengabeak egiten ari ez direnik. Lotura mota horrek harreman kontingente bat ezartzen du hainbat posizioen artean, aurre-determinatuta ez dagoen harreman bat, eta horri esaten diogu “artikulazioa”. Subjektu posizio ezberdinen arteko lotura beharrezkorik ez dagoen arren, politikaren eremuan beti daude haien arteko artikulazio bat sortu nahi duten diskurtsoak, abiapuntu ezberdinetatik bada ere. Horregatik, subjektu posizio bakoitza egitura diskurtsibo ezegonkor baten barruan eratzen da, posizio hori etengabe irauli eta eraldatzen duten askotariko artikulazio jardueren menpe baitago. Hori dela eta, ez dago beste subjektu posizio batzuekiko loturak behin betiko ziurtatuta dauzkan subjektu posiziorik eta, beraz, ez dago erabat osatu eta behin betiko eskuratu ahal den identitate sozialik. Hala ere, horrek ez du esan nahi ezin ditugula atxiki nozio jakin batzuk, hala nola “langile klasea”, “gizonak”, “emakumeak”, “beltzak” edo subjektu kolektiboak izendatzen dituzten beste adierazle batzuk. Hala ere, esentzia komun baten existentzia baztertu egin denez, haien estatusa Wittgensteinek “familia-antzekotasunak” esaten dion horren terminoetan ulertu behar da, eta haien batasuna identitateen finkatze partzial baten emaitza gisa ikusi behar da, finkatze hori puntu nodalak sortuz lortzen delarik.

Helburua herritar demokratiko erradikalez osatutako “gu” bat eraikitzea da, baliokidetasun demokratikoaren printzipioaren bidez artikulatutako identitate politiko kolektibo bat. Azpimarratu behar da baliokidetasun harreman horrek ez dituela ezberdintasunak ezabatzen –kontrakoa identitate soila izango litzateke–. Ezberdintasun horiek haien artean ordezkagarriak izan daitezen, ezberdintasun demokratikoek aurre egin behar diete haiek guztiak ukatzen dituzten indar edo diskurtsoei³⁹.

Guretako oso interesgarria da Laclauk (eta Mouffek) artikulazioa goitik behera eta abangoardismoaren arabera eraikitzekeko ereduaren kritika eta

39 Mouffe, Chantal; **Feminismo, ciudadanía y política democrática radical**, [http://www.mujeresdelsur.org/portal/images/descargas/chantal_mouffe\[1\].pdf%20ciudadania%20y%20feminismo.pdf](http://www.mujeresdelsur.org/portal/images/descargas/chantal_mouffe[1].pdf%20ciudadania%20y%20feminismo.pdf)

artikulazioaren beharraren artean ezartzen du(t)en bereizketa. Izan ere, artikulazioarena eraldaketarako derrigorrezko formula da, botere harremanak aldatzeko jendarte eragileek elkarlanean jardun behar dutelako, artikulazio hegemoniko berriak eraikiz. Beste gauza bat da nola gauzatu behar diren artikulazioak. Bistan da, Laclauk dioenez, formula batzuk agortuta daudela. Argirik dago inposaketa ez dela bidea: halaxe erakusten digu geure esperientzia historikoa. Artikulazio emankorren ezinbestekotasuna zalantza guzietatik haratago adierazten digun esperientzia historiko bera, hots.

Edozein artikulaziotan, bestalde, funtsezkoa da muga kontzeptua. Izan ere, garrantzia handia ematen dio Laclauk mugari:

(...) populismoaren patua hertsiki loturik dago muga politikoaren patuarekin: muga politikoa desagertzen bada, "herria" deuseztatu egiten da aktore historiko gisa⁴⁰.

Bere ustetan hau gertatzen ahal da (oso zaila bada ere) sistemak eskaerak banan banan irentsen baldin baditu, ezberdintasunaren logika nagusituz eta beraz, berdintasun-baliokidetasun kateak hautsiz. Beraz, ondoriozta dezakegu derrigorrezkoa dela operazio populistan, alde batetik, muga hori eraikitzea, baina, bestalde, porotsua izatea, bestela erabateko aurkamen-
duan egonen giñateke, gerla irekian:

Mugak ezegonkorrak dira eta etengabe mugitzen dira⁴¹.

Muga, beraz, jendartearen bereizketaren gakoa da, horrela osatzen baitira esparruak:

*(...) herria eraikitzeko, herriari dagokion muga ere eraiki behar da.
(...) Horrek joko hegemoniko berri batera garamatza: herri berri guztiek berriz eratu beharko dute ordezkapenaren esparrua, muga berri bat eraikiz.*

Orain arte aipatu ditugun testuek, Laclauen kontzeptu eta kategoriak ezagutzeko parada emateaz gain, ideia inspiragarriak jarri dituzte mahaiaren gainean. Azkenik, eta beste hainbat ekarpen, oso interesgarriak izanik ere, garatu gabe utzi behar ditugularik, Laclauk berak laburtu zituen bere ekarpenak Londonen

40 Laclau, Ernesto, La razón populista..., 117. orrialdea.

41 Laclau, Ernesto, La razón populista..., 193. orrialdea.

2013ko abenduan idatzitako testu batean, heriotzatik oro gertu, beraz. Oso interesgarria da lapurpentxoan, bere ibilbidearen uzta azken garaietako hainbat gertaeraz eta prozesuz uztartzen dituelako. Oso zaila litzateke sintesia emankoragarik egitea, beraz, paragrafoa luzea bada ere, osorik ekarri dugu:

Azken hamabost urteotan, nire hausnarketa politikoaren bi tesi nagusiak berretsi dituzten fenomeno berriak agertu dira arlo politikoan nahiz sozialean. Lehen tesia eragile sozialen sakabanatze eta ugartzeari buruzkoa da. Lehen, subjektibitate politiko emantzipatzaileak klase identitateetara mugatzen ziren, baina, dagoeneko, hori iragana da. Gaur egun, 2008an hasitako krisi ekonomikoaz geroztik batez ere, mundu zabaleko jokaleku politikoak ageriko otzantze instituzional orotik kanpo bideratutako protesta sozial berrien gorakada erakusten digu (Suminduen mugimendua Espainian eta tankera horretako beste mobilizazio batzuk Europan; Occupy Wall Street mugimendua Estatu Batuetan; Argentinako piketeroak; protesta sozialak bideratzeko forma berriak Ekialde Ertainean eta Afrikan, etab.). Jarduteko moduari dagokionez, mobilizazio horiek gainditu egiten dituzte indarrean dauden marko instituzionalek protestak bideratzeko daukaten ahalmena. Hori da “autonomiaren” dimentsio horizontala, eta zehatz-mehatz dator bat gure lanetan “baliokidetasun logikak” esan diogun horrekin. Gure bigarren tesia, berriz, honakoa da: autonomiaren dimentsio horizontala ez da gai izango, bere kabuz soilik, epe luzeko aldaketa historikorik lortzeko; horretarako, “hegemoniaren” dimentsio bertikala gehitu behar zaio ezinbestean, Estatuaren eraldaketa erradikala, alegia. Lehenago edo beranduago, autonomia hutsak protesta mugimenduen agortzea eta sakabanatzea dakar. Hegemoniari dagokionez, gizarte zibilaren arloko masa ekintzaz osatzen ez bada, burokratizazioan eror daiteke eta status quo-ko indarren botere korporatiboek erraz kolonizatu ahal dute. Hain sarri aipatzen den “XXI. mendeko sozialismoari” benetako esanahia emango dion etorkizun demokratiko baten alde borrokatzen diren guztientzat, autonomiaren norabidean eta hegemoniaren norabidean aldi berean aurrera egitea da benetako erronka⁴².

42 Laclau, Ernesto; *Los fundamentos retóricos de la sociedad, prefacio a la edición inglesa*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2014, 19. eta 20. orrialdeak.

BAI, BAINA... LACLAUREKIN LACLAURENGANDIK HARATAGO

Gure *bainak* baditugu, jakina. Ideia inspiragarriak atzeman ditugu, horietariko batzuk aipatu ditugularik, baina beste atal batzuetan gure gonbidatuarekiko adostasuna aldentzen da beste bide batzuk hartzen ditugularik. Edonola ere, desadostasun edota zalantza horiek baliogarriak izan daitezkeelakoan gaude.

Gure asmoa geure praxia elikatzen ahal duten ideiak eta gogoetak azpimarratzea denez, Laclaurekiko desadostasun inspiragarrienak aipatuko ditugu soilik, besteak ahantzi gabe.

a/ Ez dago tradizio marxista guziekiko hausturarako arrazoirik. Izan ere, egon da eta badago inspirazio marxistarik marxismo ortodoxoetatik haratago.

Eta, bide beretik, ortodoxia eta dogmatismoek ez dute tradizio marxistaren baliogarritasuna ukatzen, dena ez baita ortodoxia eta dogmatismoa izan. Tradizio osoa baliogabetzea beste marxismoak edota inspirazio marxistako beste hainbat pentsalarik eta taldek teorizatu eta praxia gisa garatu dutena bazterrera botatzea litzateke. Besteak beste euskal ezker independentistak egindakoa gutxiestea, esaterako.

Laclauk indar oroz kritikatzeko dituen marxismoaren ideia batzuk, baina badaude marxismoan eta marxismoaren inspirazio indartsua izan duten mugimendu eta pentsamendu tradizio batzuetan determinismo eta ekonomizismoaz apurtzeko asmo eta urrats nabarmenak. Baita herri mugimendu eta borroken artikulazioen inguruan ikuspegi ez-abangoardistak izan dituztenak. Inspirazio marxista emankorra izan da eta da. Beste kontu bat da dogmatismo eta ortodoxien eragin kazkarra.

b/ Diskurtsoa kontzeptu onuragarria da, baina ez da aski. Follariren ustetan sobera urrutira eraman du politika diskurtso fenomeno huts gisa ulertzea⁴³. Gureganatzen ahal dugu, maila batean, bederen, Follariren iritzia:

43 Follari, Roberto; La alternativa neopopulista..., 21 orrialdea.

(...) guretzat, diskurtsoak ez du zedarritzen erreala forma, gai horretan Laclarengandik aldentzen garelarik (...)

(...) gure iritziz, erreala diskurtsotik kanpo kokatzen da, nahiz eta gauza nabaria izan diskurtoaren barruan soilik bihurtzen gara erreala partaide. Ezin dugu erreala diskurtsorik gabe antzeman, baina horrek ez du inola ere esan nahi diskurtsoa denik erreala forma ezartzen duena, eta are gutxiago erreala diskurtoaren eremutik moldekatuta soilik existitzen denik.

Gizartea bere klase, etnia, genero eta talde harremanetan existitzen da, eta diskurtsoa baldintza sozial-material horien barruan ulertzen da, haien barruan soilik.

(...) gure ustez, sozioekonomikoak (zorrotz esanda, JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKUNTZA SOZIALA) sinbolikoa determinatzen duela ukatzeak eta nozio horren kontra egoteak ez du esan nahi sozioekonomikoak diskurtoaren eremua murrizten ez duenik, are gutxiago kontuan izanda diskurtoaren eremua erreal/sozialaren existentzia maila bat dela⁴⁴.

Hau da, hainbat ortodoxia eta determinismoaren kritikak ez gaitu harreman eta egitura sozio-ekonomikoen eraginaren ukapenara eraman behar. Klase kontzeptua, esaterako, baliogarria da, gure ustetan, determinismoaren kopapenetatik atera behar delarik, edonola ere.

Castro-Gómezek kritika zentzuduna egiten dio Laclauri arlo honetan:

Nire ustez, hori da Laclau eta Moufferen eredu linguistikoaren ahulgune nagusia. Eredu horren desabantaila hauxe da: Nietzscheren eta Foucaulten boterearen ontologian ez bezala, GORPUTZAK ez du inolako lekuri haien teorian. (...) Judith Butlerrek argi frogatu duenez, performatibitatea gorputzari dagokio, eta ez soilik hizkuntzari. Ariketa performatibo oro GORPUZTURIK dago ezinbestean⁴⁵.

Egile honen ustetan, Laclarengan hegemonia kontzeptua loturik dago maila batean:

44 Follari, Roberto; La alternativa neopopulista, 33 orrialdea.

45 Castro-Gómez, Santiago; Revoluciones sin sujeto..., 267 orrialdea.

*zama DISKURTSIBO handiegi baten menpe geratzen da, kontuan hartu gabe hegemonia orok ezinbestekoa duela gorputzen eta afektuen nolabaiteko antolaketa bat*⁴⁶.

Idazki hau ez da kritika hori (ezta Castro-Gómezek eta beste batzuek egiten dituzten beste batzuk ere) garatzeko lekua, baina komeni da berriro ere gogora ekartzea oso inspiragarriak direla gure gonbidatuaten ekarpenen inguruan sortutako gogoetak, horietariko asko hagitz kritikoak.

c/ Liderrak, bai, baina artikulazio demokratiko irekietan.

Gure ustetan, lider baten inguruko artikulazio populista eredu bat da, Laclauk garatu duena, baina ez da bakarra, eta maila batean, artikulazio hibridoak ere ematen dira, liderraren nagusitasunaz gain beste erreferentziak daudelarik. Liderraren artikulazioan, bertikaltasunak nagusitasuna hartzen ahal du, batzuek ohartarazi dutenez.

Finean, badaude politika urlzetu eta gauzatzeko jarduera ez hegemonikoak, badaude beste artikulazioak, dena ez da populismoa, politika ez da estatua-
ren inguruan egiten soilik, eta, batez ere, artikulazio guzien gakoa ez da li-
der nagusi bat. Bat egiten dugu, beraz, Rivera Garcíaak agertutako kezka:

*(...) ezinbestekoa zaigu esatea –eta deitoratzea– ezen, LA RAZÓN POPULISTA idatzi zuenetik, Laclauk ordezkatzeko instantzia ugarietako interesa murriztu zuela, bere interes gutzia liderrean jarritz, agintari populistan, alegia*⁴⁷.

Ongi kokatzen du afera Castro-Gómezek:

Neoliberalismoarena bezalako hegemonia bat ez da jokatzeko diskurtso mailako posizionamenduen bidez soilik. “Zentzumenezkoaren erregimen” bat eraiki behar du, nolabaiteko kontsentsu bat (Gramscik esango lukeen bezala) GORPUTZ BATEK EGIN DEZAKEENAREN AURREAN.

⁴⁶ Castro-Gómez, Santiago; *Revoluciones sin sujeto...*, 373 orrialdea.

⁴⁷ Rivera García, Antonio; *De la hegemonía al populismo: Ernesto Laclau, la evolución de un schmittiano antischmittiano*. https://www.academia.edu/13375109/De_la_hegemon%C3%ADa_al_populismo_Ernesto_Laclau_la_evoluci%C3%B3n_de_un_schmittiano_anti-schmittiano

(...) definizioz, ZENTZUMENEZKOAREN erregimen bat ez da desafiitzen adierazle hutsak sortuz, baizik eta gorputzek ustez egin ahal dituztenez bestelako gauzak egin ahal dituztela ERAKUTSIZ. Eskaerak eta diskurtsoak gero etorriko dira, hierarkia sozialak berresten dituen ordenaren ahultasuna AGERIAN UTZI ondoren. Hala, jatorriz ekintza demokratikoa ez da diskurtsiboa, gorputzekoa baizik⁴⁸.

Esan bezala, beste batzuk aipatzen ahal genituen, baina hiru hauek zer pentsa ematen digute, beste gogoetarako bidea irekiz. Noizbait bukatu beharko da gure artikulua, sarreratxo labur gisa pentsatutakoak bizitza propioa hartu eta etengabean luzatzeko mehatxuaz baitator. Bada ondorioetara iristeko tenorea, beraz!

clau, aukerak sortuz fosilizatutako ortodoxia eta etsipen-ihesaldietatik

Laclarena askapenaren teoria eta praxia berritzeko saioen artean kokatu behar da. Eta bere saioak bizi garen garaiaren ulermenerako eta eraldaketa pentsatu eta garatzeko tresna kontzeptual eta irakurketa eta proposamen inspiratzaileak eskaintzen dizkigu, bere teoria osoaz ados egon ala ez baliatzen ahal ditugunak. Tresna horiek gureganatzen ahal ditugulako Laclarekin, Laclarengandik haratago (edo honago...) baita Laclaren kontra ere, guk ez baitugu Laclarekin harreman erlijiosorik nahi. Ez berarekin ezta inorrek ere, egia esan.

Esanguratsuki, kritika zorrotzak jaso zituen Laclauk (baita hil ondotik jasotzen ere), alde batetik, eskuina eta neoliberalismoaren esparruetatik, besteak beste, populismoaren kontzeptualizazio eta gauzapenaren inguruan. Hau areagotu zen Amerika Latinako hainbat eraldaketa prozesuekiko Laclaren atximenaren ondorioz. hala kokatzen ditu Follarik esperientzia hauek, neopopulistatzat hartuta:

Neopopulismoak zentraltasuna itzultzen dio politikari, eta duindu egiten du, botere ekonomikoaren aurreko erabateko klaukiziotik erreskatatuz, klaukiziotik hori egiaztaturik geratu baitzen neoliberalismoaren goren aldian⁴⁹.

48 Castro-Gómez, Santiago; *Revoluciones sin sujeto...*, 296-297. orrialdeak.

49 Follari, Roberto; *La alternativa neopopulista*, 11 orrialdea.

Populismo hauek, beraz, neoliberalismoak ezartzen dituen agertokiaren aurreko alternatibaren eraikuntzan kokatu behar dira. Horregatik, neoliberalak, populismoa demokraziaren etsai gisa aurkeztuz, demokraziaren hustutzeari zilegitasuna eman nahi diote, aldaketa bideak itxi nahian.

Laclauk, esan dugunez, populismoa politikoa eraikitzeko era bat gisa definitzen du populismoaren eta orohar, herria eta masen satanizazioa salatzen duelarik. Besteak beste, oroitzen digu arrazionaltasuna indibiduoari egokitu zaiola, gaitasun arrazional asko galtzen dituelarik multzo batean parte hartzen duenean⁵⁰.

Baina beste errefusa orokor batzuk ezkeratik eta askapen mugimendu eta pentsalariak eginak dira, Laclauen teorizazioa nolabait kapitalismoaren esparruaren onarpen eta eraldaketaren etsipen estrategiko gisa hartuz. Erabateko deskalifikazioak jaso ditu, beraz, sozialdemokrazia edo eurokomunismo historikoez identifikatu dutelarik. Laburbilduta, neoliberalismoaren aurreko atzerapen-erretirada gisa hartu dute Laclauen pentsamendua.

Kritika batzuk, bestalde, Hego Ameriketako gobernu aurrerakoien inguruko eztabaidan kokatu behar dira. Batzuek, ez dira benetako askapen edo eraldaketa prozesuak izan. Hala baloratzen ditu saio hauek Raul Zibechik uruguidarrak:

Gaur egun, “Estatuaren itzulera” deiturikoa, gastu sozialaren igoreraren inguruko diskurtsoarekin batera, neoliberalismoaren aurkako aldarri sutsuen erabilera tautologiko baten azpian kamuflatutako kapitalismo erregionalaren aldaera perbertso bat da, legimitaterra itzultzen baitu sistema ekonomiko kapitalista, bere etapa neoliberalen inolako kontrolik gabe egindako gehiegikerien zuzenketa hutsen bidez. Era klasikoan –herriaren kontzientzia kolektiboan eragin handia izaten duten eta hauteskundeetan babes handia jasotzen duten neurriei erreferentzia eginez– “ezkertiar” gisa aurredefinitutako irizpideei erantzuten dieten politika sozialak artikulatu izan dira babes sozialaren arloan, baina, hori alde batera utzita, ez da batere zaila nabarmenki atzerakoiak diren politika ekonomikoak aurkitzea gobernu aurrerakoiak deiturikoen agenda postneoliberalen⁵¹.

50 Laclau, Ernesto, *La razón populista...*, 53. orrialdea.

51 Entrevista a Raúl Zibechi: <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=211751>

Argi dago badugula zer pentsa eta zer ondorioztatu prozesu horietatik, argitasun eta itzalak agertzen direlako, eta bergauza Laclaren ekarpenen aitzin, baina ez dugu uste sinplismoa bide ona denik. Izan ere, bistakoa da gobernu horiek ez dituztela egitura sozioekonomikoak erabat irauli, are gutxiago mundu mailako uztarketa erabat aldatu, baina, nola baloratu beharko genituzke azken hamarkadeetan horixe bera lortzeko egin diren beste saioak? Izan ere, badaude mende batez -bederen- “asmatzen” ari diren ikuspegiak, orian arte eredu alternatibo bideragarriak sortu ez dutelarik. Gauzak horrela, agian hobe legoke eraldaketa gauzatzeko saio hauek kritikoki, bai, baina harrokeria eta maximalismo ergelak alde batera utzita aztertzea.

Batzen dako lasaigarria izanen da segurtasun zaharretara itzultzea, dogmen konfort-guneetara edo, baina erretiradarik edo ihesaldirik baldin badago, horixe da nagusia. Berrikuntza saioen aurreko erresistentzia batzuek -eta honek ere balio du gaur egungo Euskal Herrian- **heldutasun gabezia nabarmena** adierazten dutelakoan gaude, ahulezia eta irudimen politiko eza irmotasunaz edo estetika-hizkera sasi-iraultzaileaz mozorratzen badira ere.

Izan ere, nola ulertu aurrerapen gisa jendartearen mobilizazioari esker lortutako gobernu-gintza esparruetatik ihes egin eta herri mugimenduen mobilizazioa erretiratzeko irizpidea? Azterketa zorrotza eskatzen dute emandako aurrerapenek, zenbait kasutan bilana oso kezkarria delarik, baina ondorioa atzera egitea bada, berriz ere zerumugarik gabe geldituko dira jendarte borrokak, estrategia integralak baztertuta, **estrategiatxo**en kabetara itzuliz edo. Bat gatz Laclaren hausnarketa honekin, beraz:

Mundu heterogeneo batean, identitate sektoriala borondate herritar zabalago bat eratzeko erdigune eta abiapuntutzat hartzen ez bada, ezinezkoa da politikoa deitzea merezi duen ezein ekintza egitea⁵².

Izan ere, gure garaiko estrategia eraldatzaileak indar, eragile eta borroken artikulazioa eskatzen du derrigorrez. Ezberdintasunaren logikara itzultzea (edo hor gelditzea, baztuk ez baitira hortik inoiz ere atera) ez da aukera bat, gure ustetan. Beste gauza bat da nolako artikulazioak, norik bultzatuak, nola eraikitzen diren adostasunak, nola gainditzen den bertikalitasuna nagusitzeko arriskua, nola baztertzen den abangoardismo edo neoabangoardismoa... Oso interesgarria da, esaterako, Judith Butler pentsalariak gai honetaz egindako ohartxo hau:

52 Laclau, Ernesto, *Debates y combates*, 55. orrialdea.

(...) ezkerraren etorkizuna parte-hartze demokratikoa exijituko duten mugimenduetatik abiatuta eraiki beharko da; eta (...) mugimendu horiei batasuna kanpotik inposatzeko saiakera oro arbuatua izango da berriz ere, jerarkia eta desadostasuna sortzera bideratuta-ko abangoardismotzat harturik, kanpotik ei datorren fragmentazio bera eragingo lukeelako⁵³.

Nola eraiki artikulazio demokratiko eraldatzaileak betiko goitik beherako edota borroken jerarkizazio ereduak birrezkoiztu gabe, hau da erronka. Baina artikulazio hegemonikoen eraikuntzan datza gakoa, ez determinismo edo esentzialismoen itzuleran, ezta erretiradan -nomadismoan, horizontaltasun hutsa edo autonomiaren mitifikazioan ere. Gurea egiten dugu, honenbestez, Julia Expósitoen gogoeta hau:

Gaur egun, funtsezkoa da soziala eraldatzeko moduari buruzko galdera zaharrari nola edo hala erantzuten saiatzen diren obra garaikideak berrikustea, xehatzea eta aztertzea. Horregatik uste dugu Ernesto Laclaren apustu teoriko-politikoaren gainean lan egitea garrantzi handiko eginkizuna dela kritikoa izan nahi duen pentsamendu ororentzat. Izan ere, Laclaren obrak gaur egungo borroka emantzipatzaileak nahiz formazio sozialak pentsatzeko egin dituen ekarpenak ezin interesgarriagoak dira. Laclauk argi eta garbi esaten du sozialaren opakutasun sakona eta gaur egungo kapitalismoaren konplexutasun guztiak ondo ulertzea funtsezkoa dela oraingo momentua aztertzeko. Era berean, subjektu sozialen posizioen fragmentazio sakonaz hausnartzeko gakoa ematen digu: emantzipatzailea izan nahi duen borroka orok aintzat hartu behar ditu subordinazio forma guztiak (generoagatik, arrazagatik...) eta haien aurkako borroka guztien artikulazio gisa pentsatu behar da⁵⁴.

Hamarkada luzeetan zehar porrot egin duten ortodoxia eta dogmatismoek (zaharrek ala berriek) nekez eskainiko dizkigute eraldaketa hobe pentsatu eta garatzeko tresnarik. Eta esan beharra dago Laclaren ideien aurreko erreakzio batzuek (baita aipatu gobernu aurrerakoien aurrekoek ere) arra-

⁵³ Butler, Judith, *El marxismo y lo meramente cultural*, *New Left Review*. http://newleftreview.es/article/download_pdf?language=es&id=1939

⁵⁴ Expósito, Julia; *Contribución a la crítica del pensamiento laclausiano*, *Lo Valvo, Emilio*; Expósito, Julia; *Articulaciones, derivaciones entre teoría y coyuntura en la obra de Ernesto Laclau*, *Libros por demanda*, Rosario, 2014, 171 orrialdea.

zoia izateko obsesioa adierazten dutela eztabaida emankorrek egiteko borondatea baino.

Izan ere, oso hedatuta dago hainbat ezkerretan **arrazoia izateko obsesioa**. **Banekien sindromea** izendatzen ahal dena, aurrerapenak lortzeari baino arrazoia izateari (edo hori aldarrikatzeari, hobe esanik) garrantzia gehiago ematen zaiolarik. Pentsatzen ahal da, sobera gaizto izan gabe, Ameriketako prozesu eraldatzaileen porrotaren zain daudela batzuk, banekien nik esateko eta segituan porrotaren inguruko liburu eta azterketa luzeak idazteko. Porrotan adituak, **porrotadituak**, nolabait, hori da batzuen zerumuga bakarra. Guk ez dugu ikuspegi horrekin bat egiten, ez baitzaigu zilegi iruditzen eztabaida termino manikeo eta, batzuetan, inkisitorial horietan kokatzea. Laclaren ekarpena eztabaidagarria da, jakina, eta puntu ahul, kontraesan eta gabezia nabarmenak ditu, aipatuko dugunez, baina aspergarria da benetako iraultzaren ikuspegitik egindako pontifikazio eta gaitzespen joera.

Ederki dakigu euskal ezker independentistan zer den bide berriak ireki nahi izatea askapenaren teoria eta praxia fosilizatuen aurrean. Badakigu gure ibilbidearen kontakizuna delako, ortodoxia askorekin lehiatu garen mugimendua garelako.

Argi dugu ezker abertzaleak asmatu duela bere burua ortodoxietatik at gorde nahian. Eta ortodoxiak diogu, ez baikara bakarraz ari. Izan ere, ortodoxia zehatz baten kontrako ortodoxia asko ezagutu eta jasan ditugu, denak ortodoxia bilakatu direlarik. Eta denek heterodoxo gisa hartu eta satanizatu gaituzte.

Argentinako bere militantzia urteak oroituz, Laclauk esaten zuen testu marxistek irizpide klasista ezartzen zutela era zorrotzan, haiek horretatik ihes egin nahi zutelarik:

*Sormenaren arloan, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamar-kadak oso emankorrek izan ziren ezkerreko pentsamenduarentzat. Besteak beste, Kubako Iraultza gertatu zen –langile klasearen zentralitate terminoetan inola ere pentsatu ezin dena–; Frantz Fano-
nek subjektibitate antikolonialen eratzeari buruz idatzitako liburu ospetsuak argitaratu ziren; Maok “herriaren barneko kontraesanei” buruzko tesiak plazaratu zituen, eta horrek legitimate iraultzailea eman zion “herri” nozioari –bestela, antema hutsa izango zen*

marxismo klasikoarentzat—. Halaber, ikasleek, talde marjinalak eta gutxiengo ugari mobilizazio jendetsuak egin zituzten Estatu Batuetan nahiz Europan. Identitate berriak agertzen ziren nonahi, eta haien artikulazioaren logika konplexuek argi eta garbi erakusten ziguten ezinbestekoa zela esparru ontologikoa aldatzea.

Beraz, nola egin aurre egoera horri? Lehen begiratuan, bi bide zeuden, baina nik ezezko biribila eman nien biei. Lehen bidea hau zen: besterik gabe kategoria marxistei axikita jarraitzea, hipostasiatutako dogma bihurtuz, eta, aldi berean, kategoria horiekin lotura lauso bat besterik ez zeukan ekintza politiko bat garatzea eremu enpirikoan. Hori izan zen garai hartan askok hartu zuten bidea, hala mugimendu komunistetan nola trotskistetan, baina nik sekula ez nuen izan hortik jotzeko inolako tentaziorik. Bigarren bidea alderantzizko simetrikoa zen: marxismoa gure garaiko arazoekin inolako loturarik ez duen dogma esklerosatu batera murriztea eta diskurtso mota berri bat asmatzea, diskurtsibitate marxistaren eremua zeharo alboratuz. Nik uko egin nion bigarren bide horri ere. Ziur nengoen tradizio intelektual handi bat sekula ez dela horrela hiltzen, bat-bateko kolapso moduko baten ondorioz.

Nik bestelako operazio bat saiatzea erabaki nuen. (...)⁵⁵

Maila batean, halaxe egin zuen ezker independentistak Euskal Herrian. Ez zuen marxismoaren ekarpen orokorra zakarrontzira bota, eta ez zen marxismoaren fosilizazio edo dogmatizazio joeretan murgildu. Berak ez bezala, guk inspirazio marxistari helduz, baina, finean, asmo beraz.

Asmakizun historiko estrategikoa izan da, beraz, teorizazio sektarioen tranpan ito ez izana. Erori gara behin baino gehiagotan, jakina, eta oso kaltegarria izan da, baina ihes egin diogu ezker hilkorra edo, bederen, hagitx higitzailea izan den joerari, dogmatismoari, alegia. Kamarilla, teoria, frakzio edo korrante batekin lerrotu baino geure praxiari eman diogu lehentasuna. Kontzeptualizazio, teoria, ideia eta egile batzuen eragina atzematen ahal da gure ibilbidean zehar, jakina, eta oso argia izan da, halaber, hainbat esperientzien inspirazio ahalmena guregan, baina nagusitasuna gure borroka eta gure erroka eta esperientziek izan dute. Gure praxia lehenetsi baitugu dogmatismo ortodoxoen gainetik.

55 Laclau, Ernesto; Los fundamentos retóricos de la sociedad, prefacio a la edición inglesa, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2014, 13. eta 14. orrialdeak

Honek hainbat tentsio ekarri ditu, aipatu ortodoxien eragina nabarmena izan delako. Askotan, gainera, ortodoxia horiek unibertsaltasunaren ikurra hartu dute gure *anomaliaren* kontra, nazionalismo burges txikian kokatzen gintuztelarik benetako iraultzaren izenean. Gure txikitasunean ulertzen ez genuen unibertsaltasunaren izenean ugaldu diren kritikak goitik behera etorri dira, potere posizioetatik (estatu eskalatik, esaterako). Orain ere halako mantrak bilakatu dira batzuen diskurtsoaren (esanahi Laclautarran) oinarri. Finean, haiek, kosmopolitak, munduko hiritarrak, ez-nazionalistak, aurreratuak, jende ilustratua, gure gaintik daude, gu nazionalista, arkaizista eta partikularretan itotakoak baikara.

Errepikatzen den joera da ortodoxiaren izeneko kritika: nazionalista burgesak, burges ttikiak, fokistak, denetarik esan digute, ortodoxia ezberdinen izenean. Gertatu da, gauzak horrela, ortodoxia baten kritikatik gu beste ortodoxiaren izenean kritikatzeara. Errusiar Panpin jokua zelakoan, edo. Ikusi besterik ez dago ortodoxiek nola hartu zituzten ETaren sorrera, bere ibilbidea, herri mugimenduen protagonismoa, estatu mailako eskala irentsi ez izana, erreformaren errefusa eta, finean, ibilbide luzean aurre egindako apostu handienak. Oso esanguratsua da, bestalde, zatiketa askotan ortodoxia horiekiko atxekimenak izan duen nagusitasuna, askotan estatu mailako eskalaren lehenespenez batera.

Gure arazo historiko batzuen iturria ere bada ortodoxia horien eragina, geure praxiari lehentasuna emateko hautua ez baitugu beti behar bezala gauzatu. Harrigarria da, gauzak honela, batzuek ortodoxia zahar edo berriak bilatzea ezker abertzaleak bere *esentziak* galdu dituela aipatuz, **ortodoxia-*rekiko distantzia*** esentziarik ez baina **gure mugimenduaren nortasun ikurra** izan delarik.

Maila batean, esan dezakegu Euskal Herrian ere ezker ortodoxo fosilizatuetik haustura bilatu zela, teorizazioan baino praxia berritzailean. Hor kokatu behar dugu ezkerreko independentismoaren sorrera, ETaren abiatzea, herri mugimendu berrien fenomenoaren etabar. Nekez ulertzen ahal da **euskal matxinada**⁵⁶ haren eragina ortodoxietatik hartutako distantziari erreparatu gabe.

56 **Ikus matxinada honen inguruko Iratzar Fundazioaren testua: Haustura demokratikoaren aldeko borrokaren ikasgaiak: http://iratzar.eus/images/dokumentuak/sakontzen/haustura_demokratikoaren_aldeko_borrokaren_ikasgaiak.pdf**

Intsubordinazio zabala eta aldeanitzetako izan zen ezker abertzale-independistentaren sorrera. Intsubordinazioa espainiar eta frantziar estatu eta beren nazionalismo banalen aurrean, instubordinazioa bertako jauntxoen aitzin, baita intsubordinazioa fosilizatutako ezkeraren aurrean ere. Gaur egun espainiar ezkeran agertzen diren eztabaida batzuk duela harkada batzuk lehertu ziren gurean, gurean ere gaur egun errepikatzen badira ere.

Auzi *nazionala* eta *sozialaren* arteko artikulazioaren esparruan, esaterako, aurrelariak izan ginen Euskal Herrian. **Euskal herri langilea** kontzeptu berri eta berritzailea izan zen, ikuspegi karlista-paktista-jeltzalea errotik iraultzen zuelako, espainiar nazionalismo banalean errotutako ezker espainolarekin ere hausten zuelarik. Herria eta langileria artikulatzen ziren kontzeptu horretan, aukeratutako klasearen determinismoa gaindituz.

Ortodoxiekiko tentsio honek La Lauren ekarpenak begi onez hartze-ra bultzatzen gaitu, maila batean, bederen. Hurbil gaude bere hainbat kezketatik, gure erantzunak beste batzuk izan badira ere.

Laclau gogora ekartzean, beraz, eta Laclaukiko desadostasunak aintzat hartuta, bere **apostu kritiko, berritzaile eta eraikitzaile ausarta** eta posizio horren arabera jasan zituen kritika ortodoxoak ere gogora ekarri nahi ditugu. Argi baitago ortodoxien defentsak ez diola batere mesederik eraldaketaren egitasmoari.

Ez gara oso urrutira joanen gaur egungo eztabaida edo auzi teoriko-estrategikoei testuingurutik ateratako Marx, Engels edota Leninen aipamenez erantzunez gero. Sermoietan errepikatzen diren *filisteoei eskutitza* eta halakoen argudiatze ereduak ez du mundua aldatzeko eraginkortasun handirik. Batez ere, ez direlako argudiatze ereduak, zaharkitutako erritualak baizik.

Bereziki interesgarriak dira La Lauren inspirazioak erresistentzia logikatik eraikuntzaren logikaren nagusitasunera pasatzeko gauden bidean. Ezker abertzalearen egokipenaren harira agertutako jarrera batzuek agerian uzten dute dogmatismo marxistoidera itzultzeko tentazioa beti dagoela eskura erronka politiko estrategikoei aurre egiteko heldutasunik ez duenarendako. Ez da kasualitatea estetika, kontzeptu eta fomuletan iraganera itzuli nahi izatea, finean, erresistentziaren konfort esparrura joan nahi dute berriro ere, herria beti ahoan baina herriaren gainetik abangoardia gisa lebitatzeko asmoz. Ez da kasualitatea *esentzia marxistetara* itzultzeko hainbat

proposamena erresistentzia logikaren oinarria bilakatu izana, beraz, artikulazio hegemonikoak eraikitzeke urratsaren aurreko heldutasun eza adieraziz. Nonbait, batzuek, halako erronkaren aitzin, nahiago dute atzera egin, iragana mitifikatu eta **presio talde** ttikia izateko bokaziori eutsi⁵⁷.

Gure asmoa, alta, urratsak ematea da, eta, era berezian, **eraikuntzaren logika** bazter guzietara hedatzea, horretarako elkarlan jarduerak garatuz, **burujabetze ibilbidearen** inguruko hegemonia berriak eraikitzeke. Eta bidaia honetan Laclaren ekarpenak lagungarriak izan daitezke. zalantzarik gabe.

Zuzen eta zorrotz mintzo zen elkarrizketa batean, *pista* argigarriak eskainiz, Heriok laster harrapatuko zuela ez zekielarik:

Gai globalagoi dagokienez, Latinoamerikak datozen urteetan izango duen erronka nagusia printzipioz elkartzen zailak diren bi ideia uztartzen asmatzea da: autonomiaren printzipioa eta hegemoniaren printzipioa. Sistema demokratiko bat ezin da hedatu eskaeren areagotze kateak ugaritzen dituen sistamarik ez badago. Horixe da autonomiak dakarrena. Baina, aldi berean, masen borondatearen forma autonomo horiek adierazle zentral batzuen inguruan bateratzen ez badira, sekula ez da epe luzeko ekintzarik egongo. Europako mugimendu libertarioei dagokienez, bada biziki kezkatzen nauen gauza bat: ia soilik autonomiaren momentua nabarmentzen dute. Baina, Estatu alternatibo bat eraikitzeke borondaterik ez badago, borondateak urtzen joango dira. Beste muturrean, hegemoniaren momentua soilik nabarmentzea eta autonomiaren momentua baztertzea mugimendu sozialen autonomia ukatzen duen hiperpolitizismo batean erortzea da. Hori da dilema: nola bateratu dimentsio horizontala eta dimentsio bertikala⁵⁸.

AZKEN OHARRAK

Fernando Manuel Suarezek hiru esparru aipatzen ditu zeintzuetan Laclaren obra hartu eta eztabaidatu baitira. Honako hauek dira, maila teoriko-

⁵⁷ Laclau, Ernesto; *Política e ideología en le teoría marxista, Capitalismo, fascismo, populismo*; Siglo XXI, Madrid, 1986, 155. orrialdea.

⁵⁸ Entrevista con Ernesto Laclau, <https://www.pagina12.com.ar/diario/el-pais/1-224931-2013-07-21.html>

kontzeptualan, ikerketa agenda gisa eta egitasmo politiko moduan⁵⁹. Hirurak dira garrantzitsuak guretako.

Gure gogoeta une historiko zehatzean kokatzen da, zeinean ezker abertzaleak izugarritzko berrikuntzari egin baitio aurre. Aro berria ireki nahi dugu, erreferentzia nagusia ordenu politiko berri baten eraikuntza izanen duena. Aro hau **independentziaren zerumuga-aroa** gisa ezaugarritu dugu, **hautabide independentista hegemonikoa bilakatu nahi dugularik**.

Testuinguru honetan, erresistentziaren beharra enoratu gabe, eraldaketaren gauzaperari eman nahi diogu lehentasuna. Honek egokipen erronkak jartzen ditu gure aurrean, estrategian, iruditerian, mezuari, antolakuntza ereduari eta kultura politikoari. Gure praxia da, finean, egokitu nahi duguna, eta ahalegin honetan oso beharrezkoa dugu gure esperientzia eta gure irudimen politikoa hainbat inspirazioz lagundu eta osatzea. Bat gatzon Castro-Gómezen gogoeta hauekin, Zizek ere aipatzen duelarik:

Ezkerreko politika demokratiko bat ezin da izan oposizio politika husta: gobernatzeko gai izan behar da. Eta gobernatzea puntu nodalak sortzea da, berdintasun ezari aurre egingo dioten eta askatasunaren erabilera ziurtatuko duten estrategia espezifikokoak inplementatzea.

(...) Zizekek ondo kokatu zuen arazo hori. Bere burua “alternatibo” edo ezkertiarizat daukan jende askok nahiago izaten du sistemaren ertzetan bizitzearen erosotasunean babestea, ordena moral berri bat sortzeko zeregin zailari ekitera ausartu beharrean, zeren eta, hala eginez gero, beren buruaz daukaten “marjinal” irudia galduko bailukete. Badira alderdi ezkertiarrek beti oposizioan egotera etsitzen dutenak, beren porrotaren inguruan dantza egiten espezializatzen direnak, egunen batean gobernatu beharko balute ez bailukete jakingo zer egin⁶⁰.

Bide honetan, Laclauen ekarpenak -Suarezen eskema jarraituz- gure trama kontzeptualan, azterketa kritikoa eta egitasmo eta strategiaren garapena emankorrek izan daitezke.

⁵⁹ Suárez, Fernando Manuel; *Ni con Laclau ni contra Laclau. Críticos y críticas a La razón populista, Identidades, número 9 año 5, diciembre 2015, 64-81.*

⁶⁰ Castro-Gómez, Santiago; *Revoluciones sin sujeto...*, 325. orrialdea.

Berrikuntza-egokipen-birziklapen erraldoi honetan, hasteko, onuragarria da teoria eta jardueraren arteko Laclauren gogoeta gureganatzea. Berak oroitarazten zigunez⁶¹, kategoria teoriko-politikoak ez daude soilik liburuetan, diskurtsoen parte dira eta, berez, jendarte instituzio eta operazioetan eragina dute.

Aski artifiziala litzateke, gurean ere, bereizketa sinplistaren terminoetan pentsatzea, berrikuntza teorikoa estrategia berriaren implementazioaz korapilatuta agertzen delarik. Ez da kasualitatea emandako urratsaren inguruko teorizazio ahalegin sakon eta emankorrenak egokipena abiatu ondotik edo gertaeren une berean etorri izana. Teoria eta praktikaren arteko uztarketa konplexu honi praxia deitzen diogu, eta egokipen estrategikoak praxiaren moldaketa izan behar du helburu derrigorrez, emankorra izan nahi baldin badu.

Berriz esanen dugu, bukatzeko: kontua ez da Laclauren erantzun guzietzat egitea, galderak mahai gainean jarri izana nahiz erantzun berriak bilatzeko asmoa gureganatzea baizik. Eta horretan, aipatutako ñabardurez, Laclaurekin gelditzen gara hain kaltegarri izan diren eta diren etsipen eta ortodoxia dogmatikoen gainetik.

Addiorik ez, Ernesto Laclau!

Floren Aoz, Iruñea, 2016ko abendua.

61 “Laclaurentzat, teoria politikoaren eta praktika politikoaren arteko bereizketa <<operazio artifizial bat da neurri handi batean >>”. Laclau, Ernesto; “Introduction”, *The Making of Political Identities*, Verso, New York-London, honako honetan aipatua: Critchley, Simon; Marchart, Oliver; *Introducción, Una vida en política*; Hainbat Egile; Laclau, *aproximaciones críticas a su obra*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2008, 16. orrialdea.



Andoni Olariaga Azkarate

(Berriz, 1984)

Filosofian lizentziatua. Erlatibismoari buruzko tesi doktora bukatzen ari da EHU. Modernitatearen auziaz (Jakin, 2009) idatzi zuen Jon Jimenezekin batera. UEUko filosofia sailburu izandakoa. 'Euskal herriko pentsamendu kritikoa XX-XXI.mendean' graduondokoaren sustatzaile eta irakasleetako bat. Gara egunkarian kolaboratzaile izan zen

irritzi sailean. Lapiko Kritiko webguneko kidea da eta hAUSnART aldizkari-ko zuzendari ohia. Jakin aholkularitza taldeko partaidea. Independentzia helburu (Txalaparta, 2015) idatzi du beste autore batzuekin batera.

Arrazoi populista

Andoni OLARIAGA AZKARATE

TEORIA POPULISTAREN JAIOTZA

1960tik aurrera, politikako kontzeptu basikoak desagerrarazteaz edo birmoldatzeaz batera agertzen zaizkigu teoria politiko berriak. Horietako bat, garrantzitsuenetakoa, prozesu sozialak eta identitate politikoen eraikuntza azaltzeko baliagarria, Ernesto Laclaren populismoaren teoria da. “Herria”ren eraikuntza ez da, Hardt/Negriren multitudinearen formazioarekin nahastu behar. Laclarentzat, multitudinearen eraikuntza emozioen gorespenarekin eratzen da. Laclaren ustez multitudeek haien kideen inteligentzia maila gutxitzeko efektua eragiten dute. Herriaren eraikuntzaren teoriak ez du logika berarekin pentsatzen identitate politikoen eraikuntza. Laclaren ustez, talde antolatuak egotea ez da aski herri bat sortzeko, borondate kolektibo bat sortzeko. Ez da aski helburu komun bat izatea, ezta ere. Zer falta da?

“La identificación con alguna imagen cargada emocionalmente de la identidad del grupo como tal” (Laclau, 2007:73).

1963an Ernesto Laclau “Partido Socialista de la Izquierda Nacional” alderdian sartu zen, eta 1968ra arte alderdiko liderretako bat izan zen. Garai horretan jaso zuen, berak dioenez, lehen “hegemonia” lezioa. Hemen aipatzea eta azaltzea garrantzitsua izango da, bere populismoaren teoria hobeto ulertzeko. 1966ko Argentinako Estatu kolpeak antagonismo berriak sortu zituen: peronismoak establishment-aren kontrako sinboloei eta aktore politiko anitzi zerumuga alternatiboa eskaini nahi izan zien. Ordurako, langile klasearen interesak defendatuko zituen borroka sozialistaren aldeko eskaera demokratikoen hegemonizazioa bultzatu behar zela aldarrikatzen zuen Laclauk. Alderdiaren ideologian, aldiz, langile klasearen interes naturalak zeudelako ideia erredukzionistak ziren nagusi. Horrela, bada, Laclauri Argentinako populismoak beste zerbaite irakatsi zion; hain zuzen, aliantza politikoak ez zirela klaseen mugen artean egin behar, baizik eta haietatik haraindi, borroka unibertsal handiagoa hegemonizatzeke esfortzua egiteko.

HEGEMONIA KONTZEPTUA, ERDIGUNEAN

Hegemonizazio prozesua zer den ulertzeko, lehenik eta behin hegemonia bera zer den ulertu behar dugu. Antonio Gramsci sardiniarrak formulatutako hegemonia kontzeptuak marxismo klasikoaren ideia esentzialista batekin apurtzen zuen, hain zuzen, subjektua a priori delako ideiarekin. Ernesto Laclauk, kontzeptu hori erdigunean jarriz, marxismoaren tradizio gramsciarra indartu nahi zuen, zalantzarik gabe. Hori eginez, marxismoaren auresuposizio determinista batzuk kanpo utzi zituen, bigarren internazionalakoak, esaterako. Horrela, hegemonia kategoriaren bidez, oinarri ekonomikoa/gainegitura ideologiko politikoa dikotomia marxistarekin apurtu zuen (non oinarri ekonomikoak beti baldintzatuko baitzuen absolutuki gainegitura). Hegemonia, hortaz, soziala denaren instituzioa da, identitate politikoak artikulatzen direneko lehen mailako eremua; hau da, ez dago atzeko errealitaterik, lege ekonomikoak kasu. Horrek ondorio batera garamatza: hegemonia soziala denaren konstitutiboa baldin bada, orduan aktore politiko bakar batek ere ezin du gizartean posizio pribilegiatu bat aldarrikatu. Klaseak ere bere leku (pribilegiatu) ontologiko hori galtzen du, hortaz. Identitate politikoak nozio askoren inguruan eraikitzen baitira: generoa, hizkuntza, nazionalitatea... Hortik zera ondorioztatu dezakegu, bada, borroka desberdinak talde baten alde zurretiko pribilegio ontologikorik gabeko artikulazio berri batzuetan asmatu behar du, ezinbestean.

EKIBALENTZIA KATEAK ETA ANTAGONISMOA

Askotariko taldeen eskaeren autonomia mugimendu handiago baten baitan artikulatu behar da, “ekibalentzien katea” izenez ezagutzen duguna Laclaren teoria politikoan. Zer da ekibalentzien katea?

Si la demanda [x] es satisfecha, allí termina el problema; pero si no lo es, la gente puede comenzar a percibir que los vecinos tienen otras demandas igualmente insatisfechas –problemas de agua, salud, educación, etcétera–. Si la situación permanece igual por un determinado tiempo, habrá una acumulación de demandas insatisfechas y una creciente incapacidad del sistema institucional para absorberlas de un modo diferencial (cada una de manera separada de las otras) y esto establece entre ellas una relación equivalencial. (Laclau, 2007:98)

Identitate politikoaren eraikuntzarako antagonismo kontzeptua ere ezinbestekoa da. Antagonismoa zer da? Prozesu bat, non eskaera diferenteak edo

diferentzia diskurtsiboak ekibalentzia kate batean homogeneousatzen diren, kanpoko zerbait negatiboaren kontra. Alegia, x zapaltzailearen aurrean, ekibalentzia kate bat osatzen duten aktore politiko desberdin guztiek diferentziak ezabatzen dituztenean zapaltzailetik bereizteko, bere burua mugimendu homogeneo bezala aurkeztuz. Harreman hori da antagonismoa.

Hegemonia da, hortaz, formazio hegemoniko jakin batek diferentzia jakin batzuetatik bloke historiko bat eraikitzeke saiakera (eta lorpen) diskurtsiboa. Gizartea absolutu bezala eratzea inposibleaenez, etengabeko artikulazioa da, etengabeko hegemonizazio prozesua. Gizartearen inposibilitatea Laclaren konstruktibismoaren ezinbesteko osagaia da, beraz. Identitate politiko ororen eraikuntzak azken identitate edo subjektu horren hutsu-nearen eraginez egiten diren eraikuntzak dira. Ez dagoenez identitate edo subjektu apriorizko eta fundamentu absolutudunik, etengabe egon behar dute identitate politikoeke eraikuntza lanean.

Hegemonia prozesua, laburtuta, kontzeptu edo gai unibertsalen inguruan esanahi partikular bat finkatzen duen prozesua litzateke, indar sozial batek lidergo politiko, intelektual eta moralaren bidez lortu dezakeena. Laclaren hitzetan:

El argumento que he desarrollado es que, en este punto, existe la posibilidad de que una diferencia, sin dejar de ser particular, asuma la representación de una totalidad incommensurable. De esta manera, su cuerpo está dividido entre la particularidad que ella aún es y la signi cación más universal de la que es portadora. Esta operación por la que una particularidad asume una signi cación universal incommensurable consigo misma es lo que denominamos hegemonía. (...) La identidad hegemónica pasa a ser algo del orden del signi cante vacío, transformando a su propia particularidad en el cuerpo que encarna una totalidad inalcanzable. (Laclau, 2007:95)

HERRIAREN ERAIKUNTZA ETA EMANTZIPAZIOA

Laclaren ardura, beti ere, emantzipatzailea da. Hau da, nola eman identitate berrieke botere politikoa modu emantzipatzaile batean? Hor sortzen da unibertsalaren eta partikularren arteko harremanaren arazoa. Horretan sakondu ahal izateke, herriaren eraikuntza edo populismoaren teoriaren oinarriak begiratu behar ditugu. Hiru dimentsio hartu behar dira kontuan aktore hegemoniko bat eraikitzeke:

1. Eskaera desberdinen unifikazioa kate ekibalentzial batean.
2. Gizartea bi zatitan banatuko duen barruko frontera baten konstituzioa, hau da, antagonismoa.
3. Harreman baliokidea baino zerbait gehiago den identitate popular baten eraikuntza kate ekibalentzialen finkapenarekin.

Demanda demokratikoen eta demanda popularren artean bereizketa egiten du Laclauk puntu honetan. Alegia, bi modu daude soziala dena eraikitze-ko: edo partikularitasunaren (demanda partikular bat, esaterako, hizkuntza eskubideak errespetatu) baieztapenaren bidez, zeinaren lotura beste partikularitasunekiko natura diferentzial batean oinarritzen den; edo, partikularitasunaren klandikazio partzial batekin, parte guztiek komunean dutena aldarrikatuz. Herria eraikitzeke bigarren moduak frontera antagoniko bat eraikitzea inplikatzeko du; lehenak, berriz, ez. Lehena, Laclauentzat, diferentziaren logika litzateke; bigarrena, ekibalentziaren logika. Kasu honetan, komunean dagoena edo unibertsala ez da sozialaren fundamentua; edukiz hustua dago, eta sozialaren fundamentazioaren inposibilitatea bilakatu da.

Laclauentzat, adibide bat jartzeko, Iraultza Frantsesean herria bihurtu zen eraikuntza ekibalentziala: ondoren, tentsioa kate ekibalentzial horren unibertsaltasunaren eta haren maila desberdin bakoitzaren eskaera partikularren artekoa izan zen.

Todo el período revolucionario está marcado por la tensión –entre otras– entre las demandas de los trabajadores y el discurso equivalente de la democracia popular radical” (Laclau, 2007:105).

Soziala tentsio horren lekua baino ez da. Identitate sozial oro eraikitzen da diferentziaren eta ekibalentziaren, edo partikularren eta unibertsalaren, arteko elkargunean.

Prozesu hegemonikoetan, eskaera, talde edo identitate partikular bat egiten da kargu unibertsaltasun huts edo absente hori ordezkatzeko. Ezein partikularitasunek ezin badu ere dimentsio unibertsal hori bete, ezinbestekoa da efektu hegemonikoa lortzeko proiektu politiko orok orientazio edo joera unibertsaltzaile hori izatea.

BIBLIOGRAFIA

CRITCHLEY S. eta MARCHART O. (2008) *Laclau, aproximaciones críticas a su obra*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

LACLAU, E. (2007) *La razón populista*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.



Jon Azkune Torres

(Santurtzi, 1988)

Zuzenbidean Lizentziatua (EHU). Politika eta Administrazio Zientzian Lizentziatua (EHU). Euskal Nazionalismoa XXI. Mendean Masterra (EHU). Egun Eskoziako, Kataluniako eta Euskal Herriko burujabetza eskaeren ikerketa burutzen (Doktorego Tesia).

Laclau eta Mouffe Eskozian

Jon AZKUNE TORRES

1) Eskozia eta Essexeko Eskola: hainbat argipen

Urte luzez Irlandar pitxerra heldu ostean, azken urteotan Eskoziar whiskya gurera ere heldu dela nabaria da. Gutxieneko perspektiba historikoa duen orok onartuko du euskal errepublikarrok irlandar abertzaleekin izandako harreman politiko, historiko eta pertsonal estua. Politikoki eta akademikoki “deabru horien gerizpean”¹ eredu etniko, “biolento” eta baztertzailer bat irudikatu izan da². Hauen aurrean 90. hamarkadan Quebec, Katalunia eta Eskoziako adibide unibertsalista, zibiko eta post-soberanoak eredu moduan aurkezten ziren (Keating, 1996). Azken urteetan aldiz, klaseko isilak errebolta bihurtu diren garaiotan, ezinbesteko zaie rockero zaharrei musika tresna berrien melodia taxutzea³.

Testuinguru horretan, urteetan zehar gure artean ezaguna izan den eskola baten loraldia ere antzeman dezakegu. Laclau eta Mouffek gidatutako Essexeko Eskola “modan” dago⁴ eta nonahi entzuten dira adierazle hutsak, antagonismoa eta hegemonia bezalako kontzeptuak. Bi joera hauen artean egokitu zaigu Laclau eta Mouffen tresneria teorikoa Eskoziako independentismoaren kasura aplikatzea.

Horretarako aipatu autoreen ibilbidea eta eskoziar historia garaikidea elkartzea proposatzen dugu. 1985. urtean Hegemonia eta Estrategia Sozialista liburuan euren ikuspegi teoriko “post-marxistaren” oinarritzko kontzeptuak garatu zituzten. Garai berean Thatcherismoaren eraginez, Eskozia eta Ingalaterraren arteko banaketa geroz eta handiago bihurtzen hasi zen. Lehenengo zatian beraz bi prozesuak elkarrekin azalduko ditugu. 90/2000 hamarkadetan zehar Laclau eta Mouffek garai hartan ezarritako printzipio teorikoak gehiago garatu zituzten. Populismoa, erretorika edota politiko-

1 Gogoratu Espainiar telebistetan maiz ikusi dugun Brad Pitt eta Harrison Forden “La sombra del Diablo- The Devil’s Own” pelikula.

2 Aipatu banaketak ez dira ez politiko onargarriak ezta akademikoki jasagarriak.

3 Laclau eta Mouffen teoriaren hainbat elementu euskal kasuan azken hamarkadetan oso era nabarian eraman dira praktikara. Hala ere, azken urteetan “stablishmentaren” aurka era kritikoa indartzen ari diren hainbat mugimendu “populistaren” melodia gurean (EAE-ra batez ere) sintonizatzeko arazoak egon dira.

4 Independentismo berri baten eraikuntza, eskuineko populismoaren gorakada edota Podemosen sorrera bezalako prozesu ezberdinak eskola honen betaurrekoekin ikustea horren adierazle dira.

tasunaren inguruko lan oparoak dira besteak beste aipagarrienak. Aurreko lanen garapen eta zehaztapena besterik ez dira kontzeptu asko jadanik 80. hamarkadan landu zituztelako. Bigarren zatian azken kontzeptu hauek Eskoziako independentismoaren hazkundearekin batera azalduko ditugu.

Jadanik ikuspegi teoriko honek izan ditzakeen hainbat bertute eta muga aipatu dira. Ez dugu gure lana horretan oinarrituko, hala ere, aldez aurretik izan ditzakeen gabezien inguruko aipu bat egitea beharrezkoa da. Gure ikuspegitik errealitatearen izaera diskurtsiboa ezin da bere elementu materialetatik guztiz banatu. Hau da, Laclau eta Mouffek aldarrikatutakoaren kontra errealitatea ez da guztiz diskurtsiboa, praktika sozial guztiak semiotikoak diren arren, ezin baitira euren kanpo elementu materialengandik banatu (Jessop, 2008:238-239). Beste era batera esanda, diskurtsoen eta identitate politikoen eraikuntza maila materialagatik guztiz baldintzatuta ez dagoen arren, aldez aurretik horiek arrakastatsuagoak edo posibleagoak izatea ahalbidetzen dituzten aukerarako baldintzak kontuan hartzea ezinbestekoa izango da.

Gure ustez momentu zehaztutan, batez ere krisi garaietan eta politikoki salbuespenezkoak diren momentuetan, identitate politikoen eraikuntzarako tresna teoriko interesgarria eskaintzen digute (Azkune & Zubiaga, 2017). Azterketak burutzean edota aldaketa politikoak diseinatzerakoan, “nola?” galderari erantzuteko elementu garrantzitsuak eskaintzen dizkiguten arren, “zergatik?” azaltzeko beste korrante batzuen ekarpenak ezinbestekoak izango dira (Finlayson & Valentine, 2002:15). Hori kontuan izanda, ikus dezagun ba “nola?” artikulatu den identitate politiko independentista berria Eskozian.

2) Eskozia eta Thatcherismoa (1979-1997): antagonismoa, kanpo eratzaila, logika diferentziala eta ekibalentziala.

Eskozia eta Ingalaterraren arteko batasuna 1707. urtean sinaturiko Treaty of Unionen bidez burutu zen. Aipatu akordioak, “Batasun Estatu” bat eratu zuen Britainia Handiarentzat parlamentu bakarra ezarri baina eskoziar gizarte zibilaren eta administrazioaren elementu ugari mantenduz, besteak beste, justizia sistema, tokiko gobernuak eta hezkuntza sistema (Keating, 1996:197-198). XIX. mende amaieratik aurrera Home-Rule edo autonomia-aren aldeko mugimendu eta eskaera ugari egon dira horietariko asko ezkerreko indarrek eta laboristek babestutakoak (Bleiman & Keating, 1979).

5 “Union State”

Lehenengo alderdi independentista 1928. urtera arte ez zen sortu, autonomiaren aldeko mugimenduen etengabeko porroten ostean hain zuzen. 1934. urtean SNP eratu zen arren urte luzez bazterreko aukera politikoa izan zen. 70. hamarkadako krisiaren testuinguruan hasi zen independentismoa indartzen eta britainiar estatuaren erreforma proposamenetan eragiten. Testuinguru horretan kokatzen dugu Eskoziako historia garaikidearen inflexio puntu garrantzitsuenetako bat. 1979. urtean autonomia lortzeko prozesua martxan jarri arren azken orduko baldintza teknikoengatik porrota egin zuen⁶. Kontrara, urte horretan bertan Margaret Thatcher heldu zen gobernura eta momentu horretatik aurrera Eskozia eta Ingalaterraren arteko ezberdintasunak era nabarian handitu ziren. Thatcherren lidergoan botere blokearen berrantolaketa bat burutu zen aurreko hamarkadetakoa “adostasun sozialdemokratarekin” hautsiz. Hallek adierazten digun moduan, Thatcherrek neoliberalismoaren printzipioak kontserbadurismo organikoaren filosofia zaharrekin artikulatu zituen muga politiko dikotomiko berri bat ezarri⁷ (Hall, 1979, 1980, 1987, 1988). Alde batetik, “gerra osteko eredu soziala”, “kolektibismoa”, “sindikatuaren gehiegizko boterea”, “nazionalismo periferikoak” edota “estatalismoa” muga horren kanpoaldea uzten ziren bitartean (haiek), Thatcherismoaren Britainiartasun berrian “askatasuna eta ekimen indibidualak”, “britainiar herriaren berritze moral eta politikoa”, “legea eta ordenaren berrezarpena”, “lidergo zorrotz” eta “Estatu indartsu” batekin artikulatu ziren (gu) (Howarth, 1997:134).

Ingalaterran⁸ oinarrituriko hegemonia kontserbadore horren arrakastak kontrako joera izan zuen Eskozian. Thatcherismoa “kanpo eratzaille” moduan erabilia (haiek) (Mouffe, 1999:15) eskoziar identitatea (gu) “printzipio sozialdemokratetan” oinarrituz artikulatu zen. Horretarako diskur-


6 Autonomiaren aldekoek botoen gehiengoa lortu arren (%51.6), azken momentuan errolda osoaren %40aren babesa galdu zen eta baiezko botoak %32.8-ra besterik ez ziren iritsi.

7 Laclau eta Mouffen teoriaren elementuak azaltzen ari garen neurrian Thatcherismoaren elementu diskurtsiboak azpimarratzen ari gara. Hala ere, ezin dugu ahaztu artikulazio diskurtsibo horren oinarri materiala. Besteak beste, metaketa erregimenean, klase sozialen berrantolaketan eta aberastasunaren banaketan egondako aldaketak azpimarratu genitzake.

8 Hegoaldean batez ere.

9 Exterior Constitutivo. Laclau eta Mouffen teoriaren oinarritzko kontzeptua da. Honen arabera “Gu-a” kanpoaldean kokatzen den “bestearen” aurka era dikotomikoan eraikitzen da. Honen bi adibide jarraian ikusi ditugu, lehenik eta behin Thatcherrek batez ere Ingalaterran era arrakastatsuan egindakoa eta honen kontra Eskozian buruturikoa.

tsoan urteetan zehar zentzu komunekoak ziren hainbat ideia artikulatu ziren, besteak beste, “berdintasunaren ideia”, “kolektibismoarena”, “Eskozia borrokalaria eta sozialistarena”, “hezkuntza sistema garatua izatearena” etab. (McCrone, 1992:88-120).



► **Thatcherismoa:** merkatu librea, ordena publikoa, kontserbadurismoa

► **Eskozia “sozialdemokrata”:** berdintasuna, kolektibistagoa, zerbitzu publikoen aldekoa etab.

Hauak, dimentsio “makro” bat izan arren gobernuaren neurrien aurkako hainbat gatazka sozialetan erroturik zeuden. Dinamika hau azaltzeko liburu honen oinarri den marko teorikoaren hainbat elementu berreskuratuko ditugu. Laclau eta Mouffen ikuspegia jarraituz, eskaerak¹⁰ banaturik edo “ezberdintasunaren logika demokratikoa” jarraituz artikulatu daitezke edota kontrara “ekibalentziaren logika herritarraren” bidez banaturik dauden eremu horiek elkartu eta artikulatu daitezke¹¹ (Laclau, Mouffe, 1987: 218-228). Ekibalentziaren logika, espazio politikoaren sinplifikazioa dakarren logika den bitartean, diferentziaren logika honen hedapenaren eta konplexutasunaren adierazlea da (Laclau, Mouffe, 1987: 223). Ezberdintasuna nagusitzen denean, eskari ezberdinek euren izaera korporatiboa mantendu eta era indibidualen jardungo dute estatu egiturekiko logika “bertikal” bat mantenduz. Botere publikoek horietariko batzuk ase, beste batzuk sistemaren logikara moldatu eta beste batzuk baztertu eta ukatu egingo dituzte. Logika horrek “herria” artikulatzea ekiditen du eta subjektuen banaketa eta indibidualizaziorako joera sustatu. Jendartea geroz eta konplexuagoa den neurrian eremu sozialak eta horrenbestez antagonismorako eremuak biderkatuko dira. Hala ere, Riechmannek eta Fernández Bueyek esaten diguten moduan ezin ditugu zatikatze soziala eta pluralismoa nahastu, euren hitzetan:

¹⁰ Edo “borroka eremuak”: autogobernua/independentziaren aldekoak, etxebizitza publikoen defentsa, borroka feminista edota sindikatuen borroka adibidez.

¹¹ Ez da inoiz logika ekibalentzial oso bat edo logika diferentzial oso bat egongo beti poloen arteko tentsioa mantenduko delako.

“no se debe confundir la fragmentación social con el pluralismo; en el sentido de que el proceso de integración indirecta, es decir, de fragmentación social, contribuye de manera notable a la forma contemporánea del divide e impera” (1994: 189).

Eskaera ezberdinen partikularismorako erabateko joerak hauen despolitzaziora eta “teknifikaziorako” joera sustatu dezake. Zer gertatu da mundu mailan eta zehazki Europar Batasunean azken hogeita hamar urteetan? Neoliberalismoaren hegemoniaren ondorioz, demokraziaren pribatizazio bat egon dela (Goikoetxea, 2015:35) eta sistema post-demokratiko (Crouch, 2004) eta post-politikoetara (Mouffe, 2010: 75-78; Zizek, 2010:33-36) hurbildu garela. Horren ondorioz, aldarrikapen ezberdinen politizazio eta artikulazioaren ordez banaketarako eta despolitzaziorako joera nagusitu da. Oinarri ideologikoak dituzten gatazka eta antagonismoak, “adituen kudeaketaren” esku uzteko joera nagusitu da. Zizeken hitzak zuzenean hartuz:

“De esta manera, la post-política subraya la necesidad de abandonar las viejas divisiones ideológicas y de resolver las nuevas problemáticas provistos de la necesaria competencia del experto y deliberando libremente en función de las necesidades y exigencias puntuales de la gente” (2010:33)

Hala ere, logika diferentzial demokratikoa guztiz nagusitzea ezinezkoa izango da, “arkadia” autoerregulatu perfektu eta zoriontsua ezinezkoa delako eta beti antagonismoaren politizaziorako aukera egongo delako. Eskozia eta Thatcherismoaren adibidea berreskuratuz “ekibalentziaren logikaren” eta “herriaren eraikuntzaren” (Laclau, 2005) adibide argi bat ikus dezakegu. Gogora dezagun “ekibalentziaren logikaren” bidez, sistemak ase gabeko eskaera ezberdinak euren artean elkartu eta “kate ekibalentzial” bat osatzea ahalbidetuko litzatekeela “logika herritarra” nagusituz.

Britainiar Gobernuaren politika neoliberalak Eskoziarren aurkakotasun zuzena jaso zuten eremu anitzetan gatazka sozialak sortuz. Besteak beste, etxebizitza publikoen pribatizazioak, desindustrializazio prozesu sakonak, autogobernuaren ukapenak edota “poll tax” izeneko zerga bereziak herritarren gehiengoaren sumina piztu eta artikulazio ekibalentzialari ateak ireki zizkion. Eskozian Alderdi Laborista nagusi zen bitartean, Alderdi Kontserbadorearen¹² gobernuaren ondorioz Eskoziarren borondatearen aurkako

12 Ingalaterran zuen babes handiari esker gobernatzen zuen.

hainbat politika aurrera atera ziren. Britainiar gobernuak ezin zituen jendartean nagusi ziren eskaera politiko ezberdinak era bertikal batean ase, eta horren ondorioz hauek elkarren artean “era ekibalentzial” batean artikulatu ziren komunean zutena lehenetsiz (Gobernu Kontserbadorearen aurkako jarrera) eta identitate “herritar” berri bat eraikiz (gu). Kontuan hartu behar dugu logika ekibalentzialaren bidez ez dela hauen batuketa soila egiten, hauen izaeratik harago doan identitate politiko berri bat sortzenda¹³. “Scottish solutions for Scottish problems” lelopean, autogobernuaren aldeko eskaerak beste eskaera guztiak ordezkatzeko gaitasuna izan zuen identitate politiko berri bat sortuz. Hortaz Thatcherismoaren aurrean, ezinbesteko bihurtu zen Eskoziarren autogobernua euren borondate demokratikoaren arabera politika publikoak aurrera eramateko.

Zaila da mobilizazio logika gatazkatsua etengabe denboran maila berean mantentzea. Mobilizazioak beti dauka edo erakundetzeko edo desmobilitaziorako joera. Eskoziar kasuan autogobernua kontserbadoreen aurkako borroken aitzindari izan zen 80. hamarkada amaieran eta 90. hamarkada hasieran. Horren ondorioz, 1979. urtean autogobernu prozesuak porrot egin zuen bitartean 1997. urtean Tony Blairren gobernu Laboristaren lehen neurrien artean Eskoziako “devolution” edo autogobernurako botere emate prozesua martxan jartzea izan zen¹⁴. Honek Eskozian babes handia jasotzeaz gain lehenengo aldiz erakundetze demokratikorako hastapeneko pausoak ematea suposatzen zuen¹⁵. Garai gatazkatsu horren ostean, eskoziar zentzu komunean, balore sozialdemokratoetan oinarrituriko diskurtso eta printzipioak finkatu ziren Ingalaterrarekiko distantzia eta ezberdintasun politikorako oinarritzeko lehengai diskurtsibo bihurtuz. Joko zelai horretan kontserbadoreak Eskoziako politikaren ardatzetatik kanpo geratu ziren bazterreko paper bat jokatu. Hortik aurrera beraz lehia Laboristen eta SNP-ko independentisten artean kokatzen hasi zen.

13 Helburua ez da jadanik existitzen diren borrokak elkartzea eta diskurtsiboki errealitatea era “objektiboan” deskribatzea baizik eta banatutako eremuak elkartzea euren izaera “partikularretik” harago doan identitate berri baten identifikazioaren bidez.

14 Aipagarria da Eskoziar Laborismoaren koadro politiko garrantzitsu asko bere gobernuan sartzea, besteak beste Blairren ostean Lehen Minisitro bihurtu zen Gordon Brown.

15 2007. urtera arte aldiz Alderdi Laborista izan zen Eskozian nagusi.

3) Independentzia erreferenduma eta independentista berrien sorrera 1997-2014: hegemonia, artikulazio populista eta honen logika erretorikoa.

Devolution osteko lehen hamarkadan (1997-2007) Laborismoa zen nagusi eremu guztietan eta urteetako joera jarraituz hauteskunderaz hauteskunde lehen indarra izaten jarraitu zuen. SNP bestalde bigarren indar moduan egonkortu zen baina urteetako eztabaida eta barne zatiketaren ostean independentzia lortzeko estrategia bateratu bat adostea lortu zuen¹⁶. Alde batetik eremu ezberdinetan independentziaren aldeko ikerketa eta argudio politikoak lantzea sustatu zuten. Horien artean Alex Salmond-en lehentasun nagusia “The Economic Case for Independence” deiturikoa zen, hau da, independentziaren aldeko argudio ekonomikoen lanketa. Bestetik, independentzia lortzeko hipotesi estrategikoen inguruko adostasuna lortu zuten. Helburua Eskoziar Parlamentuko hauteskundeak irabazi eta horren ostean independentzia erreferendum bat deitzea zen. Autogobernuarekin batera ezkerreko indar independentista berriak agertu ziren arren, Scottish Socialist Party eta Green Party¹⁷ izanik garrantzitsuenak, euren indarra oso mugatua zen SNP-rekin¹⁸ alderatuta.

Devolution prozesuan hauteskunde sistema diseinatu zutenean, gehiengo absolutuak ekiditea eta laboristen indarra mantentzea zen xedea. Hala ere, 2007. urtean SNP-k irabazi zituen hauteskundeak gehiengo sinplea lortuz. Lehenengo gobernu independentistak ez zuen erreferenduma lortzeko babes nahikorik jaso eta eskoziarren nahi eta beharretan oinarritutako politika sozialak aurrera eramateko Londresetik inposatutako mugak etengabe salatu zituzten. Testuinguru horretan (2007-2011) ezinbestekoak diren lau prozesu nabarmendu behar dira:

16 80 eta 90. hamarkadetan barne mailan korrante eta zatiketak nagusitu ziren. Independentzia helburu estrategiko komuna izan arren, berau lortzeko taktikaren inguruan ere ikuspegi ezberdinak zeuden. “Gradualistek” lehenik eta behin eskoziar autonomia eskuratzea hobesten zuten ostean gobernu autonomorako hauteskundeak irabazita independentzia erreferendum bat deitzeko helburuarekin. “Maximalistek” Westminstererako hauteskundeetan SNP-k eserlekuen gehiengo irabazi eta zuzenean independentzia aldarrikatzea hobesten zuten. Lidergoari dagokionez ere lehia ugari egon zen, baina azkenik 90. hamarkada hasieran Alex Salmond (gradualista) nagusitu zen.

17 Alderdi honen barruan gehienak independentistak diren arren badaude honen aurka daudenak ere bai.

18 SNP ez da ideologikoki alderdi homogeneoa. Bere barnean ezkerreko sektoreak, sozialdemokratikak eta liberalagoak topa daitezke. Ardatz sozialean Eskoziako Alderdi Laboristaren ezkerreko kokatzen da (Eskoziako Laboristak aldiz Blairren Laborismoaren ezkerreko kokatzen dira).

1. Azken hamarkadetako neoliberalismoaren ondorioz mundu mailan metatutako kontraesanen eztanda. Horien artean aipatu behar da demokraziaren pribatizazioak erabaki publikoak esku pribatuetan utzi dituela Europar Batasuna izanik honen adierazle argienetakoa (Goi-koetxea, 2015:35) eta horrekin batera demokrazia liberal gehienen estatismo autoritariorako¹⁹ joera nabarmena (Poulantzas, 1978).
2. Aurrekoarekin loturik Britainiar Estatuaren eta botere blokearen krisia. Honek ordezkari krisia, alderdiekiko desafekzioa, lurralde antolaketaren krisia, zilegitasun krisia eta hegemonia krisi sakona suposatzen dute (Jessop, 2015:59-88). Honen lehenengo adierazle politikoa Laboristen hauteskunde porrota eta Kontserbadoreen garaipena izan zen. Hala ere, Britainiar estatuaren krisi organikoak sustrai ekonomiko eta politiko sakonak ditu eta Brexitarekin areagotu besterik ez dira egin (Jessop, 2016).
3. Eskoziako botere blokearen krisia. Hamarkadetan botere blokearen ordezkari izan zen Alderdi Laboristaren hauteskunde porrotak, sakoneko egiturazko hainbat arazoren adierazlea besterik ez da (Hassan & Shaw, 2012).
4. Eskoziako independentistak, eskoziar proiektu nazionalaren ordezkari moduan aurretiaz laboristek zuten rola ordezkatzeari gain, jendartearen gehiengoarentzat britainiar establishment neoliberalaren aurkako tresna eraginkorrena bihurtu ziren.


Dimentsio horiek kontuan hartuta 2011ko hauteskundeetan SNP-k inork espero ez zuen gehiengo absolutua lortu zuen. Hala ere, prozesu orok geldituneak eta jauziak ditu eta ezin dugu ulertu independentisten indartzea urteetako “indar metaketa pasiboaren” ondorio soil moduan. Hau da, ez zituzten soilik urteetan zehar pixkanaka indarrak metatu eta momentu batean independentistak inkestetan gehiengo izatera heltzean erreferenduma deitu. Momentuko erabaki eta jarduera estrategikoen bidez independentziaren aldeko jauzi kualitatiboak ematea lortu zuten, erreferenduma bera izanik horren aldeko tresna nagusia. Ikus dezagun zehazki zer gertatu zen.

2011ko hauteskundeak gehiengo osoz irabazi ostean, Eskoziako Gobernuak independentzia erreferendumaren baldintzak negoziatu zituen Britainiar

19 Estatismo autoritarioa Nicos Poulantzas teorilari marxistak jadanik 70. hamarkadan aurreikusitako joera da. Bere ezaugarrien artean hurrengoak azpimarratu daitezke: botere exekutiboa botere legegilea baino indartsuagoa bihurtzea, botere exekutiboa, legegilea eta judizialaren fusioa, alderdi politikoak erabaki ofizialen “transmisio kate” soil bihurtzea eta proiektu hegemonikoak proposatzeko ahalmena galtzea edota estatuaren segurtasun atalen indartzea (Poulantzas, 1978: 247-303).

Gobernuarekin. Kataluniako prozesuarekin alderatuta, ez zen “behetik gora” alde aurretiko aktibazio sozial indartsu baten ondorioa, elite politikoek gidatutako “goitik beherako” logika baitzuen. Erreferenduma ez zen momentuan “herritarren agendan” lehentasun nagusia eta hasiera batean gune militanteenetatik harago ez zuen pasio politiko handirik pizten. Are gehiago, independentziaren babes baxua kontuan hartuta (ez zen %30era heltzen) Alex Salmondrek independentzia Bai/Ez aukeraz gain eskoziarren gehiengoak babesten zuen “devolution-max”²⁰ aukera proposatu zuen, hiru erantzuneko galdeketa sustatuz (Sanjaume, 2015:360-361). David Cameronek aukera hori errefusatu zuen Bai/Ez galdera proposatuz. Bere ikuspegitik ezezkoak erraz irabazi eta “eskoziar afera” urte luzez ixteko aukera paregabea zen.

Kontrara, hurrengo grafikoan ikusi daitekeen moduan baiezkoaren aldeko babesa erreferendum kanpainen zehar independentisten jardueraren ondorioz igo zen.



Erreferendumak “denbora huts eta homogeneousekin” hautsi zuen, hausturarik eta krisirik ez duen denbora ez-politikoarekin (Bensaïd, 2013:35), denbora estrategikoari ateak zabalduz. Bensaïden hitzak zuzenean hartuz:


²⁰ Erabateko independentzia suposatzen ez zuen autogobernu maila altua.

“El tiempo estratégico es precisamente un tiempo roto, “kairótico”²¹, marcado por instantes propicios y oportunidad que hay que atrapar; todo lo contrario de una duración uniforme, homogénea y vacía”
(Bensaïd, 2013:54)

Antzeko logika batean Zubiagaren hitzak jasoko ditugu:

“El acontecimiento, el momento democrático no sólo es imprevisible para sus promotores, sino que su propia aparición inesperada crea la necesaria inquietud en la lógica institucional/sedimentada como para que las puertas del cambio social y político se entreabran” **(Zubiaga, 2012: 128).**

Krisi egoerak, gertakari politikoak, momentu demokratikoak sorturiko eze-gonkortasunak, artikulazio populista bat burutzeko momentu pribilegiatuak dira. Kontuan hartu behar dugu populismoa ez dela mugimendu edo orientazio ideologiko zehatz bat, “logika politiko” bat baizik (Laclau, 2005:150). Zein da Laclaren teorian populismoa eta hegemoniaren arteko ezberdintasuna? Hegemonia parte batek osotasun bat ordezkatzeko helburuarekin artikulaturiko praktika litzatekeen bitartean, populismoa hegemonia hori eraikitze logika politiko bat (beste batzuen artean) izango litzateke. Hegemonia kategoriatik orokorragoa litzateke eta populismoa hegemonia berri bat eraikitze forma bat. Hurrengo irudian sailkatuta ikus dezakegu:



Iturria: Errejon, 2011:216.

²¹ Cronos-a gertakaririk gabeko denbora egonkorra litzateke. “Kairós-a” bestalde gertakari garrantzitsuen momentua.

Zeintzuk dira beraz artikulazio populistak galdatzen dituen baldintzak?

- Laclauen aburuz, lehenik eta behin **jendartea bi eremutan era dikotomiko batean banatzea** beharrezkoa izango da (Laclau, 2005:110). Yes/No galderak zuzenean banaketa dikotomiko hori sortarazten du. Hiru erantzuneko erreferendumak aldiz (Bai/Ez/Devolution max), haustura horri ateak itxiko zizkiokkeen jendartearen gehiengoak “Devolution max” aukerara bideratuz inolako banaketarik gabe.
- Aipatu dikotomia horrek eremu sozialaren **banaketa antagonikoa eragin** beharko du (Laclau, 2005:110). Jendartearen gehiengoak arestian aipatu “Devolution-max” hobesten zuen eta horren ondorioz ez zegoen ez polarizaziorik, ez pasiorik ezta galdeketarekiko interes handirik ere ez. Kontrara, Yes/No galderak polarizazio²² antagoniko bat eragin zuzen muturreko posizioak urrunduz eta erdian zeudenak poloen alde batera edo bestera aukeratzera behartuz.
- Azkenik “eremu herritarrak” jendartean **pilaturik dauden eskaera anitzen artikulazio ekibalentzialaren** bidez identitate global bat sortu beharko du (Laclau, 2005:110). Erreferendumaren inguruko kanpaina eta eztabaidek prozesu konstituziogilearen forma hartu zuten. Horren bidez, eta YES Campaign eta Radical Independencen jarduerari esker, banaturik zeuden eremu eta eskaerak elkartu ziren (artekaritza maila handia egon zen). Kontuan hartu behar dugu baiezkoaren aldeko kanpainak “grassroot” edo kale mailako gizarte mugimendu izaera hartu zuela, ezezkoaren kanpainak goi mailako izaera elitista mantendu zuen bitartean.

Horrekin batera “izendapenak” duen rol eratzaillea azpimarratu behar da. Hau da, ez da alde zuzenetik existitzen den errealitate bat deskribatzen, izendapenaren bidez identitate politiko berri bat eratzen da. Hori gerta dadin, izenak bete gabeko eskariekiko erakarpen gaitasun bat izan beharko du.

²² McAdam, Tilly eta Tarrowren (MTT, 2001) lana jarraituz zenbait mekanismok eta prozesuk liskarraldiaren dinamika azal dezakete eta polarizazioa da horietako bat. Hemen azaltzen ari garena sakonago lantzen duen artikulazio batean, artekaritza, kategorien sorrera, berrikuntza taktikoa, identitate jautzia, polarizazioa eta zertifikazioa aipatzen genituen (Azkune, 2016:42-45). Euskal Herriko eta Kataluniako kasuak liskarraldiaren mekanismoak erabilia aztertzen dituzte beste adibide argi batean Riera eta Zubiagak (Riera, Zubiaga, 2015). Hegemonia eta liskarraldiaren mekanismoen arteko lotura aztertzeke ikus (Zubiaga, 2012).

Hori lortze aldera, egokia den adierazle huts batek ordezkatu du. Prozesu horretan lau elementu izan beharko ditugu kontuan (Laclau, 2005:135-39).

- **Adierazle hutsa:** ez du alde aurretik guztiz definiturik dagoen edukirik. Lehia politiko diskurtsiboaren bitartez eduki zehatz batek behin behinekoz betetzeko ahalmena izango du. Momentu zehatz batean “Demokrazia” terrorismoaren aurkako borrokaren aurrean “demokraten batasuna” aldarrikatzeko erabil daitekeen moduan, muturreko ikuspegitik “alternatiba demokratikoa” proposatzeko erabili daiteke.
- **Adierazle flotagarriak:** guztiz finkatzea ezinezkoa den neurrian, operazio hegemonikoaren gaitasunaren arabera eremu batera edo bestera mugituko dira. Adibidez: langile borroka urteetan zehar britainiar langile klasearen eta sindikatuen batasunarekin lotu izan da. Azken urteetan aldiz langile klasearen defentsa eta sozialismoaren aldeko borroka eskoziar proiektu independentistarekin lerrokatu da neurri handi batean.
- **Point de capiton/puntu nodala:** Adierazle flotagarriak ekibalentzia katean finkatu eta lotu egiten ditu. Independentziak adibidez, beste eskaera guztiak norabide batean finkatu eta lotu ditzake.
- **Partikularra eta unibertsalaren arteko artikulazioa:** parte batek osotasuna ordezkatzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Frantziar iraultzan hirugarren estatua bere burua nazio osoaren ordezkari moduan aurkeztu zuenean eliza eta aristokrazia baztertuz, partikular batek unibertsaltasuna ordezkatzeko aurrera eramandako operazio hegemonikoaren adibide garbia izango litzateke (Zizek, 2010: 26).

Gu aztertzen gauden kasuan aipatu elementuak horrela sailkatuko ditugu:

- Adierazle hutsa: Eskoziar nazioa.
- Adierazle flotagarriak: ongizate zerbitzuen defentsa, benetako demokrazia, feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa, garapen ekonomikoa etab.
- Puntu nodala: YES, independentziaren aldeko babes.

Horretaz gain, artikulazio populista batean hurrengo dimentsioak hartu beharko ditugun kontuan (Laclau, 2005:110-122):

- Bete gabeko eskarien metaketa²³.
- Ekibalentzia kate baten sorrera.
- Kate hori adierazle huts baten bidez ordezkatzea.
- Unibertsala eta partikularren arteko tentsioa.

Momentu batean eskaera batek beste guztiak ordezkatzeko gaitasuna lortzen badu, beste eskaerek “euren izaera partikularren” parte bat beste horren mesedetan galtzen dute. Adibidez, osasun zerbitzuen aldeko defentsa independentziarekin identifikatzean, bere partikularitatearen parte bat galtzen du independentziaren mesedetara. Kontrara, era diferentzialean (bere partikularitatea mantenduz baina isolaturik) planteatu ordez, beste hainbat eskariekin batera era ekibalentzialean artikulatzen da (bidean aliatu berriak topatzen ditu).

Guzti hau kontuan izanik eta Eskoziar kasurako proposatu elementuak berreskuratuz hurrengo grafikoaren bidez artikulazio populistaren eskema burutuko dugu:


E1: Independentzia/Yes.

E2: Ongizate estatua eta zerbitzu publikoen defentsa.

E3: Feminismoa.

E4: Aldarrikapen ekologistak.


E5: Giza Eskubideen Defentsa.



23 Normalean zentzu batean edo bestean artikulatu daitezkeenak eta beraz flotagarriak izaten direnak.

Elementu abstraktu hauen bidez Eskozian erreferendum kanpainan zehar eta horren ostean gertaturikoa neurri batean azaldu dezakegu. Ezezkoak %55,3 puntuko babesarekin irabazi arren ezezkoaren alde zeuden indarren krisi sakona eta independentziaren aldekoen loraldia suposatu zuen. Horren adibide litzateke independentziaren aldeko alderdi guztien kide kopuruak izandako hazkundea²⁴, banaturik zegoen ezker independentistak RISE plataforma sortu izana edo 2015eko Westminsterreko hauteskundeetan SNP-k ia eserleku guztiak irabazi zituela.

Aipatu artikulazio populistaren bidez identitate politiko berri bat sortu zuten (gu) independentziaren aurkakoak (haiek) “kanpo eratzaille” moduan erabilia (Mouffe, 1999:15). Hurrengo grafikoan ikus dezakegu aipatu artikulazioaren grafiko sinplifikatu bat.




► **No campaign:** austeritatea, establishment-a, ustelkeria, burujabetza falta.

► **Yes Scotland:** ongizatea, herri burujabetza, austeritatea eta establishmentaren aurkako borroka, feminismoa, etab.

Independentzia eta beste “borroka” eta “eskarien” artean sorturiko aldamenekotasun harremanaren bidez, aktoreen, terminoen, arazoen eta ordezkarien desplazamendu bat ematen da. Laclau jarraituz, horri erretorikan metonimia deitzen zaio (Laclau, 2003:2). Adibidez, independentzia zerbitzu publikoen defentsarekin lotzerakoan bi eremuen arteko aldamenekotasun harreman bat ematen da “desplazamendu metonimiko” bat sortuz. Jendartearen aurrean prozesu hori denboraren bidez egonkortzen denean aldamenekotasun hori analogia izatera pasatuko litzateke eta metonomia aldiz metafora. Kasu horretan eskaera bakarrak beste guztiak kondentsatzeko gaitasuna izango luke. Hurrengo grafikoan ikus dezakegu prozesua.

²⁴ Erreferendumaren ostean, SNP 25.000 kideetik 100.000era igaro zen hilabete gutxitan, Scottish Green Party 1720tik 8.500era eta Scottish Socialist Party 1.500etik 3500era.



SNP-ren lidergopean, baina beste hainbat sektore anitzen babesarekin (ezker independentista tartean), independentismoak austeritatearen aurkako borroka ordezkatzeko lortu du bere metafora bihurtuz. Honen adierazpen argiena 2015eko maiatzean Britainiar Parlamenturako hauteskundeetan independentistek lorturiko gehiengo historikoa²⁵ eta “Occupy Londonek” Nicola Sturgeon-i egindako harrera beroa austeritatearen aurka duen agenda politikoa txalotuz²⁶.

Bukatzeko, uste dugu George Kerevanek erreferendumaren ostean egindako irakurketak neurri handi batean testuan zehar azaldutakoa laburtzen duela:

The Scottish Labour leadership, abetted by the metropolitan media, wrongly tarred proponents of independence as tartan romantics – or even anti-English bigots. The reality is that, by the end, the Yes campaign had morphed into the beginnings of a genuine populist, anti-austerity movement like the “Indignant Citizens” in Greece or the May 15 Movement in Spain. Put another way, it was class politics – not old-style nationalism – that fired the Yes campaign. (Kerevan, 2014ko irailak 19)

²⁵ Westminsterreko hauteskundeetan eskoziar interes nazionalaren ordezkari papera betetzen zuten Laboristak izan dira beti garaile. Aipatu dugun moduan Kontserbadoreek Eskozian oso babes baxua izan dute 80. hamarkadatik aurrera eta Britainia Handian Tory-ek irabaz ez zezaten Laboristak babestea izan da historikoki eskoziar gehienek hautua (aldaketaren esperantza Londresen kokatuz). Antzeko prozesua ikus daiteke Euskal Herrian eta Katalunian azken Espainiar hauteskundeetan PP-ri aurre egiteko Podemosek jaso duen boto kopuru handiarekin.

²⁶ http://www.thenational.scot/news/14897702.Nicola_Sturgeon_is_backed_by_Occupy_protesters_in_London/ (azken bisita 2017/01/02)

BIBLIOGRAFIA

AZKUNE, J. (2016) “*Democracia, soberanía y populismo en la Unión Europea: la emergencia de la izquierda independentista escocesa*” in Clivatge, 4, 31-60.

AZKUNE, J., M. ZUBIAGA (2017) *Sobre los límites del Populismo: gestión de la excepcionalidad política y democratización en España y Euskal Herria*. (in press)

BENSAÏD, D. (2013): *La política como arte estratégico*, La Oveja Roja, Madrid.

BLEIMAN, D., M. KEATING, (1979): *Labour and Scottish nationalism*, McMillan, Londres.

CROUCH, C. (2004), *Post-Democracy*, Cambridge: Polity.

FINLAYSON, A., VALENTINE, J. (2002), *Politics and Post-structuralism*, Edinburgo: Edinburgh University Press.

ERREJÓN, I. (2011) *La lucha por la hegemonía durante el primer gobierno del MAS en Bolivia: un análisis discursivo*, Madrid: UCM.

GOIKOETXEA, J. (2015) “*Demokrazia, ahalmena erabakia*” in Revista Internacional de Estudios Vascos, Vol 11, 32-44 orr.

HALL, S. (1979): “*The great moving right show*” in Marxism Today, January: 14-20.

HALL, S. (1980): “*Thatcherism: a new stage?*” in Marxism Today, February: 26-28.

HALL, S. (1987): “*Gramsci and us*” in Marxism Today, June 1987, June: 16-22.

HALL, S. (1988): “*Thatcher’s Lessons*” in Marxism Today, March 1988: 20-27.

HASSAN, G., E. SHAW, (2012): *The Strange death of Labour Scotland*, Edinburgh University Press, Edimburgo.

HOWARTH, D., (2015): *La teoría del discurso*, D. Marsh, G. Stocker (Eds) *Teoría y métodos de la ciencia política*. Alianza, Madrid.

JESSOP, B. (2008) *State Power: A Strategic Relational Approach*, Cambridge: Polity Press.

____ (2015), *The State: past, present, future*, Cambridge: Polity Press.

____ (2016) "The Organic Crisis of the British State: Putting Brexit in its Place", in *Globalizations* DOI: 10.1080/14747731.2016.1228783

KEREVAN, G. (2014, irailak 19): Scottish Labour are biggest losers. *The Scotsman* (Edimburgo) <http://www.scotsman.com/news/george-kerevan-scottish-labour-are-biggest-losers-1-3547663>

KEATING, M. (1996): *Naciones contra el estado: el nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*, Ariel, Barcelona.

LACLAU, E., MOUFFE, C. (1987) *Hegemonía y Estrategia socialista hacia una radicalización de la democracia*, Madrid: Siglo XXI.

LACLAU, E. (2003) "Catacresis y metáfora en la construcción de la identidad colectiva". in: *Phrónesis. Revista de filosofía y cultura democrática*, 3: 9.

____ (2005). *La Razón Populista*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina.

MACADAM, D., S. TARROW, C. TILLY, (2001): *Dynamics of Contention*, Cambridge University Press, New York.

MCCRONE, D. (1992): *Understanding Scotland The Sociology of a Stateless Nation*, Routledge, Londres.

MOUFFE, C. (1999): *El retorno de lo político, comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*, Paidós, Barcelona.

____ (2010), El "fin de la política" y el desafío del populismo de derecha, F. Panizza (comp) *El populismo como espejo de la democracia*, Madrid: Fondo De Cultura Económica.

POULANTZAS, N. (1978), *Estado, poder y socialismo*, México D.F: Siglo XXI Editores.

RIECHMANN, J., F. FERNÁNDEZ BUEY (1994), *Redes que dan libertad. Introducción a los nuevos movimientos sociales*, Barcelona: Paidós.

RIERA, M., M. ZUBIAGA, (2015): “Nación y construcción estatal como acción colectiva. Un análisis comparativo de mecanismos y procesos en Cataluña y el País Vasco”. (Eds) M. Bretones, C. Charry, J, Pastor, *Anuari del conflicte social 2014*, UB, Barcelona.

SANJAUME-CALVET, M. (2015): “Independencia, dret a decidir i autogovern a Escòcia: 2012-2015”. (Eds) M. Bretones, C. Charry, J, Pastor *Anuari del conflicte social 2014*, UB, Barcelona.

ZIZEK, S. (2010) *En defensa de la intolerancia*, Madrid: Público.

ZUBIAGA, M. (2012): “Poder como hegemonía: contingencia y articulación” (Ed) Igor Ahedo eta Izaro Gorostidi, *Política Integral*, Pamiela, Iruñea.



Unai Apaolaza Amenabar

(Donostia, 1973)

Filosofian lizentziaduna da eta Ikasketa Aurreratuen diploma du «Egungo arazoak filosofian» adarrean, biak Euskal Herriko Unibertsitatean. Egun, Filosofia irakaslea da batxilergoan. «Euskal nazionalismoa XXI. mendean» masterrean (EHU) eta «Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX-XXI. mendeetan» graduondokoan (UEU, EHU) irakas-

lea izana. Lapiko Kritikoa kolektiboko kide, artikulu ugari argitaratu ditu hainbat aldizkari eta egunkaritan. Bere ikergai nagusia subjektu politikoak dira, Euskal Herriko independentismoak eraginkortasunean irabazteari begira betiere.

Laclau Euskal Herrian

Unai APAOLAZA AMENABAR

Borroka askatzaileetan dihardutenei, ideia berriak eta erabilgarriak ekartzen dituzten autoreak deskubritzeak orgasmo intelektuala sortzen diete. Ernesto Laclauk hori sortarazten dio liburueta gerturatzea borroka hauetan aurrera egiteko parte dela uste duenari. Hala ere, bere ideia guziak ez dira erabilgarriak gure egoera konkretuan. Ez da, hortaz, doktrina moduan hartu behar Laclau. Horrela hartuz gero, Euskal Herrira egokitu beharrean Euskal Herria Laclaura egokitzen ariko baikinake. Eta bistan da, hau egiteak, Laclau izan zezakeen erabilgarritasun guzia indargabetu egingo liguke.

Pentsatzen dut beste kideek Ernesto Laclaren teoriaren marrazki orokor bat egingo zutela eta lan hori ondo baino hobeto eginda egongo dela. Hala ere, norbaitek Laclaren pentsamenduaren argazki orokor bat irakurri nahiko balu, Simon Critchleyen eta Oliver Marcharten gidaritzapean osatutako Laclau. *Aproximaciones críticas* a su obra artikulua bilduma den liburuan, autoreek beraiek, egindako sarrera irakurtzea gomendatuko nieke. Horregatik, nire helburua, Laclau Euskal Herrirako dituen ideia erabilgarrietako batzuk agerian jartzea izango da. Laclau Euskal Herriko askapen mugimendura ekartzen saiatuko naiz alegia.

PARTIKULARRAREN DEFENSA UNIBERTSALAREN DEFENSA EGIN BEHAR DA Euskal Herrian, partikularraren defentsa izan da edozein estrategia politiko pentsatzerako orduan iparra adierazi digun axioma. Independentismotik hasi eta euskalgintzatik jarraitu, estatua, euskal partikularrak babesteko tresna moduan saldu izan dugu. Helburu hauen aldeko subjektua partikular hauen aldeko jarrera dutenetara soilik murriztuz. Ohartzen hasi gara estrategia honela planteatzeak ez duela euskara normalizatzeko edo estatua lortzeko adinako subjekturik sortzen laguntzen. Baina hau aldatzeko dugun oztoporik handiena, hamarkada luzeetan zehar eta nagusiki nazionalismoak txertatu digun mundu ikuskera da. Hau ezbaian jartzea lan zaila da, normalizat ematen dugun horrek, agian, ez gaituela laguntzen konturatzeko mundua ulertzeko modua ezbaian jartzen baitigu. Laclaren pentsamenduak eraginkortasunean irabaztera eramane gaitzakeen trantsizio horretan lagundu gaitzake.

Consecuentemente, si la particularidad se afirma como simple particularidad, en una relación meramente diferencial con otras particularidades, está validando el status quo en la relación de poder entre los grupos. Esta es exactamente la noción de “desarrollos separados” formulada en el apartheid: sólo se subraya el aspecto diferencial, mientras las relaciones de poder en que éste se basa son ignoradas sistemáticamente. (Laclau, 1995)

Beraz, Laclauk adierazten digun moduan, partikularraren defentsa baldin bada gure strategiaren ardatza, momentuko indar erlaziok onartzen ariko ginateke, gauzen egoeraren aldaketa ezinduz. Azpiratua azpiratua dago momentuko indar erlazioen ondorioz. Horrela, partikularraren defentsa soilak, subjektuaren zabaltzea baztertzen duenez momentuko indar erlazioak onartzen ditu; aldatu nahi den status quoa indartzen du Laclauen ustez. Horregatik:

(...) la construcción de identidades diferenciales cerradas totalmente a lo que está fuera de ellas no es una alternativa política viable o progresista. Por ejemplo para los actuales inmigrantes del Norte de Africa o de Jamaica en Europa Occidental sería una política reaccionaria abstenerse de toda participación en las instituciones europeas occidentales con la justificación de que la suya es una identidad cultural diferente y que las instituciones europeas no les conciernen. De este modo, todas las formas de subordinación y exclusión pueden consolidarse con la excusa de mantener las identidades puras (...) Esta es la ruta del auto-apartheid. (Laclau, 1995)

Ez al ditugu Laclauk aipatzen duen auto-apartheidaren logika horrekin pentsatu sarri Euskal Herrian borroka askatzaileak? Ez al ditugu feminismoa, euskalgintza, sozialismoa eta independentismoa prisma horretatik ulertu? Sarri, status quoa-k neutralizatuta dituen diskurtsoak erabili ditu status quoa aldatu nahi duen askapen mugimenduak Euskal Herrian. Errealitate gordin hau agerian jartzen laguntzen digu Laclauk; egoera irauli ahal izateko ezinbesteko urratsa.

Gure kasuan, “euskal” deitzen diogun identitate hori “garbi” edo “puru” gordetzera bideratuta dagoen strategiak gero eta min gutxiago emango lioke aldatu nahi den normalkeriari. Parametro hauetan gero eta gehiago sakontzen duen independentismoak gero eta aukera gutxiago luke estatua lortzeko. Zer egin orduan?

Una cosa es decir que los valores universales de occidente son patrimonio de sus grupos dominantes tradicionales y otra muy distinta afirmar que el lazo histórico entre los dos es un hecho contingente e inaceptable que puede modificarse por medio de luchas políticas y sociales. Cuando Mary Wollstonecraft, en los albores de la Revolución Francesa, defendió los derechos de la mujer, no presentó la exclusión de la mujer de la Declaración de los derechos del hombre y el ciudadano como prueba de que éstos eran intrínsecamente derechos masculinos, sino que trató, por el contrario, de profundizar la revolución democrática exhibiendo la incoherencia de establecer derechos universales restringidos a sectores particulares de la población. (Laclau, 1995)

Independentismoari begiratz gero, unionismoak ezarritako dikotomiak, independentistok ere irentsi egin ditugu; euskal estatuaren aldeko jarrera partikularraren aldeko defentsa moduan planteatu izan dugun momentutik. Arerio politikoari, unionismoari, unibertsalaren monopolioaren giltza oparitu izan diogu gehiegitan. Hauenak lirateke ondorioz, aukera politiko justua, demokratikoa, berdintasunaren aldekoa... hitz batean unibertsala. Partikularraren defentsa unibertsalaren defentsatik egiten hasten garenean emango diogu egoerari buelta. Bina jakina, honek partikularra aipatu eta aldarrikatu gabe partikular horretatik unibertsala eraikitzea esan nahi du. Gutxiago aldarrikatu eta gehiago praktikatzea alegia.

GAUZEN EGOERA IRAULTZEKO METATU EDO SORTU?

Artikulazioaz duen ikuspegiak badu erabilgarria den aldea eta balekoa ez den bestea.

“Articulacion” (Laclautaz ari da) debe entenderse como una práctica que establece relaciones entre elementos de tal manera que la identidad de los mismos es modificada como resultado de la practica articulatoria (Giacaglia 2002. 155)

Ñabardurak ñabardura, gurean subjektu askatzaileen artikulazioa aurretiaz finkatutako kategorietan oinarritu dugu, *a priori* alegia. Nazioak subjektu independentista egituratzen du, klaseak subjektu sozialista, emakumeek subjektu feminista... hortik dator nazioaren eta klasearen definizio “zehatzak” egiteko izan dugun obsesioa. Zientifizismo hau dela eta, “egiazko” definizioek eragin-kortasunean lagunduko digutela pentsatu izan dugu sarriegi.

La búsqueda de la “verdadera” clase obrera es un falso problema, y como tal carece de toda relevancia teórica o política. Lo anterior no implica, evidentemente, que haya una incompatibilidad entre clase obrera y socialismo sino la afirmación, muy distinta, de que no es posible deducir lógicamente intereses fundamentales en el socialismo a partir de determinadas posiciones en el proceso económico.
(Laclau, 1985:112)

Baina zer gertatzen da nazio sentimendu bakarretik estatua lortzeko gaitasuna izango zukeen subjektua sortzeko indarririk ez dagoenean? Eta klase sentimendua dutenekin bakarrik ezinezkoa denean sozialismora gerturatzeko adinako subjekturik sortu? Edo mediazio egiturak (alderdi/sindikatu) eta hauen metaketak nahikoa ez direnean gauzen egoera iraultzeko indarra izango lukeen subjektua sortzeko? Laclauk *a priori* mugatutako subjektuek artikulazio eraginkorra egiterako orduan dituzten topeak agerian jartzen laguntzen digu.

Topeak azaltzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Nola egin artikulazio eraginkorra hortaz? Galdera honi zeharka erantzuten dio Laclauk helburuak lortzen dituzten subjektu askatzaileek identitate berria sortzen dutenak direla baieztatzen duenean. Hau da, aurretiazko subjektuen metaketa huts bat beharrean identitate berria sortu behar dela alegia. Kontua ez da agortuta dauden kategorien aldeko atxikimendua jendartean zabaltzea, helburu politiko konkretu baten aldeko nahia indartu dezaketen kategoriak sortzea baizik.

Los objetivos de cualquier grupo en la lucha por el poder solo podrían lograrse si este grupo operara hegemónicamente sobre fuerzas más amplias que sí mismo, que, a su vez, cambiarían su propia subjetividad. Es en tal sentido que Gramsci habló de voluntades colectivas. Este populismo socialista está presente en todas las movilizaciones comunistas exitosas de ese periodo. La afirmación de Zizek de que el populismo –entendido en este sentido– es incompatible con el comunismo carece de todo fundamento. ¿Qué otra cosa estaba haciendo Mao en la Larga Marcha que crear una identidad popular más vasta, hablando incluso de “contradicciones en el seno del pueblo”, introduciendo así una categoría, pueblo, que hubiera sido anatema para el marxismo clásico? Y podemos imaginar los resultados desastrosos que hubiera obtenido Tito, en la Yugo eslavica nativa de Zizek, si hubiera hecho una estrecha

apelación a los trabajadores en lugar de llamar a las vastas masas populares a resistir la ocupación extranjera. En un mundo heterogéneo, no hay posibilidad de acción política digna de ese nombre a menos que la identidad sectorial sea concebida como el núcleo y el punto de partida en la constitución de una voluntad popular más amplia.

(Laclau, 2008: 54-55)

INDAR METAKETA ETA EKIBALETZIEN KATEA; JENDARTE OSOA POLITIKOKI AKTIBATUA DAGOELA AURRESUPOSATZEN DUTEN IDEIAK.

Laclau subjektu berri bat sortzearen aldekoa dela esan dugu, baina hau ez da egia borobila. Laclaren pentsamenduaren zati garrantzitsuena ez bada garrantzitsuenetakoak, subjektu berriaren sorrera, jada existitzen diren borroka demokratikoen batzetik sortuko dela baitiosku.

Desde nuestro (Laclau eta Mouffe) punto de vista, la construcción de una nueva hegemonía implica la creación de una “cadena de equivalencias” entre la diversidad de luchas democráticas, viejas y nuevas, con el fin de formar una “voluntad colectiva”, un nosotros de las fuerzas democráticas radicales. Esto puede realizarse sólo por la determinación de un “ellos”, el adversario que debe ser derrotado para hacer posible la nueva hegemonía. (Mouffe, 2007: 59)

Artikulazioa, hortaz, jada borrokan dabilzan subjektuen batura moduan ulertzen du Laclauk. Nahiz eta jarraian batura horrek identitate berri baten sorrera ekarriko lukeela baieztatu. Laclaren ideia hau erabili izan dugu azken urte hauetan independentismoaren artikulazioa irudikatzeke; “borrokan dabilzan subjektu txikiak” feministekin, ekologistekin, sozialistekin, euskaltzaleekin... berdindu eta diskurtso independentista egoki bat hauek artikulatzea dela pentsatu izan baitugu. Ikuspegi honek baina badu alde ahul bat; jendartearen gehiengoa subjektu politiko aktiboetan egituratuta dagoela auresuposatzen baitu. Insurrekzio egoeratan dauden jendarteei erantzuten diola ikuspegi honek uste dut eta independentismoak bide honi ekiten badio ezingo duela gehiengoa lortu iruditzen zait. Gaur gaurkoz, jendartearen gehiengoa ez dago eraldaketaren parametroetan politikoki egituratuta.

Ikuspegi hau dela eta, independentismoak sarri, aktibatuta dagoen zatiaren parametroetan egin ditu proposamen independentistak eta honek jendartearen gehiengoarengana ez iristea ekarri du. Aktibatuta dauden jendarte zatiek gaine-

ra *lobby* moduan jokatu dute independentismoan sarri. Norberak lehenesten dituen helburuak beste sektoreek lehenesten dituztenekin bateraezin egiteraino.

Honek ez du esan nahi politikoki aktibatuta ez dagoen jendearen ikuspegira, status quo-aren ikuspegira alegia, gerturatu beharko ginatkeenik esan nahi, ez. Jendartearen aktibazioa guk nahi dugun parametroetan sortuko lukeen konfrontaziorako diskurtso berria eraiki beharko genukeela esan nahi du soilik. Ghettotik ateratzen uzten ez diguten logika endogamikoetatik aldenduz, ditugun helburu politikoen alde, estatuarena barne, jendartearen zati zabalena aktibatuko lukeen errelato berria sortu behar dugu. Puntu honetan Lac-lauk plazaratzen duen unibertsalaren eta partikularraren erlazioaren inguruko gogoetara berriro itzultzea lagungarri izan dakiguke; independnetismoak proposamenak unibertsalen bitartez adierazi behar ditu.

Gure Esku Dago ekimenak darabilen logika eraginkorra dela uste dut, behar-rak sortzen dituenek, oraindik aktibatu gabe dagoen jendea aktibatzeko balio baitu. Logika hau independentismora pasatzea izan daiteke gakoa.

DISKURTSOA, HEGEMONIA ETA ALDEBAKARTASUNA

Zer da diskurtsoa Laclaurentzat?

El discurso constituye el terreno primario de constitución de la objetividad como tal. Por discurso no entendemos algo esencialmente restringido a las áreas del habla y la escritura, como hemos aclarado varias veces, sino un complejo de elementos en el cual las relaciones juegan un rol constitutivo. Esto significa que esos elementos no son preexistentes al complejo relacional, sino que se constituyen a través de él. Por lo tanto, “relación” y “objetividad” son sinónimos. (Laclau, 2005;92)

Diskurtso bat ez da liburuetan edo egunkarietan idatzia dagoena edo hizlari batek pulpitutik botatakoa bakarrik, hori ere izateaz gain, askoz gehiago ere bada. Eliteek egiten dituzten kontakizunez gain, diskurtsoak, komunitate batek dituen usteak, mitoak, balioak... eta hauek denak eragiten dituzten ekintzak ere sartzan dira diskurtsoaren barruan. Diskurtsoek gainera, subjektuak sortu eta moldatzeko gaitasuna dute.

Diskurtso baten alde egiten dutenen nahia, diskurtso hori egon daitezkeen besteen gainetik jartzea da. Hau da, diskurtso hegemoniko bihurtzea; kasu

horretan diskurtso horrek objektibitateak sortuko baititu. “Egiak” sortuko ditu alegia. Horrela, jendarte konkretu batean hegemonikoa den diskurtsoak finkatuko du egiazkoa zer den eta zer ez, zer dagoen ondo eta zer ez, eta azkenik, zein helburu politiko lehenetsi eta zein ez. Diskurtsoak, hortaz, ez dira deskriptiboak, performatiboak dira; errealitatea aldatu edo bere horretan mantentzeko tresnak baitira. Statu quo-a aldatu nahi duenak bokazio hegemonikoa duen diskurtsoa eraikitzen ez badu ezinezkoa izango du ezer aldatu.

Baina zer da ditxosozko hegemonia hori? Lehenengo urratsa diskurtsoa asmatuz asmatzea da. Diskurtso horrek balio behar du jendarte konkretu batean zure helburu politiko partikularra zentroan jartzeko. Jendartearen neurria bilakatzeko alegia. Diskurtso horrek zure helburu partikularra unibertsalizatzen lagundu beharko du hortaz.

He definido la hegemonía como una relación por la cual una cierta particularidad pasa a ser el nombre de una universalidad que le es enteramente incommensurable. De modo que lo universal, careciendo de todo medio de representación directa, obtendría solamente una presencia vicaria a través de los medios distorsionados de su investimento en una cierta particularidad. (Laclau, 2008:15)

Hegemonia lortzen duen diskurtso politikoak, joko zelaia eta jokatzeko arauak definitzeko gaitasuna du. Arau hauek, gainera, jendartearen gehien-goan dute eragina. Honek ez du jendartearen gehiengoak diskurtso hegemonikoak lehenesten duen subjektu politikoaren alde egiten duenik esan nahi, ez, jendartearen gehiengoa diskurtso hegemonikoak marrazten duen konzeptu, balio, aurreiritziekin... aritzea behartuta dagoela esan nahi du soilik. Honek guztiak, epe ertainean, diskurtso hegemonikoak lehenesten duen subjektu politikoaren zabaltzea dakar.

Baina, honek zer esan nahi du, hegemonia izan arte joko zelaia eta arauak aukeratzeko gaitasunik ez duzula? Ez, hegemonia berri bat eraikitzeke borroka, subordinaziotik ateratzeko borroka da eta hori erritmoak norberak jarriz egin daiteke soilik; joko zelai eta arau alternatiboak behin eta berriro plazaratuz. Baina hau nola egin? Aldebakartasuna da erantzuna.

Aldebakartasuna, norberari komeni zaion joko zelaia eta arauak plazaratzeko instrumentua da. Horrek, konfrontazioa noiz, non eta nola egiten duzun aukeratzeko gaitasuna ematen baitizu. Aldebakartasuna borroka tresna bat

da, Indar harremanak aldatzen laguntzen duen tresna, indar korrelazioa iraultzeko tresna. Horregatik, hegemoniara gerturatu zaitzakeen ibilgailu fidagarriena da aldebakartasuna. Diskurtso egokia behar duen ibilgailua.

LEHENENGO URRATSA: ARDATZAK ONDO FINKATUZ KONFRONTAZIO-GUNE EGOKIAK SORTZEA

Ernesto Lacluren pentsamenduak asko zor dio Chantal Mouffinari. Biek idatzitakoa da Hegemonia eta estrategia sozialista liburua eta Laclauri egozten zaizkion ideia asko Mufferenak dira. Horregatik, justiziazkoa iruditzen zait bere ideiak hemen aipatzea.

Chantal Moufferen pentsamendutik atera dezakegun irakasgai nagusienetakoa ardatzen ingurukoa da. Subjektu politikoak eraikuntzak dira; diskurtso diferentetek plazaratutako ardatzek egituratzen baitituzte. Ardatza finkatzeko gaitasuna ondo aprobeztatzeak abantaila emango digu.

A esta altura podemos afirmar que la distinción nosotros/ellos, que es condición de posibilidad de formación de las identidades políticas, puede convertirse siempre en el locus de un antagonismo. Puesto que todas las formas de la identidad política implican una distinción nosotros/ellos, la posibilidad de emergencia de un antagonismo nunca puede ser eliminada. (Mouffe, 2007:23)

Borroka politikoa beti izango da gutarren eta besteen arteko talka. Talka edo konfrontazio hori, nagusitu den (hegemonikoa den) ardatzak markatuko digu. Horregatik, gurean, mugimendu askatzaileak hasi beharko lirateke abantaila izateko konfrontazio-guneak non sortu ditzaketen pentsatzen. Hemen dugu erronka nagusia Euskal Herrian. Orain arte aipatutakoei jarraituz, ardatz berriek eraginkortasunean irabaztea ekarriko ligukete eta horrekin batera orain arte aldaezintzat irudikatu dugun subjektu politikoa aldatzea. Helburu politikoak lortzeko ez dago beste aukerarik. Prest al gaude?

Bukatzeko, Laclauk ez digu Euskal Herrirako baliagarria izan daiteken erantzunik ematen, berak, aurrera egiteko bultzada bat ematen digu. Guri dagokigu komeni zaizkigun lanabes ideologikoak eskuratuz eta sortuz erantzun eraginkorra aurkitu eta askapen bidean aurrera nola egingo dugun zehaztea.

BIBLIOGRAFIA

GIACAGLIA, M. (2002): “Hegemonía. Concepto clave para pensar la política” in Tópicos 10. Zenbakia, Santa Fe: Red ALyC

HOWARTH, D. (2008): “Hegemonía, subjetividad política y democracia radical” in Critchley Seta Marchart O. Laclau, aproximaciones críticas a su obra, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

LACLAU, E. (1995): *Universalismo, Particularismo y el tema de la identidad*, http://e-spacio.uned.es:8080/fedora/get/bibliuned:filopoli-1995-5-1C777F7B-79B6-19D3-B6B9-B7F90B382C27/universalismo_particularismo.pdf.

LACLAU, E. (2003): *Contingencia, hegemonía, universalidad. Diálogos contemporáneos de la izquierda*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

LACLAU, E.- MOUFFE C.(2004): *Hegemonía y estrategia socialista*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

LACLAU, E. (2005): *La razón populista*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

LACLAU, E. (2008): *Debates y combates. Por un nuevo horizonte en la política*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

MOUFFE C. (2007): *En torno a lo político*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.



Mario Zubiaga Garate

(Tolosa, 1963)

EHUko irakaslea, Politika eta Administrazio Zientzien sailean. Zuzenbidean lizentziatua eta politika zientzietan doktorea, euskal ekintza kolektiboa izan du lan-ildo nagusia, ikuspegi teoriko eta praktikotik. Era berean, abertzaletasuna, burujabetza eta demokraziaren arteko uztarketa aztertu du hainbat lanetan, besteak beste: Robles-Arangiz Fundazioak 2002an argitaratutako “hacia una consulta popular soberanista” idatzian, eta Iparhegoa Fundazioak 2002an plazaratutako “Euskal Estatuari bidea zabaltzen: herrigintza eta erakundeak” liburuan.

Hegemonia eta erradikalizatzeko demokratikoa Euskal Herrian¹

Mario ZUBIAGA GARATE

Hegoaldeko euskal herrietan demokratizazio prozesu zabala bizi izan dugu azken hamarkadetan. Gurean bizi izan dugun protesta zikloa eta demokratizazioa, bana ezinezko fenomenoak dira. Era berean, demokratizazioa (edota erradikalizatzeko demokratikoa), eta prozesu hegemonikoak lotuko ditugu teorian eta praxian. Operazio hegemonikorik gabe ez baita aldaketa demokratikorako beharrezkoa den “herria” sortzen. Urteotan lehia hegemoniko bizia izan dugu euskal sistema politikoan, autonomismoaren eta soberanismoaren kategoria diskurtsiboetan islatzen dena.

Giltza-Hitzak: Demokratizazioa. Hegemonia. Aldaketa Politikoa. Euskal Sistema Politikoa.

I. HEGEMONIA ETA ERRADIKALIZATZE DEMOKRATIKO EUSKAL HERRIAN: IRAGANA ETA ETORKIZUNA

1.1. Euskal protesta zikloa eta demokratizazioa


Hegoaldeko euskal herrietan demokratizazio prozesu zabala bizi izan dugu azken hamarkadetan. Sistema politiko autoritario batetik, Frankismotik, Europako beste herrietan daudenekin alderagarria izan daitekeen zuzenbidezko estatura doan ibilbidean islatzen da aipatu demokratizazioa. Atzera begira jarrita, gurean bizi izan dugun protesta zikloaren analisia, Sidney Tarrow-en adiera klasikoa aintzat harturik, ezinbesteko jardura da demokratizazio horren bilakaera ulertuko badugu. Izan ere, protesta zikloa eta demokratizazioa, Tilly-ren iritzia jarraikiz, bana ezinezko fenomenoak dira.

Komunikazio honetan, demokratizazioa (edota erradikalizatzeko demokratikoa), eta prozesu hegemonikoak lotuko ditugu teorikoki. Era berean, lotura teoriko hori praxi politikoan nola burutzen den ezagutzeko baliagarriak

¹ XVII Congreso de Estudios Vascos: **Gizarte aurrerapen iraukorreko berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17.2009. Vitoria-Gasteiz).** - Donostia: eusko Ikaskuntza, 2012 – P.1641-1651. - ISBN:978-84-8419-232-9

izan daitezken tresna enpirikoak proposatu nahi ditugu. Demokratizazioari dagokionean eta Charles Tillyren kategoria teorikoak onartuta, honen bestez esango genuke urte hauetan “kontsulta babestura” hurbildu dela euskal herrietan dagoen sistema politikoa. Demokrazia eduki formal edota material jakinen bitartez neurtzeko joera nagusia izan da eztabaida teoriko zein politikoan. Konstituzioetan jasotako baldintza juridiko formalak, alde batetik, eta gizartearen baldintza materialak aurkatu egin dira maiz, Ikuspegi estatiko hauen arabera. Ikuspegi liberal batetik, esaterako, lehena hobetsi da, marxismoak, aldiz, bigarrenari eman dio garrantzia. Alta, Tillyk eredu dinamikoa proposatzen digu: “demokrazia” bainoago “demokratizazioaz” (eta des-demokratizazioaz) hitz egin beharko genuke, hortaz. Estatu edota nazio eraikuntza historikoan (state/nation building) aplikatu ditu Tillyk kategoria teoriko hauek, alabaina ziklo politiko laburragoetan ere erabilgarriak direla uste dugu, azken urteotan Euskal Herrian bizi izan den ziklo politikoan, esaterako. Ikus dezagun.

Irudia 1. Demokraziaren irizpideak, Charles Tillyren ekarpenean



Demokratizazioaren ardatza den “Kontsulta babesturako” garabidearen irizpideak irudian azaltzen dira: Herritartasun are eta berdinagoa/zabalagoa, gobernuaren herri borondatearekiko are eta menekotasun handiagoa eta, azkenik, agintarien arbitrariotasun are eta ahulagoa. Prozesu horretan zehazten da aipatu ibilbide historikoa².

² Tilly, C. (2005): *Contienda política y democracia en Europa 1650-2000*. Editorial Hacer. Barcelona. Del mismo autor, (2001): “Dynamics of Contention”, junto con Tarrow, S., y McAdam, D. CUP. Cambridge. Existe versión castellana en la editorial Hacer, (2005): “Dinámica de la contienda política”

1.2. Erradikalizatzeko demokratikoa Euskal Herrian

Erradikalizatzeko demokratikoa definitzeko, berriz, Ernesto Laclau (2005, 2008) eta Chantal Moufferen (1987, 1999) lanetara jo beharko genuke: post-marxismoaren tradizioan kokatuta dauden neurrian, garabide horri ikuspegi normatiboagoa erantzen diote autore bi hauek. Esan nahi da: Tillyren "Kontsulta babestuak", bere norabidea ukatu gabe, urrats berriak eman beharko ditu modernitateak ekarri zuen iraultza demokratikoan. Errepublikanismo zibiko gisa deitua izan den doktrina klasiko eraberritua gida bezala harturik, desberdintasun eta diskriminazio guztien aurkako garabidea da erradikalizatzeko demokratikoa, beti ere, pluraltasuna ukatu gabe, beti ere gizartearen itxitura posible dela pentsatu gabe. Erradikalizatzeko demokratiko horrek bildu egin beharko ditu jarduera anti-kapitalistak, antinperialistak, anti-arrazistak, anti-sexistak, anti-individualista berekoiak...

1.3. Espainiako trantsizio politikoaren mugak

Trantsizio garaian Espainiako sistema politikoaren bilakaerak mugatu egin ditu demokratizazioaren eduki sakonenak, erradikalizatzeko kamustuz. Laclauk gogoratzen digunez, parekidetasun logikan oinarritutako "herria" osatzea ezinbesteko aldagaia da erradikalizatzeko demokratikoa egongo bada. Ekibalentzia logika horren arabera, errebindikazio eta eragile anitz biltzen da, parekotasunaren uste partekatuan oinarrituta, sistemaren logikaren aurrean³.

Espainiako trantsizio politikoaren izaera elitistak, ez zuen ahalbidetu herri-esparru zabalek bloke aski indartsua artikulatu zezaten. Alderdi politikoaren logika bereizlea edo diferentziala nagusitu zen segituan –sopa de letras⁴– eta aldaketaren bultzatzaile izan ziren indar antifrankistak oso epe laburrean barneratu ziren sistema politiko eraberrituan. Honen ondorioz, desmobilizazioa oso azkarra izan zen, demokratizazio sakonago batek

³ Laclau, E. (2008): *Debates y combates. Por un nuevo horizonte de la política*. FCE. Buenos Aires, edo (2005): *La razón populista*. FCE. Buenos Aires. Eta Chantal Moufferekin batera, (1987): *Hegemonía y estrategia socialista. Hacia una radicalización de la democracia*. Siglo XXI. Madrid.


⁴ "La euforia democrática y electoral dio lugar al fenómeno que la prensa llamó entonces "sopa de letras": se inscribieron alrededor de 300 partidos políticos y más de 200 concurren a las primeras elecciones". Colomer, A. (2002): "La transición española, entre el consenso socio-económico y la armonización autonómica". VII congreso internacional del CLAD sobre la reforma del estado y de la administración pública. Lisboa.

behar zuen gizarte-motorra geldituz. Beste modu batean esanda, indarrean zegoen sistema politiko post-frankistari aurre egingo zion artikulazio hegemoniko alternatiborik ez zen osatu, sistemaren bilakaera demokratikoa erradikalizatu behar zuen “espainiar herria” ez zen osatu eta errebindikazio ase ezinak zirenak, eskaera barneragarri bilakatu ziren⁵.

1.4. Euskal trantsizio amaitugabea: erradikalizatzeko demokratikoaren zergatiak

Aitzitik, Euskal herrian, demokratizazioaren ibilbidea sakonagoa izan da. Laclauk eta Mouffek aipatzen duten erradikalizatzeko demokratikotik gertuago egon da euskal gizartea. Berezitasun hori neurritz kanpo balioztatu gabe, diagnostikoan adostasun zabala dago adituen artean: Euskal gizarte zibila, bere argi-ilunekin, aktiboagoa izan da politikoki, indartsuagoak izan dira gizarte mugimenduak, botere publikoen jarduera mugatu egin dute errebindikazio herritarrek... Finean, euskal gizartea demokrazia errepublikarrarengandik gertuago egon da inguruko beste zenbait gizarteekin alderatuta⁶. Zergatik?

Irudia 2. Demokratizazio prozesua euskal protesta zikloan



⁵ Hortxe dago Laclauen galdera: “¿Por qué construir al pueblo es la principal tarea de una política radical?” eta “pedidos/demandas” bereizketa. Ikus Debates y combates, op.cit.

⁶ Zubiaga, M. (2002): Gizarte Zibilaren ahotsa eta bere ezaugarriak. Eusko Ikaskuntza. Donostia.

Charles Tillyk eta Ernesto Laclaren lanetan estuki lotu dira erradikalizatzeko demokratikoa eta antagonismoa. Gizarte garatuetan, antagonismo hori kudeatzeko eredu ordezkatzailleetatik abiatuta demokrazia deliberatzailearen eremua zertxobait zabaldu da, nolana ere, ez gehiegi. Izan ere, erabaki demokratikoak hartzeko unean oraindik orain gabezia larriak daude herritarren zuzeneko parte hartzeari dagokionean. Dena den, eredu ordezkatzaille/deliberatzailea ez da nahikoa. Demokratizazio prozesuetan sistemaren barne/kanpo mugak ezbaian dauden neurrian, “parte ez den parteak” (nahi bada, subordinatuak) adierazten duen antagonismo “kudea ezina” ezinbesteko osagarria da sakontze demokratikoa erdiesteko.

Politika eta antagonismo gaindiezin hori bereiztezinak diren neurrian, politikak berak demokrazia arautu zabalaren mugak ere ezbaian jartzen ditu. Kudea ezintasun hori lehia hegemonikoaren baitakoa da.

Zentzu horretan, politikaren muinean dagoen operazio hegemoniko batek hezurmamitu du Euskal herrian bizi izan dugun azken protesta zikloa, eta honek, ez bairik gabe, urteotan ezagutu dugun erradikalizatzeko demokratikoa bultzatu du: gizarte arlo desberdinetan (feminismoa, ekologismoa, euskalgintza...) kanpoan egon den parte barneratu egin da gradualki. Botere paradigma batetik eragin paradigmara igaro dira gizarte mugimendu asko eta asko, herritartasunaren eremua zabalduz (Cohen & Arato 2000).

Populismo abertzaleak bultzatutako botere paradigma alternatiboak, Laclauk erakusten digun moduan, gizarte-eremu desberdinak bildu eta artikulatu egin ditu azken hamarkada hauetan, ordura arte deslotuak edota desmobilizatuak zeuden errebindikazioak artekatuz: horixe da Tillyk aipatzen duen artekaritza (brokerage) mobilizazio-mekanismoa. Era berean, euskal gizarte polarizatu egin zuen, hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera piztutako arloko liskar guztietan bi legitimitate aurrez aurre jarritz, erakundearena eta “herriarena”, partikular batek –ezker abertzaleak–, unibertsala –euskaltasuna, euskal herria–, hegemonizatu ondoren. Horrela gertatu zen, esan bezala, hainbat arlotan: ekologismoan, euskalgintzan, feminismoan, internazionalismoan, bakegintzan... horietan guztietan, hasieran “eskaera” soilak zirenak sistemak nekez bete zitzakeen “errebindikazioak” piztu ziren.

Era berean, Tillyk aipatzen duen berrikuntza taktikoaren mekanismoa ere nabarmena izan zen garai hartan. Jarduera arautuak –instituzionalak– eta arautu gabeak, bortitzak barne, uztartu egin ziren askotan, mobilizazio ziklo zabal eta sakonean. Oldarraldi horretan bildutakoak usu ez ziren organikoki

estekatutako eragileak, haien arteko harremanak istilutsuak izan ziren askotan, baina denen artean osatutako bitarteko bilduma berritzaileak sistema politikoaren eraginkortasuna kolokan jarri zuen, aldaketaren ateak zabalik mantenduz. Chantal Mouffek aipatutako antagonismo agonistikoa izan zen nagusi, deliberazioaren eta gerraren artean dagoen ertz zehaztugabe horretan.

Tilly, McAdam eta Tarrow-en esanetan, berrikuntza taktikoa, polarizazioa eta artekaritza mekanismoak ekintza kolektibo liskartsu ia guztietan agertuko zaizkigu, eta, ondorioz, baita demokratizazio prozesu guztietan ere⁷.

Azken finean, politikagintza sareen hurbilketa teorikoa (policy networks approach) aintzat hartuz, demokratizazioak erabaki-sare publikoen zabal-kuntza eta bertan biltzen diren sare-gunen parekatzea dakar, eta sarrera/berdintze horretarako mobilizazio edo protesta zikloak ezinbestekoak dira. Tillyren esanetan, azpian dagoena protesta/negoiazio/akordio prozesua izango litzateke, kanpoan dagoen gaia edota eragilea barneratzeko garabidea, alegia. Ibilbide sistemiko orokorraz ari gara, noski, ez derrigorrez mahai fisiko baten gainean burututako negoziazioaz. Izan ere, prozesu horiek askotan ez dira agerian formalizatuko.

Garabide horien emaitza, azkenean, artikulazio hegemoniko sistemikoaren zabalkuntza izango da, eta honekin batera doan logika bereizlearen hedapena, eredu ordezkatzailari dagokiona. Protesta zikloan botere paradig-maren apaltzea gertatzen denean, “kanpoan dagoen parteak” ibilbide alternatiboak baditu, noski. Esaterako, sistemaratze hori ukatzea eta identitate paradigma hutsean aritzea, logika bereizletik ahalik eta gehien aldentuz, balizko operazio hegemoniko berrien zain. Izan ere, eredu teoriko honen arabera, itxitura sistemikoa ez (ezin) da inoiz erabatekoa (izan), eta protesta-negoiazio-akordio ziklo bakoitzaren ostean osatzen den statu quo hori ziklo mobilizatzaile berri baterako orube ezegonkorra/irekia besterik ez da.

1.5. Euskal protesta zikloaren amaieraz

Hipotesi teoriko hau gure ingurune politikora ekarrita, esango genuke, 60. hamarkadan hasitako protesta zikloaren amaieran gaudenaren zantzuak gero eta nabarmenagoak direla azken aldian. Sistema politikoaren mugan,

7 Hauxe da, hain zuzen ere, gure doktorego-tesian landu dugun hipotesi nagusia. Ikus. Zubiaga, M.(2007): Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan. UPV-EHU. Leioa.

ertzean, ETA-ren sorrerak suposatu zuen “gertakizunaren” (Badiou) agortzea izango litzateke adierazpenik gardenena. ETA adierazle huts gisa –borroka guztiak adierazle horretan ikustea–, protesta zikloaren hasieran operazio hegemonikoaren muinean egon zena, azken hamarkadan nabarmen ahuldu da kanpo/barne ertzaren erreferentzia sinboliko legez. Bere jardueraren etena, azken urrats logikoa besterik ez da.

Euskal protesta zikloaren amaieraren adierazgarri izan daitezken bestelako aldagaiak ikerketa sakonago baten zain daude: inguruabar orokorrean (mundu garatuan, Europan) gizarte gatazkak bideratzeko eredu aldaketa, gazteen balio-sistemaren bilakaera, protesta bitartekoen bilakaera eta mobilizatorako potentzialaren aldaketa, militantzia ereduaren krisia, eragile nagusien diskurtso politikoaren markogintza estrategien moldaketa...⁸.

Hortaz, hipotesi gisa, bederen, protesta ziklo horren amaieran baldin bagaude, balizko etorkizunari buruzko hipotesiak aztertzea egokituko zaio ikerlariari.

Protesta ziklo historikoaren amaierak, lehenik eta behin, antagonismoa kudeatzeko moduetan aldaketa ekarriko du ziurrenik. Eredu agonistikoak tarte zabalagoa utziko dio eredu deliberatzaile edota ordezkatzaileari. “Parte

8 Esaterako, ezker abertzale historikoak bere jarraitzaileen artean eztabaidarako zabaldu berri duen txostenaren markogintza diskurtsiboa esanguratsua da oso. Prozesu demokratiko gisa definitzen den indar metaketarako tresna taktikoaren norabideak gehiago instituzional zabala osatzea du helburu. Masa mobilizazioa (desobedientzia zibila, barne) edota auziaren dimentsio bortitza bideratzeko beharrezkoa litzatekeen negoziazioa aipatu ardatzaren osagarriak besterik ez dira, eta ez dira haren gainetik egongo. Birbarneratze erabatekoa lortzeko asmoa eta horretarako ezinbestekoa den hautu taktiko-estrategikoaren beharra (indar metaketa eta honek eskatzen dituen baldintzak betetzea) nahiko argiak dira idatzian: “azken hogeita hamar urteotan egoera arras aldatu dela nabaria da. Orain dela urte batzuk, Ezker Abertzaleak zenbait erakundeetan parte-hartzeak marko juridiko-politikoaren egonkortu zezakeela uste genuen, horiek higitzeko garaia zelako; gaur egun, berriz, nazio eraikuntzan oinarritutako trantsizio politikoa burutu nahi dugula, Ezker Abertzalea erakundeetan izateak asaldatzen ditu bazterrak.” [...] “Prozesu demokratikoak euskal herritarren hitza eta erabakia izan behar ditu oinarri eta beraz, inongo indarkeriarik edota kanpo injerentzia bidegaberik gabe garatu beharko da.” [...] Nazio eraikuntza, ezkerreko borroka eta oro har, prozesu demokratikoa bera ditugu sakoneko aldaketa progresiborako lanabesak.” Idatziaren azpian dagoen filosofiak, gure ustean, protesta zikloaren amaiera iritsi denaren ustearekin egiten du bat. Hots: protestaldi luzearen emaitzak jasotzeko unea ailegatu zaiola ziklo horren protagonista nagusia izan den ezker abertzaleari. Dena delakoak izanik emaitza horiek. Ikus: Eztabaidarako Txostena. Fase politikoaren eta strategiaren argipena. Ezker Abertzaleak argitaratua. 2009ko Urria.

ez den parteak” sistemaren baitan dagokion lekua hartzen duenean logika bereizlearen araberrako kudeaketa motak indartu egiten dira normalean, dena delakoa izanda barneratu den eragilearen edota errebindikazioaren norabide ideologikoa.

Ondorioz, “polisaren barne antolaketa” lanetan –Zizek-en hitzetan, orde-
nu sozial positiboaren egitura diferentzialean–, murgilduko ote da euskal
herriko jarduera politikoa guztia? Egungo eredu hegemonikoaren meneko
“mosaiko tolerantea” ote da euskal gizartearen etorkizun bakarra? Barne-
ratze/demokratizazio zikloaren amaierak barealdia dakar derrigorrez ala
operazio hegemoniko berri baterako, eta hortaz, erradikalizatzeko demokrati-
korako hurrengo urratsa ahalbidetuko duen protesta ziklorako osagai nahi-
korik ba al dago? Hala bada, nola, non eta noiz sortuko dira ekibalentzia
kate berriak? Badiou-ren kategoriak hartuta, zein izan daiteke, izango bada,
etorkizuneko “gertakizun” berria? Zeintzuk dira egun lehian dauden opera-
zio hegemonikoak?

Galdera hauek guztiek ez dute, noski, erantzun argirik. Gizartearen bila-
kaeraren aurre-ezagutza ezin baita burutu ezagutza jakin batzuen muge-
n barnetik. Horixe da “gertakizunaren” izaera berezkoa, hots, imajina ezina
dela bere agerpenaren unea, modua, lekua. Dena den, Laclaren ildo teori-
koa jarraituz gero, eta honekin batera, McAdam, Tarrow eta Tillyk erakutsi
dizkiguten tresna epistemologikoak erabiliz –mekanismo eta prozesuak
alegia– akaso aurreikusi daitezke balizko protesta ziklo berri baterako osa-
gaiek eman dezaketene joko. Izan ere, egiturazko baldintzetatik abiatzen
baita aipatu “gertakizuna”. Bestela, gertakizunaren (in)determinismo ho-
rrek giza egintza edo agentziaren funtsa ukatuko luke: ezin baldin bada
“egiaren” agerpena ez aurreikusi, ezta lagundu edo erraztu ere, zein da era-
baki politiko ororen zentzua?

Puntu honetan, berriro ere, Laclarekin gaude bere azkenekotariko lan ba-
tean⁹ diogunean “gertakizun” arrakastatsurik ez dagoela aurreko “egoeran”
dislokaziorik ez badago. Euskal gizartearen dislokazioa, hutsunea, itxitu-
ra oztopatzen duena espainiar eta euskal nazioaren ezina da: biek ala biek
esparru jakin batean osotasun erabatekoa, emantzipazio borobila erdieste-
ko duten ezina. Dislokazio horrek adierazpen antagonikoa izan du azken


9 Ernesto Laclau: “Sin una dislocación previa en la situación, tampoco podría existir un acontecimiento (o un acontecimiento exitoso)”. Ikus. Critchley, S. & Marchart, O. (Comp) (2008): Laclau. Aproximaciones críticas a su obra. FCE. Buenos Aires.

bi mendeotan eta, horregatik, operazio hegemoniko kontrajarrien eremu izan da. Eta, esango genuke, aurrerantzean ere izango da. Horregatik zaila da gure eremu politikoan logika sistemiko bereizlea eta eragin-paradigma guztiz nagusitzea: antagonismo ordezkatzaile hutserako ezinbestekoa den komunitate moral bakarra ez dagoelako, hain zuzen ere. Eta, Laclaren iritzian, horixe da, hain zuzen, hegemoniarako lekua: erabat gardena, erabat emantzipatua ez dagoen gizartean soilik izango baita posible hegemonia, politika, erradikalizatzeko demokratikoa.

1.6. Egungo operazio hegemonikoak

Zertan datza gaur egun operazio hegemonikoen arteko talka? Gogoratu dezagun marko teorikoa. “Euskaltasuna-Euskal Herria” unibertsal huts gisa ulertzen badugu, partikular batek edo parekidetasun harremanetan dauden partikularren kate batek modu kontingentean adierazle hori betetzeko daraman ahalegina operazio hegemoniko legez definitu du Laclauk. Unibertsala hutsik dago beti, eta, aldi berean, beteta, partikular batek edo hauen kate batek hegemonizatua, beste partikularrekin lehian.

Irudia 3. lehia hegemonikoaren gunea



Hegemonia hori normalean adierazle huts bat behar du, borroka partikular bat guztien adierazle bilakatu dena. Bere garaian ETA izen zen bezala, gaur zein izan daiteke adierazle huts hori? Ez dago argi. “Soberanismoa”, kategoria diskurtsibo bezala, ahalegin horren mota bat da. Soberaniaren errebindikazioa eskaera guztien simbolo bilakatu nahi izan da: soberania bera, justizia soziala, amalurraren defentsa, euskararena... Jendarte-eremu zabalak artekatzeko kategoria egokia izan da azkenaldian.

Euskaltasuna (Euskal Herria/pueblo vasco) unibertsala bezala hartuz gero, bi dira jokoan dauden operazio hegemonikoak:

– Lehen egitasmoko hegemonikoak “Herria” euskal gizarte berezituarekin pare katuko du. Sentimendu identitarioak, parte legitimotzat aintzat hartuko ditu, baina logika liberalaren arabera arlo partikularrean eraman nahi izango ditu, erakunde/lege omen neutralari utziz haien arteko kudeaketa “multikulturala”.

Gune nodala, hortaz, erakundea bera bilakatzen da, indarrean dagoen legalitate konstituzional/autonomikoak ziurtatzen baitu azpian dagoen egitasmoko hegemonikoaren gorentasuna, hots, Espainiar nazioarena. Bere egitura diskurtsiboa “autonomismoa” izango litzateke, barne aniztasuna kudeatzeko modu zilegi bakar gisa hartuta¹⁰.

– Bigarren egitasmoko hegemonikoak berriz, bloke historiko alternatiboa aurkeztuko du “euskal” (herria) unibertsalaz jabetzeko. Adiera gramsciarra erabiliz gero, bloke historiko hori “gehiengo sozial eta politiko” gisa definitzen da, edota “nazio antolatua” moduan. “Soberanismoa” izango da balizko bloke historiko horren egitura diskurtsiboa: errebindikazio anitzen ikurra izan nahi duen adierazle hutsa: erakunde eta lege positiboen gaineratik euskal gehiengo politikoaren legitimotasuna

10 Statu quo juridiko-politikoaren (1978ko Konstituzioa eta 1979ko Autonomi-estatutua), eta sozio-ekonomikoaren (ordenu neo-liberala) defentsarako osatu den egitasmoko hegemonikoaren bultzatzaile argitsuenetarikoa Joseba Arregi irakaslea dugu. Bere ekarpen teoriko osatuena izenburu ezin argiagoa du: Arregi, J. (2001): *La nación vasca posible*. Ed. Crítica. Barcelona.

aldarrikatzen duen doktrina politikoa. Erakunde-logikaren aurrean herri-logika aldarrikatuko duena¹¹.

Lehenik, “erabakitzeko eskubidearen” indar-gunea (punto nodal/point de capiton) egitura diskurtsibo pribilegiatua bilakatu da diferentzien multzoa finkatzeko eta soberanismoaren narratiban oinarrituta artikulazio hegemoniko edo kateatze luzeak osatzeko. Egungo operazio hegemoniko soberanistan kate-begi potentzialak ezagunak dira: sindikatuak, gizarte mugimenduak, alderdi abertzaleak edota ezkertiarak... Dena den, orain artean behintzat, indar-gune horren ahulezia erlatiboa dela eta, operazio hegemoniko soberanistak ez du bere baitan duen potentzialitate guztia garatu¹².

11 Doktrina soberanistak aurrekari zuzena du XX. mendearen amaieran Quebec-en burutako prozesuan. Herrien autodeterminazio eskubidea eskuratzeko modu pragmatikoa da soberanismoa, zuzeneko demokraziaren balioan eta arautu gabeko prozedura demokratikoe-tan oinarritzen dena. Zentzu honetan, prozesua barnera begirakoa da batik bat, hastapenean bederen, kanpoko aitorten formalaren zain egongo ez dena, ez Estatuarena ez eta nazioarte-ko eragileena ere. Soberanismoa erabakitze-prozesua da, herri-galdekettetan eta erakunde-erabilera alternatiboan zehazten dena, eta kaltetutako Estatuak, Kanadakoa, bere garaietan, ukaezina den egitate baten aurrean kokatzen dituen, beraien izaera demokratikoa ukatu gabe arbuia ezin dutena. Dena den, inguru politiko anglosaxoia askoz ere abegikorragoa da horrelako ekimenen aurrean, eredu jakobinoaren pean bizi diren eremuekin alderatuta, Espainia edota Frantzia, kasu. Soberanismoari buruz, ikus, besteak beste: Zallo, R. (1997): Euskadi o la segunda transición. Ed. Erein. Donostia; Ollora, J.M. (1996): Una vía hacia la paz. Ed. Erein. Donostia. Zubiaga, M. (1999): La autodeterminación como cambio político. Honako bilduman: Gomez Uranga, M. & Lasagabaster, I. & Letamendía, F. & Zallo, R. (co- ord.): Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria. Manu Robles-Arangiz Insitutua. Bilbao; Zubiaga, M. (1999): La nueva desobediencia. Ezpala aldizkaria 12. zka. Bilbo; Zubiaga, M. (2002): hacia una consulta popular soberanista. Manu Robles-arangiz institutua. Bilbo; Zubiaga, M., Lasagabaster, I., Gomez Uranga, M., (2003): Por un proceso soberanista civil y democrático. Manu Robles-arangiz institutua. Bilbo.

12 Hala, egungo euskal sistema politikoan maila orokorrean jokatzeko ari den demokratizazio/naziozintza saiakera hegemoniko zabalean eragile politiko soberanistek darabilten “herri kontsulta edo erabakitzeko eskubide” horren BMFHPSJB da hainbat gizarte auzitan bultzatu den herri-kontsulten dinamika. Dena dela, alegoria horrek kontraesan bitxia du bere baitan. Esan nahi baita, herriaren erabakitzeko eskubidean oinarritzen den eredu sinesten omen dutenek ez dute adostu herri borondatea maila desberdinetan adierazteko ibilbide egokia. Hots: oraindik orain herri-kontsulta (erabakitzeko eskubidea) ez da bilakatu goitik eta behetik datorren soberanismoaren elkargune/indargune eraginkorra. Ibarretxe Lehendakariak proposatu zuen kontsulta eta, esaterako, herrietan AHTrI buruz egiten ari diren kontsultak ez dira proposatzaileen estrategian uztartu, teorikoki erabat uztargarriak diren arren. Paradoxikoki, demokratizazioa eta naziozintza eredu soberanista horren aurkariek, beste opearzio hegemonikoaren suspentzaileek, ongi lotu zituzten arren. Ikus. Zubiaga, M. (2009): Desde Lemoiz al TAV, ¿pasando por Leizaran?, Liburu honetan: VV.AA (2009): AHT. Las razones del no. Ed. Txalaparta. Tafalla.

Halere, artikulazio hegemoniko soberanistaren oraingo baldintza diskurtsiboek –batik bat, neoliberalismoaren aurkako jarrerak eta behetik gorako demokraziaren aldeko hautuak– muga zehatzagoak –eta koerenteagoak– jarriko dizkio operazio hegemoniko garaikideari, batez ere 1998ko saia-kerarekin alderatzen badugu. Horiek dira, era berean, artekaritza mekanismoaren oraingo mugak: nekez topatuko dira gizarte esparru deslotuak edota desmobilizatuak, etorkin berrienak ez badira.

Bigarrenik, “Euskaltasuna” (Euskal Herria) unibertsalaren hegemonizatzea, lehiatsua den neurrian, polarizatu egingo du euskal politika. Populismoaren operazio hegemonikorako herria/erakundea aurkaritzaren beharrezko-tasuna aipatu du Laclauk. Horregatik, urteotan posizio sistemikoaren ku-deaketa instituzionalean egon diren eragile politikoez zailtasunak izango dituzte Tillyk aipatzen duen polarizazio prozesutik aldentzeko: horixe izan da, esaterako, EAJ-ren barne tentsio gaundiezinen arrazoia: ezin egon dai-teke aldi berean bi operazio hegemonikoetan. Esan nahi da, soberanismoa-ren eta autonomismoaren egitura diskurtsiboetan batera.

Azkenik, Tillyren ekarpena gogoratu, artekaritza (kateatze hegemonikoa) eta polarizazioarekin batera (lehia hegemonikoa), diskurtsoetan eta praxi politikoan piztutako berrikuntzak hautsi beharko luke sistemaren erruti-nazko birsorkuntza. Agian, begizta historikoa itxiz, 60. hamarkadan dikta-duraren “egia adierazi zuen gertakizunaren” (Badiou) protagonista izan zen eragileak, bere esku izango du oraingo honetan ere itxitura hautsi dezakeen beste “gertakizuna” sortzea, ziklo politiko berri bat zabalduz.

BIBLIOGRAFIA

- ARREGI, Joseba. *La nación vasca posible*. Barcelona. Ed. Crítica. 2001.
- BUTLER, Judith; LACLAU, Ernesto; ZIZEK, Slavoj. *Contingencia, hegemonía, universalidad. Diálogos contemporáneos en la izquierda*. Buenos Aires. FCE. 2003.
- COHEN, Jean; ARATO, Andrew. *Sociedad civil y teoría política*. Mexico. FCE. 2000.
- COLOMER, Antonio. *La transición española, entre el consenso socio-económico y la armonización autonómica*. VII congreso internacional del CLAD sobre la reforma del estado y de la administración pública. Lisboa. 2002.
- CRITCHLEY, Simon; MARCHART, Oliver. (Comp). *Laclau. Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires. FCE. 2008.
- EZKER ABERTZALEA. Eztabaidarako Txostena. Fase politikoaren eta estrategiaren argipena. Ezker Abertzaleak argitaratua. 2009ko Urria.
- LACLAU, Ernesto. *La razón populista*. Buenos Aires. FCE. 2005.
- LACLAU, Erenesto. *Debates y combates. Por un nuevo horizonte de la política*. FCE. Buenos Aires. FCE. 2008.
- MOUFFE, Chantal; LACLAU, E. *Hegemonía y estrategia socialista*. Hacia una radicalización de la democracia. Madrid. Siglo XXI. 1987.
- OLLORA, Juan Maria. *Una vía hacia la paz*. Donostia. Ed. Erein. 1996.
- TILLY, Charles; TARROW, Sidney; McADAM, Doug. *Dynamics of Contention*. CUP. Cambridge. 2001. Gaztelera: *Dinámica de la contienda política*. Barcelona. Editorial Hacer. 2005.
- TILLY, Charles. *Contienda política y democracia en Europa 1650-2000*. Barcelona. Editorial Hacer. 2005.
- ZALLO, Ramon. *Euskadi o la segunda transición*. Donostia Ed. Erein. 1997.

ZUBIAGA, Mario. *La autodeterminación como cambio político*. Honako liburua: GOMEZ URANGA, Mikel; LASAGABASTER, Iñaki. &

LETAMENDIA, Francisco. & ZALLO, Ramon. (coord.) *Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*. Bilbao. Manu Robles-Arangiz Insitutua. 1999.

ZUBIAGA, Mario. *La nueva desobediencia*. Bilbo. Ezpala aldizkaria 12. zka.1999.

ZUBIAGA, Mario. *Gizarte Zibilaren ahotsa eta bere ezaugarriak*. Donostia. Eusko Ikaskuntza. 2002.

ZUBIAGA, Mario. *Hacia una consulta popular soberanista*. Bilbo. Manu Robles-arangiz institutua. 2002.

ZUBIAGA, Mario; LASAGABASTER, Iñaki; GOMEZ URANGA, Mikel. *Por un proceso soberanista civil y democrático*. Bilbo. Manu Robles-arangiz institutua. 2003.

ZUBIAGA, Mario. *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan*. Doktorego-tesia. Leioa. UPV-EHU. 2007.

ZUBIAGA, Mario. *Desde Lemoiz al TAV, ¿pasando por Leitzarano?*, Liburu honetan: VV.AA (2009): AHT. Las razones del no. Tafalla. Ed. Txalaparta. 2009.



Mikel Urdangarin Irastorza (Beasain, 1994)

Filosofian graduatua eta ERNAI gazte antolakundeko kidea.

“HERRI” BERRIA. Ezkerreko abertzaletasunetik Estatu propioaren aldeko mugimendura

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Ernesto Laclau eta Chantal Mouffen pentsamendutik hainbat irakaspen atara badaitezke ere, beraien pentsamenduan zeharlerroa izan den kezka heldu nahi nioke lantxo honetan. Subjektu politikoen auziari, hain zuzen ere. Besteek beraien pentsamendua luze eta zabal jorratuko zutelakoan, hortik abiatuta Euskal Herriko egoerari egokitutako gogoeta egiten saiatuko naiz.

Laclau eta Moufferen irudiko, subjektua ez da harreman sozial jakinetan (ekoizpen harremanetan, kasu) posizio konpartitu bat dutenen multzoa. Subjektua helburu politiko jakin bat lortzeko borondatea konpartitzen dutenek osatzen dute. Borondatea alde zuzenetik determinatuta ez dagoenez, aipatu borondatea/subjektua eraiki egin behar da. Estrategikoki eraiki ere, ardatz nahiz lanabes artikulatzaile eraginkorrenak erabiliz. Subordinazio harremanak politizatuz borroka ezberdinak piztu, berauek ekibalentzia katearen baitan artikulatu eta “haiek”-iko antagonismoan borondate kolektibo/“gutarren” multzo zabal eta hegemonikoa eraikitzea izango da erronka. Subjektu hori hegemonikoa izango bada, unibertetsala edo osotasunaren garapena sinbolizatu beharko du. Izan ere, lidergo intelektual, kultural eta politikoaren bidez proiektu politiko partikular batek (denak dira partikularrak) unibertetsala ordezkatzeko duenean gauzatzen da harreman hegemonikoa. Zentzu horretan, Laclau-ren ustez, logika populistaren baitan “Herria” eraikitzea izango da operazio hegemoniko eta politiko gorena. Populismoa, eduki jakin bat edo irrazionaltasunari lotutako manipulazio ariketa multzo bat baino, “un modo de construir lo político” (Laclau, 2005: 11) da, non oztopo den “anti-herria”ren aurrean bere burua osotasun edo interes orokorren ordezkari bakar gisa aldarrikatuko duen “herria” eraikitzen den: “Una frontera de exclusión divide a los dos campos. El ‘pueblo’, en ese caso, es algo menos que la totalidad de los miembros de la comunidad; es un componente parcial que aspira, sin embargo, a ser concebido como la única totalidad legítima” (Laclau, 2005: 107-108). Etsaitzat nor izendatzen denaren arabera izango da “herria” aurrerakoia edo atzerakoia.

Honenbestez, Foucault-en aipu famatuak diotenaren kontra, politika ez da “gerraren jarraipena beste bide batzuetatik eginda”. Borroka politikoa alde

aurretik hasten da. Borroka horretan protagonista izango diren subjektuak (“haiek” eta “gu”) nortzuk izango diren definitzean, hain zuzen ere. Bereizketa hori egingo duen ardatza aldeztu aurretik finkatuta ez dagoenez, politikaren zeregin nagusietakoa bihurtuko da posizionamenduak nagusiki ze ardatzen bueltan gauzatuko diren ezartzea. Ardatz horrek marraztuko du, besteak beste, jokalekua. Agerikoa denez, jokalekua marrazteko gaitasuna duenak sekulako abantaila izango du. Ondorioz, besteen ardatzetan/jokalekuan moderatua edo erradikalagoa izan baino, jokaleku propioa ezartzea da erronka. Tablero politikoaren zentralitatea (ez zentroa!) lortzea, finean.

Garrantzitsua da ardatz horiek estrategikoak (ondorioz, kontingenteak) direla argi izatea. Ezker/eskuin ardatza, esaterako, Iraultza frantsesaren ondorengandako Asanblada eratzailean ezarri zen. Bertan, Erregearen ezkerretara kokatu ziren jakobinoak “ezkerrekotzat” jo ziren aurrerantzean eta eskuinetara kokatu ziren girondinoak, berriz, “eskuinekotzat”. Ondoren, bi mendetan zehar bilakaera gorabeheratsua izan du, ezker/eskuin adierazleak etengabe (ber)ezaugarrituz. Beraz, ez dago “benetako” identitate esentzialik, ezta marketing operazioen bitartez sortzen den “gezurrezko” identitate artifizialik ere. Identitate politiko oro subjektua eratzeke eraikuntza estrategikoak dira. Sinboloak, ereserkiak, metaforak, mitoak eta abar, berriz, identitate hori taxutzeko lanabesak. Agerikoa denez, “son las estrategias las que crean las identidades y no a la inversa” (Laclau, 1993: 243). Ondorioz, subjektuen eraikuntza estrategikoki pentsatu beharrean gaude.

Euskal Herrian sei hamarkada luzetako mobilizazio ziklo historikoa garatu da. Horri lotuta, demokratizazio prozesu bat gauzatu da. Horren erakusle ditugu euskal jendartearen politizazio maila, herri mugimenduen mobilizazio nahiz eragiteko gaitasuna edota ehundutako sare komunitario sendoak. Horretarako, funtsezkoa izan da erakundeei zilegitasuna parez pare disputatu eta soberania/osotasuna galdegingo zuen Euskal Herriaren eraikuntza. Izan ere, “parekidetasunaren logikan oinarritutako “herria” osatzea ezinbesteko aldagaia da erradikalizatzeko demokratikoa egongo bada” (Zubiaga, 2012a: 1643). Baita baldintzak sortu ondoren eragin politikaren baitan aldarri horiek erakundetzea eta sedimentatzea ere. Zentzu horretan, populismo abertzaleak¹ ase gabeko eskari ezberdinak ekibalentzia kate beraren

1 Ezkerreko abertzaletasuna populista izan da logika horren baitan Euskal Herria eraikitzeko gai izan den heinean. Akatsa baino lorpena izan da, Europa mailan ezkerren aitzindari bihurtu delarik. Gramsci-ren terminoetan, eskari korporatibistez harago borondate kolektibo nazional-popularra eraikitzea izan da horretarako gakoa.

baitan artikulatu ditu, eskari horiek herri aldarri² bihurtuz. Horretarako, ezinbestekoa izan da euskal jendartearen polarizazioa, “arlokako liskar guztietan bi legitimitate aurrez aurrez jarritz, erakundearena eta “herriarena”, partikular batek –ezker abertzaleak- unibertsala –euskalduntasuna, euskal herria-, hegemonizatu ondoren” (Zubiaga, 2012a: 1645). Konfrontazioa termino antagoniko eta agonistikoaren artean garatuz, jarduera arautuak nahiz arautu gabeak uztartu dira (kontra)botere politikaren logika liskartsuan. Alta, azpimarratzekoa da, berunezko urte gogorrek izanagatik, sare komunitarioak ehunduz “herria” egiteko izandako gaitasuna: ikastolak, elkarte sozialak, irratir libreak, jai eredu alternatiboak, hedabideak, guneko autogestioak... hamaika adibide jar genitzake. Bide batez, aipatu subjektua /“herria” ereserki (“Eusko gudariak”), abesti, mito, bereizgarri estetiko eta sinbolo (ikurriña, arrano beltza..) ezberdinetan taxutu da, afektuak itsasgarri gisa erabiliz.

Soberania galdegin duen Euskal Herriaren eraikuntza estrategia abertzalearen baitan egin da. Hau da, independentismoak subjektuaren eraikuntzarako nazioa eratu izan du estrategikoki. Horrek ez du esan nahi, zenbait espainiar nazionalista ustez ilustratu eta kosmopolitek dioten eran, euskal nazioa “asmakizun faltsu bat” dela, baizik eta nazio subjektua beste edozein subjektu politiko gisa eraiki egin dela, helburu eta estrategia jakinei jarraiki. Finean, “subjektu independentista egituratzeko estrategia bat da abertzaletasuna, eta nazioa deritzogun izate horri forma ematea da haren nolakotasuna” (Apaolaza, 2015: 143). Naziotasunaren eraketa estrategiko horretan, bereizgarri nagusi batzuk izan ditu sei hamarkada hauetako mobilizazio zikloak. Ordura arte berau era esentzialistan ulertzen zen, arraza edota abizenak kokatuz nazioko kide izateko baldintzat. 60. hamarkadan, ordea, ikuskera hau errotik irauli zuen ETAk. Hain zuzen, iraulketa hori izan zen mobilizazio ziklo historikoari bide emango zion oinarria. Aurrekoarekin hautsiz, euskal nazioko kideetat joko da bertan bizi eta lan indarra saltzen duen oro. Hizkuntza, berriz, aipatu nazioaren sinbolo garrantzitsuen izango da. Subjektua eraikitzeke Euskal Herri Langilea delako lanabes artikulatzailea jarri zen mahai gainean, ordura arte kontrajarritzat jotako askapen nazional eta soziala uztartuz. Horrek subjektua izugarri zabaltzeko bidea eskaini zuen, hainbat migratzaile “gutarren” parte aktibo bilakatu zirelarik. Bide batez, abertzaletasuna ezkerrekoa eta iraultzailea izan zedin ahalbidetu zuen, txobinismo eta arrazakeria mota ororengandik aldentuz.

2 “Demanda popular” gaztelaraz. Era diferentzian lutzatzen diren eskariak ekibalentzia katearen baitan artikulatzen direnean herri aldarri bihurtzen dira.

Erresistentzia faseari lotuta, asimilazio saiakerei aurre egin eta subjektuari eusteko estrategia izan da abertzaletasuna: “Subjektu politikoa txikitzen ari denean joera izaten baita kasik ikusi edo ukitu egiten diren faktoreekin berdintzea subjektu politikoa” (Apaolaza, 2015: 143-144). Borondatea oinarria izan bada ere, hizkuntza, kultura eta historiaren bidez nazioa funtsatzen saiatu da. Frankismoaren errepresio bortitzaren eta ondorengo asimilazio saiakeren aurrean, subjektua ez desagertzeko baliagarria izan da. Zabalatzeko, ordea, ez da nahikoa. Izan ere, hemen “nazio sentimendu bat baino gehiago dagoenez eta abertzaletasunak, beste edozein nazionalismok bezala, sentimendu horietatik soilik bakarrarentzat eskaintza duenez, ezin du gehiago zabalik lortu” (Apaolaza, 2015: 144).

Mobilizazio ziklo historiko honek, honenbestez, jokaleku jakin bat marraztu du. Horren arabera, bi ardatzen gain sailkatu izan dugu euskal jendartea: euskalduna (abertzalea)/espainola eta ezker/eskuin. Jokaleku horren baitan, “ezkerreko herri abertzalea”³ eraiki da. Berau eraikitzeke eta bidenabar, berau eraikiz, osatu da ezkerreko abertzaleen (zentzu zabalean ulertuta) mugimendu soziopolitikoa. Langile Abertzaleen Batzordeak-ek, Ikasle Abertzaleak-ek nahiz herri mugimenduko bestelako eragileek elikatu dute aipatu mugimendua, ondoren Herri Batasuna edo Euskal Herria Bildu bezalako eragile politiko-instituzionaletan gorpuztu delarik. Status quo-ak baina, guztiz asimilatu ditu aipatu ardatzak eta ondorioz, oso eroso dago. Abertzaletasunak, ikusi dugun eran, nazio sentimendu bakarrarentzat du eskaintza eta honenbestez, ez da subjektua zabaltzeko gai. Ezker/eskuin ardatzak, berriz, subjektu politikoen eraikuntzan geroz eta gutxiago eragiten du, gora/behera nahiz bestelako ardatz anti-elitista eta populisten mesedetan. Ondorioz, ardatz horien baitan ezinezkoa izango da subjektua zabaltzea. Zer esanik ez gehiago zabalak osatzea. Aitzitik, konfrontazioa ezker-eskuin eta euskaldun(abertzale)-espainiar ardatzen baitan garatzen ez denez, identitate politikoen eraikuntzan geroz eta garrantzia urriagoa dute, ezkerreko abertzaleen espazio politikoa desaktibatzen eta murrizten ari delarik. Finean, “ezkerreko abertzaletasuna”-k subjektua artikulatzeko estrategia gisa baliagarria izateari utzi dionean ezkerreko abertzaleen eremu soziopolitikoa agortu egin da. Are, zaharra albo batera utzi eta berriari bide ez emateak noraeza, desaktibazioa eta “esentzietan” gotortzea eragin du.

3 “Pueblo abertzale de izquierdas”, gazteleraz. Askotan aipatu izan ez bada ere, zinez argigarria da “herria”ren eraikuntza ezkerreko abertzaletasunaren estrategiaren baitan egin dela azaltzeko.

Horren ondorioz, besteak beste, gazte belaunaldiak bertara batzeko geroz eta zailtasun nabarmenagoak ditugu. Gazteria birpolitizatzen ari bada ere, bestelako ardatz eta gramatika politikoaren baitan egiten ari da. Agerikoa denez, arazoa, beste batzuen artean, lanabes artikulatzaileetan datza. Aipatu ardatz eta gramatika politikoak ulertzeko, besteak beste, ezinbestekoa da 15M mugimenduak eta hark eragindako bestondoak garaiko zentzu komunean izandako eragina behar bezala aztertzea. Susmoa dut, Euskal Herriko mugimendu eraldatzaileen indarrari esker kuantitatiboki kopuru handirik mobilizatzea lortu ez bazuen ere, kualitatiboki nabarmen eragin zuela gazteriaren (eta ez hain gazteen) zentzu komunean, zeharlerroa den sumindura eraginez. Gazteok jasandako espektatiben krisitik (“ikasi eta bizi duin bat izango genuela hitzeman baziguten ere, iruzur egin digute”) edo zentzu oneko nukleotik abiatuta, ordura arte era pribatuan bizitako “minak” izendatuz eta politizatuz, erantzuleztat bankari nahiz politikariak (“eliteak”) joaz eta “demokrazia” gisako unibertsalen jabetza aldarrikatuz, gora/behera, eliteak/herritarrak ardatzaren baitako jokaleku berri eta populista marrazteko gai izan zen, 78ko Erregimena zilegitasun krisian (“ez gaituzte ordezkatzen”) murgilduz⁴. Estatu mailan krisi horri gutxi asko erantzun badiote ere, Hego Euskal Herrian indarrean jarraitzen du. Horren erakusle, bertan nagusi diren alderdi ordezkatzaileak hemen geroz eta indar testimonialagoak dira. Sumindura hori erresignazio bihurtu ez dadin, aipatutako nahiz bestelako osagaietatik abiatuta aldaketa gose hori Estatu propioaren aldeko bulkada bihurtzea izango da erronka.

Gure lanabes artikulatzaileen ezintasunaz gain, bi operazio hegemoniko ditugu parez pare. Lehenik eta behin, operazio hegemoniko sistemikoa dugu. Osotasuna egituratzeko eran bereizten dira diskurtso populista eta sistemikoa. Diferentzien eta ekibalentziaren logiken arteko tentsio etengabea, lehenak egiten duenaren kontrara, bigarrenak diferentzien logika azpimarratuko du. Diskurtso sistemikoa edo instituzionalista, beraz, “es aquel que intenta hacer coincidir los límites de la formación discursiva con los límites de la comunidad” (Laclau, 2005: 107). Eskari eta posizio oro osotasun sistemikoaren baitako diferentzia/parte legítimoak izango dira. Hautu partikular bat gehiago, ezberdinen artean. Hauen arteko elkarriketa eta elkarbizitza baketsua bultzatu beharko da, “aniztasuna” bermatuz. Bestela esanda, eskari ezberdinen arteko artikulazioak ekidinez parte (eta ez osotasuna)

4 15M-k izandako eragina ulertzeko oso baliagarria da Iñigo Errejón-ek egindako honako azterketa: “El 15-M como discurso contrahegemónico” (2011). Gisako analisiak aztertu gabe ezinezkoa da Podemos-ek gazteen artean izan duen arrakasta ulertzea.

izan daitezen ziurtatuz. Politika, honenbestez, gatazka eta antagonismo ororengandik aldentuz, arazo partikularren kudeaketa instituzionala izango da. Logika horren baitan ulertzen dira Estatu propioaren aldarrikapena abertzaletasunera murriztu eta abertzaletasuna osotasun sistemikoaren baitako diferentzia bihurtzeko saiakerak. Abertzaletasuna gainontzekoei inposatu ezin zaien hautu partikular bat gehiago ei da. Horren adibide ditugu, esaterako, Urkulluren adierazpenak eta ekinbidea. Bere hautu partikularra abertzalea baldin bada ere, Lehendakari gisa posizio ezberdinen (abertzale nahiz ez-abertzale) arteko elkarrizketa eta negoziaketa bilatu behar omen du, “frente abertzaleak” ekidinez. Era horretan, aldebikotasunetik Estatuak “Euskadi nazio gisa aitortu” dezan izango da helburua. Hau da, osotasun sistemiko multikulturalaren⁵ baitan berezitasun/diferentzia legitimo bat gehiago gisa aitortuak izan gaitezten. Bistan da, parte gisa aitortuak izan edo ez, osotasun sistemikoa eta hori kudeatzen duen egungo marko instituzionala ez dira ezbaian jartzen. Zentzu horretan, azti ibili beharrean gaude, kosmetikoki diferentzia gisa aitortuz euskal auzia hamarkadako ixten ahalegindu baitaitezke.

Podemos/Ahal Dugu-rena dugu bigarren saiakera hegemonikoa. Estatu espainolean orain arte bipartidismoa ezker/eskuin ardatzean oso eroso zegoen eta ezkerak benetako ezkerria zela aldarrikatzera mugatzen zuen bere jarduna, tablero politikoaren ezkerren ezkertera zokoratuz bere burua. Sistemak erabat asimilatutako jokaleku horren aurrean, tablero politikoa iraultzeko apustua egin du aipatu alderdiak. 15M-k mahai gainean jarritako osagaietatik abiatuta, hark sortutako esperantza (“sí se puede”) hauspotuz, Pablo Iglesiasen figura euskarri gisa baliatuz, “kasta/jendea” ardatza finkatuz eta espainiar estatuaren demokratizazioaren zerumuga mahai gainean jarriz, “Espainiaren aldaketaren aldeko” subjektua eraikitzen saiatzen ari da Podemos. Tableroaren zati (ezkerren ezkerria) izateari utzi eta “anti-herria”ren (eliteak, kasta) aurrean bere burua osotasun gisa aldarrikatuko duen “herri” berria (jendea, patria) eraiki nahi dute. “Herri” hori,

5 Zizek-ek, “intolerantziaren defentsan”, maisuki salatzen du multikulturalismoaren amarrua: “esta forma hegemónica del multiculturalismo se basa en la tesis de que vivimos en un universo post-ideológico, en el que habríamos superado esos viejos conflictos entre izquierda y derecha (abertzale eta ez-abertzale artean, gehituko genuke guk), que tantos problemas causaron, y en el que las batallas más importantes serían aquellas que se libran por conseguir el reconocimiento de los diversos estilos de vida. Pero, ¿y si este multiculturalismo despolitizado fuese precisamente la ideología del actual capitalismo global?” (Zizek, 2007: 11). Agidanez, status quo-a bere horretan mantentzeko iruzurra da.

plurinazionala izango ei da, norma(ltasun) espainiarraren baitara gainontzeko berezi(tasun) nazional periferikoak josiz. Erabakitze eskubidearen⁶ aitortza izango da, hain zuzen, “herri” plurinazional/Espainia berri eta batu horren artikulaziorako itsasgarria. Ziklo elektoralari aurre egingo zion makina elektoral antolatatu ondoren, sare komunitarioak ehunduz “herri” hori egingo duen herri mugimendua osatzea dute orain erronka.

Horren aurrean, aurreko mobilizazio ziklo historikoak utzitako orubetik abiatuta berriari ekin beharrean gaude. Honako hiru bereizgarri izango ditu: lehenik eta behin, erresistentziaz Euskal Estatu Erakundearen erakuntzarako urratsa egin beharrean gaude; bigarrenik, aurrekoari hertsiki lotuta, ‘ezker abertzalea VS Estatuak’ konfrontazio eskematik ‘Euskal Herria VS Estatuak’-era pasa beharrean gaude; hirugarrenik, konfrontazio demokratikoa izango da aipatu prozesuaren motorra, Estatuak boxeo ringetik ajedrez taulara eramanez.

Fase politiko honetako helburuak lortzeko adinako subjektua eraikiko badugu, berritu beharrean gaude ezinbestean. Izan ere, ez da nahikoa aurreko jokalekuaren baitan osatutako subjektu antolatuen batuketa. Horrek, azken batean, status quo-a eroso dagoen jokalekua birsortuko du. Mediazio egiturek bizi duten krisi sakona kontutan izanik, are estrategia kamutsagoa da⁷. Honenbestez, jokaleku berri bat marraztuz subjektu/“herri” berri bat eraiki beharrean gaude: “todo nuevo pueblo va a requerir la reconstrucción del espacio de representación mediante la construcción de una nueva frontera” (Laclau, 2005: 192). Ondorioz, gehiengo zabalak “gutarren” multzora

6 Laclau eta Mouffe-ren hitzetan, erabakitze eskubidearen adierazle hutsa edo puntu nodala adierazle flotagarria da egun, disputan dagoen heinean. Hain zuzen, erabakitze eskubidearen puntu nodala integratuz borondate kolektibo independentista desartikulatzea da Podemos-en xedea. Horregatik dira independentistok areriorik gogorrenak. Hori kontutan izanik, “lehenik erabakitze eskubidearen alde, ondoren Estatu propioaren alde” gisako irakurketa linealekin kontuz ibili beharrean gaude, lehenak ez baitu bigarrena mekanikoki inpliketzen. Gaurdanik hasi behar da Estatu propioaren aldeko lanketa egiten. Besteak beste, gure buruarren gain askatasunez erabaki ahal izateko (erabakitze eskubidea eremu orotan mugarik gabe gauzatu ahal izateko) bitarteko gisa agertuz. Aitzitik, hori da “erabakiaren aroa”ri egin diezaiokegun ekarpenik onena, Estatu propioaren aldarrikapena agendan kokatu ezean nekez sortuko baita herri galdeketeran beharrezkoa den eztabaida eta aktibazioa.


7 Zentzu horretan, interesgarria da Unai Apaolazaren “Indar metaketaren kontra” artikulua: <http://www.naiz.eus/es/iritzia/articulos/indar-metaketaren-kontra>. GARA, 2016/03/23.

lerratzeko aukera emango digun konfrontazio/polarizazio ardatz berria(k) mahai gaineratu beharrean gaude. Besteak beste, identitate nazional antizak barnebidu beharko ditu.

Subjektua eraginkorki artikulatuko badugu, funtsezkoa da berau helburuen baitan definitzea. Subjektu politikoak, finean, “zer gara” galderari baino “zer izan nahi dugu” itaunari erantzuten baitio. Tasun jakin bat baino borondate komuna eta honekiko jarrera aktiboa dira gakoak. Fase honetan, helburua argia da: Estatu egiturak eraikitzea, Euskal Herria sozialista, feminista eta euskaldunerako trantsizio prozesu gisa ulertuta. Honenbestez, Estatu propioa eraiki nahi dutenen eta egungo Estatu antidemokratikoeko dependienteak izaten jarraitu nahi dutenen artean polarizatu beharko dugu euskal jendartea. Hegemonikoa izango bada, lehenengoak aldaketa, burujabetza, justizia soziala, demokrazia, hobeto bizitzeko aukera, (euskal/nafar) herritarron interes orokorra eta gisako unibertsalak sinbolizatuko ditu; bigarrena, berriz, dependentzia, inposaketa, miseria, eliteen interes partikular nahiz eskubide urraketen isla izango da. Ardatz horren baitan, arlokako borroka ezberdinak piztuz eta ase gabeko eskari nahiz espektatiba ezberdinak artikulatuz “Herri”/subjektu plurinazional berria aktibatu eta zabaltzea da erronka. Helburuekin bat egitea izango da, hain zuzen, subjektuaren parte izateko baldintza, edozein izanik ere iragan politikoa, bere burua ezkerrekotzat, abertzaletzat nahiz soilik euskalduntzat izan edo ez. Are, independentista izan edo ez, izan baitzaitezke Estatu propioaren aldekoa independentista izan gabe⁸. Horrek ez du esan nahi gure izaerari muzin egin behar diogunik, baizik eta proiektu komuna konpartitzeko baldintza bakarra helburuekin bat egitea izango dela.

8 Anekdotak pertsonal argigarri bat zentzu horretan. Estatu propioaren inguruko hitzaldi bat ematera joan ginen Zumarragara eta hitzaldi osteko eztabaidan honakoa izan zen bertako gazte baten erantzuna: “yo no soy independentista, pero no tendría ningún inconveniente en votar a favor de un Estado vasco”. Ipar Hegoa fundazioaren “Euskal Estatu irudikatzen” ikerketak ere hori berretsi du. Aipatutako kideak “gutarrak” izan daitezzen “gutarren” multzoa/subjektua Estatu propioaren helburuaren baitan definitu beharko dugu.

**Estatu propioa
demokrazia
ondo bizi
justizia soziala
parekidetasuna
VS
dependentzia
inposaketa
miseria
eskubide urraketa**



9

Subjektua/“herria” berria izango bada ere, ez da hutsetik eraikiko. Agortzearen mobilizazio ziklo historikoak orube paregabea utzi digu: zentzu komun aurrerakoia, sare komunitario sendoak, gehiengo sindikal independentista nahiz borrokalaria edota egungo marko juridiko-politikoaren agorpena, besteak beste. Sei hamarkada luzez ezkerreko abertzaleen mugimendu soziopolitikoak sekulako ondare politiko, sozial, kultural eta humanoa metatu du. Orain aipatutako kapitala subjektu berriaren zerbitzura jartzea da egitekoa, ezkerreko abertzaletasunetik Estatu propioaren aldeko mugimendu soziopolitikorako metamorfosi ariketa eginez. Horrek ez du esan nahi, ordea, Estatu propioaren aldeko mugimendu herritarra ezker abertzalearen zuzendaritzaren pean artikulatu behar denik. Erresistentziaz eraikuntzara pasako bagara, eta horretarako gehiengo oso zabalak barnebiduko dituen subjektua osatuko bada, erabateko autonomiatik garatu beharko da jarduna. “Pilarizazio” edo erresistentzia garaian eraginkorra izan bazitekeen ere, “kapilarizazio” edo zabalpenerako ez da nahikoa aipatutako eredu¹⁰.

9 Iturria: nik egina. Beltzez, egungo jokalekua, ardatzak eta subjektua. Gorritz, jokaleku politikoa astinduz guk finkatu beharreko ardatza eta eraiki beharreko subjektua.

10 Iturria: Mario Zubiaga, “El triunfo de la voluntad”: <http://www.naiz.eus/es/iritzia/articulos/el-triunfo-de-la-voluntad>. GARA, 2016/03/30. Bere proposamena honakoa da: “el frente amplio –EH Bildu–, se conformaría sin cuotas partidarias, con vocación de unificación y militancia única. Por otro lado, en el nivel de la acción popular, los actores independentistas actuarían de forma autónoma, aunque coordinada ad hoc: partido (a extinguir), sindicato, organizaciones juveniles e iniciativas sociales serían interlocutores no centralizados entre la sociedad y la acción institucional”.

Jokaleku berria finkatuz subjektu berria osatzeko funtsezkoa izango da ardatz berriaren baitako konfrontazio guneak piztea. Arloz arlokoak nahiz orokorrak piztu beharko dira, etengabe “Estatu propioa/duina VS Estatu antidemokratiko hauekiko dependentzia” ardatza azpimarratuz. Are, jardun osoa kokatu beharko dugu ardatz horretan, auzolanari eta herrigintzari estatugin-tza senez¹¹ ekinez. Konfrontazioaren eta horrek sortutako polarizazioaren ordain artikulatu, zabaldu eta aktibatuko da subjektu/”herri” berria, sektore ezberdinak “gutarren” multzora dekantatuaraziz. Bide batez, polarizazioaren bitartez lerrarazi edota higatuko dira gai horren bueltan posizio anbigua du-ten eragileak. Era berean, bidean bertan osatuko dira subjektu berri horrek ezinbestean beharko dituen mediazio egiturak nahiz berau taxutuko duten sinbolo, mito, uste edota abestiak, afektuak itsasgarri gisa erabiliz.

Konfrontazio/polarizazio hori erabaki zehatzen bueltan gauzatuko da. Gutxi asko, honela irudikatzen dut horien bueltan subjektua aktibatzeke eredu: “Estatu espainolak/frantsesak (bertako zenbait agintariren konplizitatearekin) Y erabaki hartu du. Horrek Z eragin. Horren aurrean, ezinbestekoa da Estatu antidemokratiko hauekiko dependienteak izateari utzi eta Estatu propioa eraikitzea. Bide horretan, euskal/nafar herritarron¹² nahi eta beharrei erantzunez, X erabaki hartu dadin exijitzen dugu/X erabaki hartzen dugu, beti ere argi izanik hori berme osoz egin ahal izateko Estatu egitura propioak behar ditugula”. Kanpo esku hartzeen kasuan, “X erabaki errespetaraztea” izango da eskakizuna. Erabaki burujabe horiek behetik gora hartu edota hartarazi beharko dira, auzolanetik, herri, auzo, ikastetxe edota lantegietan hasi eta instituzioetan buka. Era horretan, Estatuaren aldarrikapena agendan kokatuko da aukera erreala bihurtuz, berau euskal herritarron nahi eta behar ezberdinei atxikita agertuko da subjektua zabaltzea ahalbidetuz eta inoren zain egon gabe subjektua behetik gora aktibatzeke aukera jarriko da mahai gainean. Erabaki horiek non, nola eta nork hartu, horra hor praktikan ebatzi beharreko auzia.

11 Herrigintzaren eta estatugintzaren arteko uztarketa pentsatzeko zinez baliagarriak dira Jule Goikoetxearen lanak. Honako artikulua, esaterako: “Herrigintza ala estatugintza” http://www.berria.eus/paperekoa/1955/018/001/2015-04-15/herrigintza_ala_estatugintza.htm. BERRIA, 2015/04/15. Bere irudiko, “herrigintza XXI. mendeko Europan ez da Estatuaren kontrako praktika, Estatu demokratizatzeke praktika multzoa baizik, ezin baita demokraziarik egon herriaren eskakizunak gauzatu gabe, gauzatzeko hori, aldiz, erakunde bidez egiten da, eta ahalmen politiko handiena duen erakunde multzoa Estatu da”.

12 ‘Euskal/nafar herritar’ izan liteke, adibidez, bere garapena oztopatzen duen etsaiekekiko antagonismoan bere burua osotasun gisa aldarrikatuko duen “herri” berraren adierazle edo lanabes artikulatzailea. Bidean bertan ikusiko da, frogak eginez.

Adibide bat jartzearen, jo dezagun etxebizitzaren alorrera. Estatu espainolak/frantsesek bertako zenbait agintariren konplizitatearekin espekulazioan oinarritutako hazkunde eredu ustela bultzatu dute. Horren ondorioa argia da: milaka etxe hutsik, milaka herritar etxebizitza eskubidea gauzatu ezinda. Horrez gain, etxegabetzeak gauzatzen dituzte oraindik orain. Horren aurrean, etxegabetzeak gelditu eta etxebizitza eskubidea gauzatu badugu, ezinbestekoa da Estatu antidemokratiko hauekiko dependienteak izateari utzi eta Estatu propioa eraikitzea. Bide horretan eta txapel horren pean, euskal/nafar herritarron nahi eta beharrei erantzunez, behetik gora erabaki burujabeak hartu edota hartarazi beharko ditugu, beti ere argi utziz hori berme osoz egin ahal izateko Estatu egitura propioak behar ditugula. Alde batetik, etxebizitzaren arazoari gaurdanik komunitatetik erantzun beharko zaio. Adibidez, PAH-k Sabadellen egiten duen legez, bloke osoak okupatuz eta arazoa jasaten dutenei eskainiz. Edo Iruñean egin zuten eran, herri mugimenduko eragilean eta instituzioaren arteko elkarlanean etxegabetzeak ekidinez. Bestetik, EAEn onartutako Etxebizitza Legea, Nafarroan etxegabetzeen kontra hartutako neurriak eta beharrezkoak diren gainontzeko erabaki instituzional burujabeak hartu eta errespetarazi daitezkeen presio dinamika herritarrak jarri beharko dira martxan, sektore zabalen atxikimendua bilduz. Behin baldintzak sortuta, erabaki instituzional burujabe horiek gauzatzea izango da egitekoa, Estatuarekin mesedegarri zaigun eremuan konfrontatuz, polarizazioan gorantz eginez eta “gutarren” multzoa zabalduz. Bide batez, are erabaki garrantzitsuagoak hartzeko baldintzak sortuz.

“Gutarren” multzoa zabaltzeko oso baliagarriak izan daitezke kontsentsu zabaleko proposamen taktikoak. Horien ukoaren bidez iraindu sentsazioa barreiatu beharko genuke jendarteko sektore zabaletara. Irain horiek azalera-ziko dituen gertaera katalizatzailea zein izango den alde aurretik ebazterik ez badago ere, aurreko Estatuarekiko konpromisoa duten eremu sozio-politikoaren desertziorako oso mekanismo eraginkorra da (Zubiaga, 2012b). Hala ere, gaurdanik Estatu propioaren alternatiba aukera erreala dela frogatu ezean, aktibaziorako erregai baino etsipenerako nahiz erresignaziorako arrazoi izan daitezke aipatu irainak. García Linerak dioen eran, “jendeak ez du borroka egiten zapalduta dagoelako, baizik eta zapalkuntza hori gaunditzeko esperantza duelako”. Martxan jarriz ilusio eta esperantza hori hauspotzea da, hain zuzen, egitekorik urgenteena.

Estatua eta hori gauzatu duen subjektua gaurdanik eraikitzen diren heinean, ez dute inolako zentzurik “Euskal Estua/subjektua X izango da edo

ez da izango”¹³ gisako planteamenduek. Estatua/subjektua X izango da X izan dadin nahi dutenek gaurdanik egiten duten lanaren eraginkortasunaren araber. Subjektua a posteriori eraikitzen den heinean, bidean bertan ezaugarrituko da. Ezaugarritze hori, berriz, gatazkatsua izango da, herri aldarriek elkar blaituko baitute eta bakoitzak izango duen pisua borroka politikoaren arabera izango baita. Kopuruz nahiz ezaugarritz, oinarria paregabea da.

Bide batez, euskal nazioa/markoa naturalizatzeko eta finkatzeko dinamikak garatu beharko dira. Besteak beste, nazionalismo banalaren tresnak gure eginez. Prentsaren bitartez, eguraldi mapen bidez... egunerokoan hamaika eratan inplizituki nazioaren imaginario kolektiboa birsortuz, alegia. Baita berau sare informal nahiz formalen bitartez gorpuztuz ere. Bide horretan, Imanol Galfarsoren tesi famatuak dioten bezala, “euskalduna desagertu egin behar da” (Galfarsoro, 2015: 291), berezi(tasuna) izatetik norma(ltasuna) izatera pasatuz: “Euskal Herriko iraganeko dimentsio etnokulturala etorkizuneko estatu zibiko-politikoaren osagai erreal ez-aitortua izango da, osagai desagertua, ikusi eta ukitu beharrik ere izango ez duguna” (Galfarsoro, 2015: 290). Esan gabe denok naturalizat jotzen dugun hori izango da. Hots, hegemonikoa.


Ondorioz, iraganeko lanabes artikulatzaileak agortu diren honetan, subjektua zabaltzea eta aktibatzea ahalbidetuko digun ardatz nahiz eskema orokor berri bat jarri behar da martxan. Estatu egitura propioak eraikiko dituen “Herri” berri nahiz hegemonikoa osatu behar da, finean. Horretarako, funtsezkoa izango da jokaleku berria marraztuz ezkerreko abertzaletasunetik Estatu propioaren aldeko mugimendurako metamorfosi ariketari ekitea. Bestela esanda, sei hamarkadatan biziraundako zizarea ziztu bizian hegan egingo duen tximeleta bihurtzea. Hori da helburu estrategikoak lortzeko aukera bakarra.


13 Azken boladan eztabaida interesgarria piztu da Estatu propioaren aldeko subjektuaren izaera interklasistaz. Askotan alderdien arteko aliantzaren inguruko eztabaida ezkutatzen da horren gerizpean, alde aurretik eraturako klase ororen atzean alderdi jakin bat egongo litzatekeelakoan. Galderak berak subjektuak a priori eraikitzen dituen ikuskera uzten du agerian, klase subjektuak alde aurretik eraturak daudela aurruposatzen baitu. Galderaren abiapuntua okerra da ordea, produkzio harremanetan posizio jakin bat izateak ez baitu subjektibitate politiko jakin bat inplikitzen. Horren erakusle ditugu, esaterako, Trump, PNV edota PPren garaipen elektoralak. Erronka, beraz, ez da a priori eraikitako klaseen arteko aliantza, baizik eta borondate kolektibo berri baten eraikuntza. Borondate hori zabala eta aurrerakoa izango bada, ezinbestean, oldarraldi neoliberalarekin suminduta aldaketa gosez dagoen gehiengo zabalaren/sektore baztertuen eskari anitzak artikulatu beharko dira. Borondatea izango da komunean dutena, subjektuaren parte izango delarik helburuekin bat egin eta jarrera aktiboa duen oro. Hau da, Estatu propioa nahi duen oro izango da Estatu propioaren aldeko subjektuaren parte.

BIBLIOGRAFIA

- APAOLAZA, U. (2015) “Abertzaletasunetik independentismora” in: U. Apaolaza, I. Galfarsoro, J. Goikoetxea, A. Olariaga, Independentzia helburu, Tafalla: Txalaparta, 117-184 or.
- APAOLAZA, U. (2016) “Indar metaketaren kontra”: <http://www.naiz.eus/es/iritzia/articulos/indar-metaketaren-kontra>. GARA, 2016/03/23.
- ERREJÓN, I. (2011) “El 15-M como discurso contrahegemónico”, Encrucijadas 2: 120-145.
- GALFARSORO, I. (2015) “Estatu gabeko naziotik naziorik gabeko estatura” in: U. Apaolaza, I. Galfarsoro, J. Goikoetxea, A. Olariaga, Independentzia helburu, Tafalla: Txalaparta, 259- 336 or.
- GOIKOETXEA, J. (2015) “Herrigintza ala estatugintza” BERRIA, 2015/04/15 http://www.berria.eus/paperekoa/1955/018/001/20150415/herrigintza_ala_estatugintza.html
- LACLAU, E., MOUFFE, C. (1987) *Hegemonía y estrategia socialista*, Madrid: Siglo XXI.
- LACLAU, E. (1993) *Nuevas reflexiones sobre la revolución de nuestro tiempo*, Buenos Aires: Nueva Visión.
- LACLAU, E. (2005) *La razón populista*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- ZIZEK, S. (2007) *En defensa de la intolerancia*, Madrid: Sequitur.
- ZUBIAGA, M. (2012a) “Hegemonia eta erradikalizatzeko demokratikoa Euskal Herrian”, Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua: Gizarte aurrerapen iraukorrerako berrikuntza 17: 1641-1651.
- ZUBIAGA, M. (2012b): *Euskal estatua eta nazioa, ekintza kolektibo gisa: euskal estatugintzaz*. Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Ipar Hegoa fundazioa.







Ernesto Laclaren ekarpenen inguruko kaier honek hasiera ematen dio *Inspirazioak* izeneko *Iratzar Fundazioaren* argitalpen bilduma berriari, dagoeneko García Linera boliviarraren antologia liburu batean parte hartu dugularik Txalaparta Argitaletxearekin.

Eredu itxietan baino, inspirazioetan gaude interesatuta. Izan ere, zer pentsa ematen digutenak, azterketarako tresnak edo aukerak eskaintzen dituztenak, horiek dira emankorrenak, gure ustetan. **Inspirazioa** hitza nahiago dugu, honenbestez, **eredua** baino.

Batez ere, XXI mendeko erronkei aurre egiteko ideia eraginkorrek behar ditugu. Ez dugu uste teoria askatzaileen bertsio fosilizatueta itzultzea ideia ona denik. Ortodoxia dogmatiko horren kontrako lehia da ezker abertzalearen istorio osoa, kontraesanak kontraesan, eta horixe izanen da etorkizunean gure indarretako bat.

Gurera ekarri nahi ditugu hainbat pentsalari eta beren ekarpenak. Inspirazioak balia ditzagun, beraz!

Lege Gordailua: SS 197-2105
ISBN: 978-84-697-2691-4



INSPIRAZIOAK
S A I L A